goiena"
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2012-02-17
EGUBAKOITZA
497. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM


MIRIAN BITERI

## Urdelarderotik Aratusteetara

Eguen Gizenak Inauteriei ireki die atea; aste bukaeran mozorroak protagonista | IKUS 'HERRIAK' SAILA

Mikel Laskurain bergararrak 'Wilt' lana egingo du gaur Oñatin | 32




Aramaion izango da gaur Andres Urrutia euskaltzainburua | 26



Bukatu dute Antzuolako udalerriko 63 mugarriak jartzen | 11

# ARRASATEKO AZOKARI BULTZADA

Azoka biziberritzeko prozesua abiarazi dute Arrasaten, herritarren iritzia ardatz hartuta; besteak beste, kontsumo ohiturak aldatzeko beharra ikusten dute | 12


Igor Ortega –Bagarako ordezkaria–, Eneko Barberena –Txatxilipurdiko kidea– eta Iraia Sola –udal ordezkaria–, Maria Arana baserritar eta azokako saltzailearekin. | MONIKA BELASTEGI

## Hondakinak kudeatzeko plangintza egiten ari dira

Mankomunitatea ari da eta prest izan nahi dute apirilerako | 2



# "Hemen ere badira ume lapurtuen kasuak"

SOS Haurtxo Lapurtuak Elkarteko Marian Zubiarekin berriketan | 8

## SINADURAK

JON ETXEBERRIA | 6
6 | EDU MENDIBIL
HORACIO ARGARATE | 14
17 | ANDRES OSA 'SAKONA'
AITOR UGALDE | 20
40 | AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

104 URTEREN OSTEAN, CASA CECIAGAK AGUR ESATEN DIE BERE BEZEROEI.
Eskerrik asko guztioi.
Casa Ceciaga
LIKIDAZIO OSOA
JUBILAZIOAGATIK
Maalako Errabala, 3 • 20500 ARRASATE
Tel.-Faxa: 943 79 12 62

Škoda Scout

TEKNOLOGIA
Eboluzionatzea nor bere buruarekin fidela izatea da.
Udalaitz
ŠKODA
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

# Atez atekoan hainbat inbertsio egingo ditu aurten Ingurumenak

- Hondakinen kudeaketa plangintza egiten dabil Mankomunitatea
- Bergaran eta Oñatin bultzatu nahi du hurrengo atez atekoa
- Osoko bilkura bakoitzak erabakiko du planarekin bat egin edo ez



**Atez ate hondakin organikoak batzeko kuboak.**

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Hondakinak tratatzeko eta kudeatzeko sistema berria gero eta gertuago dago. Hala, apiril inguruan gertu eduki nahi du Mankomunitateak hondakinen kudeaketa plangintza. Orain hori egiten dabiltza, eta, gertu daukatenean, udal bakoitzak haren gaineko erabakia hartu beharko du osoko bilkuran.

Baina, bien bitartean, Ingurumen Batzordea etxeko lanak egiten doa, dena garaiz gertu izateko. Hala, hondakinen kudeaketa sistema berriaren inguruko informazio kanpaina antolatzen dabiltza, eta harendako pleguak prestatzen dabiltza: kanpaina bera zelan egin, informazioa banatzeko pertsonak kontratatzeko pleguak…

Hondakinen kudeaketan beste nobedade bat izango dugu aurten Debagoienean: izan ere, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak transferentzia eta konpostaje planta egingo du Epelen, eta udaberrirako gertu egongo da.

**Atez atekoarekin, lasai**

Mankomunitateko arduradunek atez ateko bilketa bultzatzen jarraituko dute; hori bai, euren plangintza udal bakoitzak berretsi edo atzera bota beharko du.

Mankomunitateko Ingurumen batzordekideek jendeari "lasai egoteko" eskatzen diote: "Etxean hondakinak sailkatzeko ohitura duenarendako, atez atekoa ez da aldaketa handia", esaten du Josu Pereda batzordekide eta Arrasateko Udal Ingurumen buruak.

Atez atekoa pixkana-pixkana joango da bailaran ezartzen; betiere, udalek onartzen badute.

**Kanpainarekin aurrera**

Mankomunitateak 14.076.522,28 euroko aurrekontua du, iaz baino %65 gehiago; eta aurrekontuaren erdia baino gehiago (%57) Ingurumen Batzordeari dagokio. Bere inbertsio handiena, aurten, Epeleko hondakindegi zaharreko lurrak zigilatzeko eta egokitzeko izango da.

Beste partida bat atez atekoa zabaltzeko izango da. Honako diru-kopuruak onartu dituzte: zintzilikarioak eta edukiontziak erosteko, 150.000 euro; aportazio-guneak eta larrialdi-guneak egiteko, 200.000 bat; informazio eta kontzientziazio kanpaina egiteko, 42.000 euro; horrekin lotuta, zenbait bulego ipiniko ditu dagokien herrietan, eta zortzi lagun kontratatu ditu kanpaina aurrera eramateko. Kontratazio horretarako 180.000 euroko partida izan du Mankomunitateak. Hain zuzen, atzo, eguena, Mankomunitatea onartzekoa zen kanpainaren deialdi-pleguak.

Ingurumen Batzordearen proposamena inbertsio horiek Bergaran eta Oñatin aurrera eramatea da, baldin eta osoko bilkura bakoitzak bere oniritzia ematen badu.

**Industrian ere, atez atekoa**

Hondakinak batzeko moduari bueltatuz, atez atekoaren aldeko apustua industriara eta merkataritzara ere zabaldu nahi du Mankomunitateak.

Industriak ere atez ateko bilketa sarean sartuko dira industria-jarduerakoak ez diren hondakinak kudeatzeko, eta hori beste berritasun nabarmen bat da; orain, industria bakoitzak kudeatzen ditu bere hondakinak, eta bakarrik edukiontzi berdea dute. Hiri-hondakinen mota berekoak diren hondakinak sartuko dira bilketa sisteman: enpresajangeletan sortzen diren hondakinak eta beste. "Aurrerantzean, sailkatuta batuko dira hondakinok, eta kantitate handia irtengo da hortik", diote Ingurumen batzordekideek.

Komertzioekin ere bat egin nahi da. Merkatariei galderak egitera joango da pertsona bat, eta erantzunen arabera pentsatuko dute zelan egin hori.

**Kamioi-flota berria**

Hirugarren diru-multzo bat azpiegiturena da.

Hondakinak batzen eta garraiatzen dituzten kamioiendako garajeak eta langileendako instalazioak egin eta kamioi flota berria erosi behar ditu Mankomunitateak. Instalazioak egiten 1.330.000 euro inbertituko ditu, eta bost kamioi berri erosten, 720.000 euro. Bi partida horietatik, baina, bakarrik bigarrena erabiliko da aurten; garajearen inbertsioa datorren urtean egingo da.

Kamioiei dagokienez, Ingurumen batzordeburu Leire Egañak azaltzen duenez, "azken urteotan kamioiak ez dira berritu; beraz, plangintza berriak aurrera egin ala ez, berdin-berdin erosi behar izango lirateke kamioi berriak". Ingurumen Batzordeak azaltzen duenez, kamioi horiek zaharkituta daude eta azkenaldian arazo asko sortu dituzte; beraz, berriak erostea erabaki dute.

Garajeei dagokienez, eraikin berria egingo du Mankomunitateak haiek hartzeko. Garai batean Akein egoten ziren hondakinak batzeko kamioi guztiak; ondoren, behinbehinekoz, Arrasateko Udalak San Balerion dituen garajeak erabili izan dituzte. Garaje berria behin betiko konponbidea izan dadin nahi dute arduradunek.Orain instalazio horiek non egin bilatzen dabil Mankomunitatea eta 2013an egingo dituzte obrak.

**Azpiegitura berria**

Hondakinak kudeatzeko beste instalazio bat izango dugu aurten: transferentzia eta konpostaje planta. Orain arte, Gipuzkoan halako bakarra dago, Azpeitian.

Transferentzia eta konpostaje zentroaren proiektua, obra egitea, zentroa kudeatzea… dena Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren ardura izango da. Zabaltzen denean, Debagoieneko hondakin organikoak hartuko ditu eta prozesatu egingo ditu.

Hondakin organikoak tratatu eta gero, lehengaiaren %20 bihurtzen da konpost, eta gainerako %80a lurrun eta ur lixibatu bihurtzen da; hori hondakina denez, aparte tratatu behar da.

**Autokonpostajea**

Konpostaje planta horretara Debagoienean batzen diren hondakin organikoak eramango dituzte.

---

**%57**

INGURUMENERAKO

Mankomunitatearen aurrekontuak 14 milioi pasakoak dira, eta horren zati handiena Ingurumenerako da: erdia baino gehiago, %81 Epeleko obrak ere kontatuta.

---

**ESANAK**



**"Jendea lasai egon dadila; informatuko dugu garaiz"**

**"Kanpaina bat egingo dugu eta bulegoak irekiko ditugu"**

LEIRE EGAÑA
INGURUMEN BATZORDEBURUA

---

**ESANAK**

**"Kudeaketa plangintza egiten gabiltza oraindik"**

**"Udal bakoitzak izango du plangintzaz azken erabakia"**

JOSU PEREDA
INGURUMEN BATZORDEKIDEA



---

**Zabor-tasan bonifikazioa**

Etxean konposta egiteak saria izango du: zaborren tasan bonifikazioak. Horiek jasoko dituzte ere Antzuolan konposta egiten duten 140 familiek. Baina lehenengo, ordenantza egin behar du Mankomunitateak, bonifikazio horiek arautzeko; izan ere, orain ez dago Debagoienean horrelako bonifikazioak arautzen duen testurik. Gero, udal bakoitzak onartu beharko du ordenantza. Oraindik ez dute kalkulatu zenbatekoa izango den bonifikazio hori; Hernanirako, adibidez, %40 kalkulatzen da.



GOIENA

## AURREKONTUA

Ingurumen sailak aurten aurrekontuko diruaren %57 dauka. Aurtengo hiru egitasmo handitan inbertituko du.

| GAIA | DIRU-PARTIDA |
|---|---|
| **ATEZ ATEKOA** | |
| Zintzilikarioak eta edukiontziak | 150.000 |
| Aportazio- eta larrialdi-guneak | 200.000 |
| 8 informatzaile | 180.000 |
| Kanpaina | 42.000 |
| **BALIABIDEAK** | |
| Kamioi flota berritu | 720.000 |
| **HONDAKINDEGI ZAHARRA** | |
| Zigilatu eta garbigunea egin | 870.000 |

*Iturria: Mankomunitatea.


Konposta egiten Lapatxeko plantan, Azpeitian. | GOIENA


Konposta egiten Lapatxeko plantan, Azpeitian. | GOIENA

## DATUA

**2.000**

KONPOSTAGAILU

Norbere konposta egin dezaketen eta hala nahi duten etxeetan banatzeko 2.000 konpostagailu ekarri ditu Mankomunitateak Foru Aldundittik.

**150.000**

EURO

Atez atekoan ere inbertituko du aurten Mankomunitateak: zintzilikarioak eta edukiontziak erosteko, 150.000 euro dauzka gordeta.

Baina hara ahalik eta kopuru txikiena ailegatu dadin nahi du Ingurumen Batzordeak. Horretarako, norberak etxean konposta egiteko aukera bultzatuko dute, horretarako baldintza egokiak dituzten etxeetan.

Formula horrek urteak daroatza Debagoienean: bailara osoan 600 eta 700 konpostagailu bitartean daude banatuta beste horrenbeste etxetan. Orain, ordea, aukera hori ahalik eta gehien zabalduko dute: "Etxean konposta egiteko baldintzak dituztela uste dugunen errolda egingo dugu, eta, eskutitz bidez, eurengana joko dugu, aukera hori proposatuz", diote Ingurumen batzordekideek. Baldintza nagusia da lursaila, ortua edo loratgia izatea.

Haien zain, dagoeneko hemen daude 2.000 konpostagailu, Foru Aldunditik ekarrita.

Konforme daudenei konpostagailu eta liburuxka bana emango die Mankomunitateak, eta ikastaro bat egin beharko dute, taldeetan banatuta.

Konpostagailua hartu dutenek benetan konposta egiten dabiltzala ziurtatzeko pertsona bat kontratatu du ere Mankomunitateak eta dagoeneko lanean dabil. Antzuolan, hitz emandakoa betetzen dabiltzan begiratuko du etxerik etxe. Gero, konpostagailuak dituzten bailarako beste etxeak ere bisitatuko ditu. Dagoeneko 50 baserritik edo lursaila duten etxebizitzatik pasatu da.

Etxeko konposta egiteko asmoa egia bihurtuta gura dute arduradunek martxoan, dena ondo bidean.

### Zero Zabor talde bateratua

Betiko zabor-poltsaren eta edukiontzien arteko konbinazioa bere azkenetan dago, hondakinak sailkatzeko eta batzeko modu gisa. Izan ere, Sasietako zabortegia eta Gipuzkoan zabalik dirauten gainerakoak lehenbailehen itxi behar dira. Sasietakoak beste hiru urterako bizi-iraupena du. Zabortegiak itxi eta beste 30 urtean, jarraipena egin behar zaie, eta hori finantzatzeko fondo bat egongo da.

Hondakinen gaineko debatearen barruan, Zero Zabor filosofiak gero eta indar handiagoa du jendarte osoan, eta baita Debagoienean ere. Zenbait herritan sortu dira taldeak, eta orain Debagoiena Zero Zabor taldean egin dute bat. Talde horrek bere burua aurkeztuko du jendaurrean hilaren 22an, eguaztena, Bergarako Irizar jauregian, 19.00etan. Eta gaur bertan, egubakoitza, Oñatiko Zero Zabor taldeak batzar irekia egingo du kultur etxean, 18:30ean. Oñatiar guztiak gonbidatu dituzte batzarrera.

## Industriarako garbigunea

Epelen, hondakin ez-arriskutsuetarako garbigune industriala ere egingo dute. 870.000 euroko aurrekontua du. Obra-hondakinak, zepa, harea eta antzekoak batuko dira han. Horietarako lekua egokitzeko obrak egingo dituzte aurten: orain arteko hondakindegia zigilatu egin behar da eta lurra gertu utzi garbigunea egiteko.





SAN LORENTZO AUZOA
B E R G A R A



Logela **bateko** etxebizitza
**139.000**€-tik aurrera
23.127.654 pta

**Bi** logelako etxebizitza
**168.000**€-tik aurrera
27.952.848 pta

**Hiru** logelako etxebizitza
**216.000**€-tik aurrera
35.939.376 pta

• 1, 2, 3 eta 4 logela, sukaldea barne.
• Garaje eta trastelekuak

Lehen BEZa %8
Orain Etxebizitza berrian BEZ-a %4

Etxebizitze bukaera 2012

Eraikitzailea INGESLAN CONSTRUCCIONES
Sustatzailea Grupo Ormak

Argibidea eta Salmenta
943 424 430
www.ormak.es




Arizmendiko kideak Lodosarekiko elkartasun kartelak erakusten Arrasateko Herriko Plazan. | MONIKA BELASTEGI

# Lodosako ikastolari laguntzeko ekitaldia 24an

Arizmendik antolatu du eta Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Arrasateko herriko plazetan izango da; eragile guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE

Otsailaren 24an txanponez eta elkartasunez bete nahi ditu Arizmendi Ikastolak Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasateko herriko plazak. Hain justu, Lodosako ikastolaren aldeko ekitaldi berezia antolatu dute, "oso egoera ekonomiko larrian dagoelako eta ikastolaren etorkizuna bera kolokan dagoelako", Andoni Muxika Arizmendiko lehendakariak azaldu duenez. Nafarroako Foru Gobernuak ikastolei ezarritako finantzaketa-ereduak eta Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak orain arte egin dituen ekarpenak bertan behera uzteak Nafarroan ikastolak desagertzeko bidean jarri ditu. Gauzak horrela, Lodosako ikastola "kinka larrian dago eta elkartasuna da geratzen den bide bakarra", gehitu du Muxikak, eta, horren harira "Arizmendi Ikastolak bailaran ekimenaren eragile eta bultzatzaile" izan behar duela uste dute.

Hori horrela izanda ere, eragile ezberdinak gonbidatu nahi dituzte ekitaldira euren ekarpen ekonomikoa egin dezaten eta Lodosako ikastolaren egoerarekiko elkartasuna adieraz dezaten.

**Txanponak pankarta gainean**

Hiru herrietan egingo diren ekitaldiak 15:00etatik 19:30era bitartean izango dira. 14:30etik aurrera Arizmendiko guneetatik herrietako plazara joango dira ikasle-irakasleak eta bakoitzak txanpon bana lagako du lurrean egongo den pankartaren gainean. Pankarta horretan Lodosako ikastolaren logoa eta Arizmendik horren harira sortu duen irudi berezi bat egongo dira.

Gune bakoitzetik plazarako ibilbidea oinez egingo dute guztiek trikitilariekin kalejiran, eta herrietako kaleak zeharkatuta. 15:00etatik 16:30era Arizmendiko ikasleei begira egingo dira ekintzak, eta 16:30etik aurrera, berriz, herritar guztiei begira.

Beste gauza batzuen artean, musika, dantza eta txokolate-jana egongo direla aurreratu dute antolatzaileek.

**ANDONI MUXIKA**
ARIZMENDIKO LEHENDA

## "Euskararekiko sentsibilitatea duten guztiak daude gonbidatuta"


MONIKA BELASTEGI

**Zergatik antolatu duzue ekitaldi hau?**
Ikastolen mugimenduak historian zehar izan duen egiteko modu oso batean kokatu behar da ekitaldi hau: elkartasuna, sarea, elkarren arteko laguntza eta beste hainbat mekanismo hasieratik martxan dituenak. Bestetik, Arizmendi Ikastola bera gizarteko, euskalgintzako eta Euskal Herria eraikitzeko gizarte eragile den heinean, ekimen bat gehiago da.

**Herritar guztiak gonbidatu dituzue parte hartzera.**
Ikastola gu garenez, gure erantzukizuna da ekitaldia antolatzea, baina Nafarroan ikastolak bizirik jarrai dezan eta euskarak bizirik jarrai dezan euskaltzale eta euskararekin sentsibilitatea duten eragile guztiak gonbidatzen ditugu parte hartzera.

# Arizmendi eta Aranzadiko ikasleak, parlamentari

**T.M./M.B.** | ARRASATE

European Youth Parliamentek (Europako Gazte Parlamentuak) urtero Europa mailan antolatzen duen lehiaketa edo batzarrean hartuko dute parte Bergarako Aranzadi eta Leintz aldeko Arizmendi Ikastolako ikasleek. 1987an sortu zen European Youth Parliament eta berez europar gazteek Europako gaiak eztabaidatzeko sortutako egitasmoa da. Hain justu, parte hartuko dute Arizmendi Ikastolako bi taldek –Almeneko bat eta Gaztelupeko bat– eta Aranzadi Ikastolako batek. Lehen aldia da EAEko ikastetxeek parte hartzen dutena. Gainera, erkidego mailako lehen kanporaketa Arrasaten jokatuko da, hilaren 25ean, eta, denera, bost talde lehiatuko dira. Bakoitzak gaurkotasuneko gai sozio-pokitiko-ekonomiko baten inguruko ponentzia bat aurkeztu beharko du, eta hori defendatu. Arizmendiko ikasle Miren Perezek izan zuen parte hartzeko ideia, telebistan lehiaketaren berri izan zuenean.

# Premia duten familiei janari gehiago bideratzeko hitzarmena sinatu dute

**M.B.** | BERGARA

Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin orain arte izan duen lankidetza hitzarmena berritu du asteon, Bergaran. *Azken minutua* ekimena sustatzeko berriztu dute hitzarmena. Elikagaien Bankuak 116.219 euroko diru laguntza jasoko du aurtengo kudeaketa gastuei aurre egiteko. Hondakinak prebenitzeko programari eutsi nahi dio hitzarmenak, kudeaketa iraunkorreko eredu baten bitartez. Juan Carlos Alduntzin Ingurumen eta Lurralde Antolaketako diputatuak eta Juan Mari Garitano Gipuzkoako Elikagaien Bankuko lehendakariak sinatu dute hitzarmen hori.

Hitzarmenaren bidez, saltoki handietan eta enpresa ekoizleetan ahalik eta janari kopururik handiena biltzeko aukera izango du Gipuzkoako Elikagaien Bankuak. Elikagaiak jaso ondoren, 24 ordutan sailkatu eta manipulatu egiten dituzte, gero elkarte onuradunen artean banatzeko.

Iaz, 15 enpresak emandako 390 tona elikagai bildu zituzten, eta 26 erakunderen artean banatu. 2010. urtearekiko % 30eko igoera izan zen. Aurtengo aurreikuspenak ere goranzkoak direla azaldu zuen sinadura ekitaldian.



Aldundiko eta Elikagaien Bankuko ordezkariak Bergarako biltegian. | A.M.



Lehenengo egoiliarra (arrasatearra) inaugurazioko kandela pizten. | GOIENA

# Albertia-Etxea, nagusiendako egoitza berritzailea, zabaldu dute

**M.B.** | ARRASATE

Kandela bat piztuta inauguratu berri dute Miñaon Albertia -Etxea izeneko nagusiendako egoitza. Modu horretan egoitzan sekula faltako ez den berotasuna irudikatu nahi izan zuten bultzatzaileek. Era berean, "zahartzearen gainean dauden mito faltsuak apur bat argitu" nahi izan zituzten: "Inguratzen gaituen iluntasunarekin bukatu nahi dugu. Konbentzituta gaude pertsonak bizi daitezkeela kalitatez eta aktibo sentituz, oso nagusi direnera arte".

Albertia-Etxea ohikotik erabat aldentzen den ikuspuntu filosofikotik pentsatuta dago. Han ez daude *pazienteak*, *bezeroak* baizik eta etxea eurendako izateaz gain, familiakoak eta lagunak gonbida ditzakete.

*Zugandik hurbil* lelopean Albertia-Etxean diharduten profesionalek zahartze aktiboa bultzatu nahi dute, eta horretarako, bereziki bultzatuko dituzte jarrera fisiko, intelektual eta artistiko osasungarriak. Baita elkarrekiko errespetuan eta laguntzan oinarritutako bizikidetza ere.

Otsailaren 9an inauguratu zuten egoitza eta dagoeneko dozena bat nagusi daude bertan. Aipatzekoa da, lehenengo egoiliarra Arrasateko gizonezkoa dela.

# 160 ikasle eta kirol negozio bilakatzeko 20 ideia Futuraman

Ideien artean argindarra sortzeko gauza den gimnasioak jaso zuen saria

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko 160 bat ikaslek Futurama ekitaldia egin zuten astelehenean Arrasaten, Kimu Berri gazteen arteko ekintzaileletasuna sustatzeko programaren barruan. Ikasleen artean talde lana, sormena eta negozio ideia berrien garapena sustatzea zituen helburu eta kirolaren etorkizuna izan zen esku artean izan zuten gaia.

20 bat taldetan banatuta, gustukoen eta etorkizun handien izan dezaketen ideiak bota eta negozio bilakatzera arteko plangintza osoa prestatu zuten. Eta ideia hoberenak saria jaso zuen.

**Gimnasio iraunkorra**

Hain justu ere, gimnasio berezi bat egitea proposatu zuen Eki Solutions proiektuak, erabiltzaileek gimnasioko makinak erabiliz ariketa fisikoa egiterakoan argindarra sortzeko gauza izango dena. Modu horretara, energia garbia sortuko luke eta gimnasioaren funtzionamendua ahalbidetuko luke, modu iraunkorrean. Gainera, elektrizitate soberakina sortuko balitz, argindar hori saltzeko aukera izango luke gimnasioak, eta autofinantzatzen lagundu.

## Parte-hartzaileak eta antolatzaileak pozik emaitzarekin



**ASIER GOIKOETXEA**
IKASLEA

**"Interesgarria eta aberasgarria iruditu zait Futurama"**

"*Haurrak eta kirolak* gaia tokatu zaigu. Hala, garatu dugun enpresak egiten duena da ingurune birtual bat sortu, non haurrak ondo pasatuz eta kirola eginez lortzen duten osasuntsu egotea, ikastea eta euren sormena garatzea. Gero, gela pertsonalizatu horiek eskolan munta daitezke. Ideia hori garatzeko espezialitate eta campus ezberdinetako ikasleak batu gara taldean, eta bakoitzak dakiena aportatuz lortu dugu ideia aurrera eramatea. Aberasgarria eta interesgarria iruditu zait Futurama. Halako gehiago egin beharko lirateke".



**AMAIA BERISTAIN**
IKASLEA

**"Elkarlanerako leku egokia izan da; gehiago egin beharko lirateke"**

"Futurama ekitaldia oso aberasgarria iruditu zait, elkarlanerako leku aproposa. Halako gehiago egin beharko lirateke. Izan ere, ikasketa ezberdinak egiten ari garen ikasleak nahastuta egon gara talde bakoitzean eta horrek ideia bera ikuspuntu ezberdinetatik aztertzeko eta osagarri izateko balio du: niri falta zaidana taldekideak ematen dit eta alderantziz.

Gainera, oso aktibitate dinamiko eta dibertigarriak egin ditugu; plastilinarekin ibili gara, esaterako. Bai, oso ezberdina eta dibertigarria iruditu zait Futurama".



**JOSU OLEAGA**
ANTOLATZAILEA

**"Emaitza ikusita litekeena da Futuramak jarraipena izatea"**

"Ekitaldiaren oso balorazio positiboa egiten dugu. Goizeko eta arratsaldeko saioak oso ondo joan dira. Ikasleak eurak ere pozik daude, eta hori da guretzat interesgarriena. Ondo pasatu dute eta pozik doaz etxera. Garatu dituzten ideiei dagokienez, denetarik egon da: batzuk dagoeneko existitzen dira eta ez dira berriak, baina gehienak aplikagarriak dira gaur egungo merkatuan".

Oraindik guztiz erabakitzeke dagoen arren —balorazioa egiteko batzarra egitekoak gara—, gaurko emaitza ikusita litekeena da Futuramak jarraipena izatea."

# Lanbide Heziketaren azoka apirilean egingo dute

M.B. | ARRASATE

Goiaz! izeneko Debagoieneko Lanbide Heziketako azoka apirilaren 19an eta 20an egingo da aurten. Arrasateko Kulturaten izango da, eta bi egunotan eskualdeko lanbide heziketako zentroen eskaintza ezagutzeko aukera izango dute bertaratzen diren guztiek. Horrekin batera, formazio-akademiak, hainbat enpresa eta beste zenbait formazio eta enplegu zerbitzuren gaineko informazioa ere egongo da azokan.

Hain justu ere, hogei erakundetik gora izango dira han eta bi egunotan barrena tailerrak, hitzaldiak eta hainbat esperimentu ikusteko aukera egongo da.

Ikasleekin batera, langile eta langabetuei zuzenduta dago azoka; formazio zein lan bila dabiltzan herritarrei, azken batean, eta hori horrela, azokan parte har dezaten dei egiten diete antolatzaileek, Debagoieneko Mankomunitateko garapen Ekonomikorako Agentziak.

**Bailarako LH datutan**

- 7 ikastetxe.
- 11 familia profesional.
- 32 titulazio.
- 1.051 ikasle.

**Bailaran eskaintza zabala**

Debagoienean guztira zazpi ikastetxe desberdinek eskaintzen dituzte Lanbide Heziketako formazio zikloak. Arrasate, Bergara eta Oñatin bina zentro daude eta Aretxabaletan bakarra.

2011-12 ikasturteari dagokionez, 607 matrikulazio berri izan dira eskualdeko ikastetxeetan.

Guztira, Debagoienean 1.051 ikasle daude Lanbide Heziketa ikasten, horietatik ia %60 goi mailako zikloetan eta gainontzekoak, erdi-mailako zikloetan.

**Irune Agirre** | Torturaren Aurkako Taldeko abokatua

# "Bada garaia torturaz berba egiteko eta hura aitortzeko"

Astelehena Torturaren Aurkako Eguna izan zen; horren harira hitzaldia egin du Agirrek Arrasaten



Irune Agirre. | GOIENA

M.B. | ARRASATE

**Ze garrantzi dauka Torturaren Aurkako Egunak?**

Egun honekin bistaratu nahi dugu Euskal Herriak pairatzen duen errealitate bat, torturarena. Joxe Arregiren heriotza baliatu zen data jartzeko. Izan ere, torturapean hil zen 1981eko otsailaren 13an, duela 31 urte. Eta egun hori baliatu genuen torturaren gaia kalera ateratzeko.

**Eta nolakoa da errealitate hori?**

Oso errealitate gordina da. Datu batzuk ematearren, azken 30 urteotan 7.000 torturatu inguru zenba ditzakegu. Datuok nahiko orientagarriak dira, baina datu handia da Euskal Herria moduko herri txiki batendako. Azkenaldian sumatu dugu torturaren gaia kaleratzeko orduan jendea sentsibilizatuago dagoela eta beldurra galdu dela torturaren gaiaz berba egiteko. Eta orain arte errealitate ezkutua izan bada ere, egia da azken urteetan kalean gehiago dagoen gaia dela eta zenbait tertuliatan gero eta gehiago entzuten dela tortura existitu egiten dela. Baina publikoki aitorpena eman arte, oraindik badaukagu bidea egiteko.

**Aitorpena nork eman beharko luke, erakundeek, herritarrek...?**

Nik uste dut euskal jendartean badagoela onarpen eta aitorpen bat. Gogoratzen dut duela bi urte Donostian egindako torturaren kontrako manifestazio batean 20.000 pertsona batu ginela. Hori adierazgarria da. Eta Torturaren Kontrako Eguna hurbiltzen denean, urtetik urtera, gero eta dei gehiago jasotzen ditugula jendeak errealitate hori kalera atera nahi duelako. Hala, nik uste dut jendartearen baitan aitorpena dagoela, baina aitorpen publikoa beharko genuke instituzioen partetik; ofiziala eta publikoa; azken batean, tortura errealitate bat izan da, baina beti ezkutatu izan da instituzioetatik. Eta horretara goaz. Hori da egin beharreko lehen urratsa: tortura 30 urteotan oso presente izan dugu Euskal Herrian, eta bada garaia horretaz hitz egin eta hura aitortzeko.

**Eta aitorpenerako ze urrats proposatzen dituzue?**

Euskal jendartean aitorpen bat dagoen heinean, horrek ere eragingo du instituzioek pauso hori eman dezaten. Hala, guk geuk izan behar dugu instituzioei hori eskatu behar diegunak. Gu geu gara torturaren kontra aritzen den taldea eta, oro har, gai honekin sentsibilizatuta dagoena. Baina zenbait alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozialekin ere bildu izan gara, eta, horien aitorpena eta laguntza ere jaso dugunez, horiekin ere instituzioei presio egin behar diegu, aitortza hori lortzeko.

**Torturaren gakoa inkomunikazioa dela salatzen duzue, eta hori bukatzeko exijitu.**

Bai. Beti diogu inkomunikazioak tortura bermatzen duela. Egiten duena da oso esparru hermetiko bat ireki non atxilotuak 120 orduz poliziaren eskuetan egoten diren kanpoko inolako harremanik izan gabe. Beraz, atxilotu bat inkomunikatuta dagoenean, ez dakigu hurrengo bost egunetan zer gertatuko den berarekin. Eta horrek inpunitate osoa zabaltzen dio torturari. Aplikatuko ez balitz, inkomunikazioak murrizten dituen hainbat eskubide izaten jarraituko lituzke atxilotuak eta murriztu egingo litzateke torturaren arriskua. Azken batean, fiskalizazio askoz handiagoa egongo litzateke komisarietan gertatzen denarekin. Horregatik diogu egin beharreko lehen gauza dela inkomunikazioa bukatzea.

**"Inkomunikazioa aplikatzea erabaki politikoa da, eta kentzea ere bai"**

**Eta nola gauzatu?**

Nahiko erraza da. Aplikatzea erabaki politikoa den neurrian, kentzea ere erabaki politikoa besterik ez da. Bistan da azken denboran egoera politikoa aldatu egin dela. Badaramatzagu ia hamar hilabete atxiloketa inkomunikaturik izan gabe, eta, beraz, tortura kasu bakar bat bera ere egon gabe.

## ZABALIK

**JON ETXEBERRIA**
http://goiena.net/iritzia/



# Teknologia inperfektuak

Teknologian murgildutako gizarte honetan, askotan ahaztu egiten dugu gizakiok egindako edozein tramankulu definizioz inperfektua dela, eta, beraz, huts egin dezakeela. Teknologia desberdinen arteko diferentzia nagusia huts egiteko probabilitateetan datza, eta, bereziki, horien ondorioen larritasunean.

Bada teknologia bat beste guztien artean nabarmentzen dena bere akatsen emaitza larriengatik: energia nuklearra. Izan ere, nuklearra da giza adimenaren eskalan mugagabeak izatera irits daitezkeen ondorioak sor ditzakeen teknologia bakarra, bai denboran eta bai espazioan ere (lur eremu itzelak kutsa daitezke mendeetarako). Tamalez (edo zorionez), hutsegite bakoitzak gauza berriak erakusten dizkigu, pentsaezina pentsatzera behartuz eta beti arriskua uste duguna baino handiagoa dela erakutsiz.

> **"Nola jarrai dezakegu energia nuklearrarekin jolasten?"**

Teknologiak berak dituen gabeziez gain, arriskua naturatik bertatik eta gizakion eskuetatik ere badator. Izatez, inguruak kalte larriak eragin ditzake, eta, adibidez, estatuko zentral nuklearrek estres test berriak gainditu badituzte ere, hobekuntzak egin beharko dituzte katastrofeen aurrean egokiago erantzuteko. Gizakion efektuaren arriskua ere ezin da gutxietsi, nahigabe (arduragabekeria) edo nahita (sabotajea) eragindako okerrengatik. Lehenengoaren adibide larriak izan dira jada eta bigarrengoarenak zorionez ez badira gertatu ere, estatuko inteligentzia zerbitzuek zenbaitzuetan ohartarazi dute (azkena 2011n) estatuko zentral nuklearrek erasoen aurrean dituzten ahultasun nabariak.

Beraz, huts egiteko arriskua existitzen dela onartuz (txikia edo handia berdin dio), eta ondorioak zenbaterainoko larriak izan daitezkeen konprobatu ondoren, nola jarrai dezakegu gizakion eskalatik kanpo dagoen teknologia honekin jolasten? Alemaniarrak erakusten ari dira beste bide bat posible dela eta badirela alternatibak. Laster edo geroago, gu ere bide beretik joango gara, ez daukat zalantzarik.

## USTEAK USTE

**EDU MENDIBIL** | emendibil@goiena.com

# 'United colors, united tunes'

Eibar aldetik datozen eta Labegaraietan jaisten diren magrebtarrek tonu arabiarrak dauzkate mugikorretan. Hurrengo, motxila handi batekin MUko ikasle bat igo da autobusera: aitaren edo osabaren eraginez agian, RRVko musikarekin dator hura, erdi lo oraindik, baina autobusa piztu nahian. Aurpegi txarrarekin begiratu dit kaskoak jartzeko eskatu diodanean. Bitartean, Shakiraren erritmora, bota zuri altuak astintzen ditu neska batek. Makillaje distiratsuegia goizerako. Tarteka, bere azken nobioarekin eztabaidan ari da. Astelehena izatea eta futbolik ez egotea eskertu dut Arrasatera heltzean: txoferrak *Carrusela* piztuta izatea bakarrik falta: "¡¡¡Penalty en Torrelodoooones...!!!".

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Sortuko ahal dira besteak!

**Mikel Asurmendi**
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Urtarrila joan da, ilbeltza. [...]

Urtarrilaren 13an Jon Sarasuak "Euskararen kinkak" ekarri zizkigun Hendaiako Beltzenia-ra. "50 urteko aroa joan da. Nolakoa? Nola dago euskara?", itaundu zuen jendartean hizlariak.

Mintzaldietan "diagnosia, gaixoa, baikor edota ezkor" eleak agertzen direnean, malo. Edonola ere, har diezaiogun Sarasuari hitzaren adiera baikorra: elurra nola, euskara malo-malo ari da. Elurra mara-mara, hots, *Txillardegi* joan berri den neguan, hotz.

Euskarak corpusa hartu du joan deneko mende erdian. Itzela. Hezkuntzan errotu da gure hizkuntza. Kontzientzia ere hartu du euskal hiztunak. Gorputz horrek irauterik ba ote du XXI. mendean zabaldu den jendarte "ezezagunean"? Erantzuna: hotz eta bero.

Hots, galdera: euskara hiztunen baitan osorik bizi daiteke, iragan mendeko euskal elebakarrean baitan nola, teknologiaren eta kosmologiaren aro berrian? Ez espazio-ontzi batean kontserbatzeko baina, espazio berrietan bizitzeko, alajaina!

Atxabaltxarra ez zaigu guztiz ezkor agertu, alafede, euskaldun osoa izaten segitzeko, partzialki, urrats funtsezkoak ematea kontsegitu dugu. *"Kontsegitu,* bai *kontsegitu". "Erreusitu* berriz?". Azken hitzok eneak dituzu irakurle. Sarasuaren hitzak interpretatzeko ele joko bat asmatu aldera, munduaren, oro har, eta euskal munduaren dibertsitatea, orobat, hizpide ekarri aldera.

"Derrigorrezko" –militantezko– garaia joan zaio euskarari, paradigma berriak landu behar ditu euskarak. Gizaldi honetan (datozen beste 50 urteetan) pertsonak ekosistema zaindua behar duen gisan, halaxe behar du euskarak garatu ere bere habitat. Euskararentzako habitat bat eraiki beharra daukagu. [...]

Sarasuaren hitzaldiak gehiago eman zuen eta askoz gehiagorako ere ematen du. Hurrengo batean agian luzatuko dut nire jardun mugatu hau. Agiantzak betetzekoak direla oroimenean (h)i(l)tzaturik, noski, *palabra de vasco* "hitza hitz" izan dadin menturan, alegia.

Jaizkibel, Aia, Xoldo eta Larrun mendiek osatutako *zirkua*ren erdian ari naiz. Ez naiz zirku hitz modernoaren adieran, jatorrizko hitzaren arieran baizik. Eta pentsu dut: Laboa joan zen, Lete ondoren eta *Txillardegi* berriki. Urtarrilean baina, Tere Irastortza poeta egon da Bidasoaren magalera, *Eta orain badakit* liburu kari, Hendaiako Mediatekan nahiz Irungo Kabigorri Ateneoan. Tere berriz ere jinen zaigu. Karmele Igartuaren *Itsaso kontra bat* itsatsiko dio bereari, Mendi Zolan-en; martxoaren 24an. Benito Lertxundi ere jinen da, martxoaren 31n.

Urtarrilean, *Sortuko dira besteak*… kontzertuaren lehen emanaldia izan da Irungo Amaian. Martxoa, Euskararen hilabetea da Hendaian. Izarren hautsa bizigai bihurtu da Bidasoan. Aro berri baten abiaburua ote? "Sortuko ahal dira besteak!".

P. S. : 2012ko otsailaren *Irunero* aldizkarirako (202. zenbakia) ondutako testu honek, sarrera hau darama: *Eleak 202a* ari naiz *iruten* otsail hasi berrian. Edo bestela erranik: 202 ele behar ditut *Eleak iruten 202*ko sarrera saretzeko. Bon, aro berriko zenbaki palindromo hau hasteko ele joko sorta besterik ez.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
**KULTURA SAILA**
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

# Erronka berrien aurrean kikildu gabe

**Eñaut Portuondo**
Arrasate

Mundua aldaketa sakonak jasaten ari da.

Aldaketa horiek krisi latza ekarri dute Euskal Herria bere barne daukan mendebaldera.

Euskaldunon ongizatea eta aberastasuna ukiezinak zirelakoan geunden orain arte, baina bat-batean, harriduraz, sistema guztia kolokan nola jartzen den ikusten dugu.

Erronka guztiak gaindituta zeudela uste genuenean, erronka handiagoak agertu zaizkigu aurrez aurre.

Horrela, krisi egoera honen aurrean, bi pentsamolde-korronte nagusi nabarmentzen dira:

Alde batetik, langileon eskubideak gutxitu eta lan baldintzak prekarizatuz lanpostuak sortu daitezkeela uste dutenak (Rajoiren lan-merkatuaren erreforma, horren adibide); eta bestetik, pankarta baten atzean jarri eta larunbatero manifa batean parte hartuz egoera aldatu daitekeela uste dutenak (Martin Garitano ahaldun nagusia kasu).

Baina debagoiendarrok badakigu eta demostratu dugu beste bide bat badagoela.

Badakigu aberastasuna banatu ahal izateko, lehenengo sortu egin behar dugula.

Baita ere badakigu sorkuntza hori etengabea izan behar dela.

Eta horren adibide nabarmenena: sozialismoa vs kapitalismoaren arteko dualismo sinplistatik ihes eginez, Arizmendiarrietaren lidergopean, Debagoienean jaio, hazi eta garatutako unibertsitate, industria, aseguru etxe, finantza eta banaketa elkarteak.

Ez daukagu duda izpirik, erdibide zentratu horretan mantenduz, kikildu gabe egingo diegula aurre agertzen zaizkigun erronka guztiei.

# Aitaita, zergatik...?

**Marisol Andrade**
Eskoriatza

Lanbideren atean ikaragarrizko ilara dago. Langabezian daudenak lan bila akaso?

—Aitaita, baina zergatik ez daukate lanik?

Maitea, eskuak, pertsonak bezala, ezberdinak dira.

Batzuk oso finak eta luzeak, bulegoetan egoteko, erakunde zein instituzioetan, baina "ez zikintzeko".

Aitzitik, sendoak eta zabalak direnak aitona-amamenak bezalakoak; horiek egin dezakete edozein lan, horretarako baitaude prestatuta.

Esaterako, baratzean.

—Baina zergatik ez landu landak, aitaita, baldin badaude aritzeko?

Lurra sobera izan badaukagu; gogorik ez, berriz, jarduteko.

Bizkarra makurtzeko prest ez jendea, are gutxiago aitzurra edo pala hartzeko.

Orduan, zelan galde diezaiekegu ea landetan lan egin gura duten, prest ez badaude erantzuteko edo erantzun moduan "kirtena dela" besterik ez jasotzeko.

Lurra landuz handik atera jateko, ez ministro ez diputatua bezala, baina bai apaltasunez eta duintasunez bizi izateko.

Konbenioak zabaldu beharko lituzkete gobernuaren eta baserritarren artean.

Horrela irabaziko lukete: baserritarrek, lurra bera; eta Lanbideren zerrendatik irtengo lirateke besteak.

Garaiko produktuak, bertokoak aldi berean, maitasunez ale guztiak landuta, elikagai hoberena sabelera joango dena.

Bakarrik jan beharrean, auzolagunekin partekatzen sor daiteke giro paregabea; bai herrian, bai geure osasunaren alde.

—Aitaita, eskuak oso handituta dituzun arren, zeure garunak ministroarenak baino hobeto pentsa dezake. Zergatik orduan ez aurkeztu bere ordez?

Seme, kongresua ez dut maite; baserria, berriz, ene etxe.

Maitale zintzo dut lurra zein abere.

Nahiz eta honekin ez egon batere konforme, "gutxi baloratuta baitaude".

Janariaren katean, lehenengo, elikagaiak nondik datozen ondo letorkiguke birpasatzea: lana bilatzerakoan baloratzeko; ze funtsezkoa baita sabelera egunero eraman beharrekoa nondik datorren ondo-ondo jakitea.

Bitartekariak murrizteko premia dugu, eta, ondo ordainduta egonez gero, ziur aski, lurra ez litzateke izango aukera makala.

Hara jendea zein mundua bueltaka eta jiraka.

Lanbideen ilaran, aldiz, denbora-pasa.

—Aitaita, nik ministro gura dut izan, baina, lehenengo, baserria nola zaindu ikasteko dut premia, horrela edukiko ditut bai bihotza bai patrikak beteta.

Ez ahaztu, seme, zeure patrikak bete baino lehen, baserritarrarenak oparo egon behar lirateke ase.

Goian dagoena txikia babesteko jaio baita, eta ez kontrakoa.

Batzuetan etorkizuna garbi ikusteko, atzerantz begirada bat besterik ez da bota behar.

Nondik gatozen jakiteko eta agian bueltatu (bultzatu) egin behar…

# Andoni Urzelairi, atrebentziaz

**Joxe Olabe Zuazua**
Aretxabaleta

Heriotzaz.

Heriotzari bizkarra emanda bizi omen gara.

Beldurrez edo.

Hiltzen ikasteko beharra.

Libreago izateko, bizitzaz kontzienteago.

Iritziak iritzi.

Ados.

Eta, erlijioak.

"Erlijioek mitifikatu eta kriminalizatu egin dute heriotza, haien mesederako, noski, borondate uzkurrek erruz betetzen baitituzte elizak".

"Erlijioek", diozu.

Zein erlijiok, baina?

Denek?

Nazareteko Jesusek ere bai?

Bizitzaz maiteminduta bizi izan zen Jesusek ote zuen heriotza mitifikatu, kriminalizatu?

Heriotzatik askatu gaituen Jesusek ere bai?

"Ez izan kezkarik... Nire Aitarenean toki asko dago... Nirekin eramango zaituztet" esan zigunak?

Heriotzari beldurra kentzen ahalegindu zen Jesusek?

"Nire iritzian oraingo neke lanak ezer gutxi dira gero guregan azalduko den aintzaren aldean" esan zigun Pauloren erlijioak akaso?

Iritziak iritzi...

Baina...

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

HEMEN DIRA ARATUSTEAK!

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA
ARRASATE, ARETXABALETA, ESKORIATZA ETA BERGARAKO ARATUSTEAK
OTSAILAK 20, 19:45



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

**Marian Zubia** | SOS Haurtxo Lapurtuak Euskadi elkarteko bozeramailea

# "Gurasoak, seme-alabak, anai-arrebak aurkitu nahi ditugu"

"Hiru hilkutxa ireki eta barruan ezer ez aurkitu izanak eragin du asko eta asko hurbiltzea guregana" diote SOS Haurtxo Lapurtuak elkartetik

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Egunetik egunera, gehiago dakigu ume lapurtuen ustezko sarearen gainean eta ustezko kasuen gainean. Izan ere, SOS Haurtxo Lapurtuak elkarteak lan handia egin du azken hilabeteotan ustezko kasuak ikertu eta amarru hori argitzeko. Elkarte horretako bozeramaile da Marian Zubia (Elgoibar, 1972). Gaur egun Orion bizi da. Bere ama biologikoa topatu nahi du, adopzioan hartutako ume lapurtu horietako bat dela susmoa duelako.

**Noiztik dihardu lanean SOS Haurtxo Lapurtuak elkarteak?**

Iazko maiatzean hasi zen lanean. Aurretik, bazen beste elkarte bat, Asociacion Nacional de Adopciones Irregulares izenekoa, baina hortik aldentzea erabaki genuen, iritzi ezberdinak genituelako. Euskal Autonomia Erkidego mailan egiten dugu lan, baina harremanak ditugu Nafarroako eta Espainiako elkarteetako kideekin.

**Zenbat kide zaudete bertan?**

700 eta 1.000 artean izan gaitezke arazoak eragindakoak.

**Tipologia ezberdinekoak, ezta?**

Bai, bagaude guraso biologikoak, hau da, umea kendu ziotenak; umeak adopzioan hartu zuten guraso; ume adoptatuak eta baita apropiatuak ere.

**Igarri duzue azkeneko hilabeteotan geroago eta jende gehiago ari dela zuengana hurbiltzen?**

Bai, bai. Hiru hilkutxa ireki eta barruan ezer ez aurkitu izanak eragin du asko eta asko hurbiltzea guregana. Zalantzan zeudenak eta ezkutuan edo anonimotasunean jarraitu nahi zuten asko, hurbildu zaizkigu azkenaldian. Jende askok, hasieran, uste zuen sei ero ginela. Beste zereginik ez geneukala. Orain ohartu dira egia esaten ari garela eta arazoa ez dela kanpokoa, baizik eta bertakoa dela.

**Zein da zuen helburu nagusia?**

Gure gurasoak, seme-alabak, anai-arrebak aurkitzea. Eta jakinaraztea zein ospitaletan gertatzen zen hau eta pertsonen, errudunen, erantzuleen, izen-abizenak ezagutzea. "Halakok ala bestekok horrenbeste ume jaioberri lapurtu zituen" esan ahal izatea.

**Ustezko ume jaioberri lapurtuen zenbat kasu egon daitezke Gipuzkoan?**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa kontuan hartuta, 700 eta 1.000 artean izango dira, gure datuen arabera. Baina zaila da, ze egunero-egunero jasotzen ditugu deiak. Egunean, 10 edo 15 dei jasotzen ditugu.

**Hedabideetan-eta informazioa zabaldu ahala, jendea bere kasua ikertzera animatu da?**

Bai. Ikusi du jendeak egia izan daitekeela, susmoak egi zantzua hartu duela, benetan eta serio ari garela...

**Gainerako euskal lurraldeetan baino gehiago Gipuzkoan?**

Bai, askoz ere gehiago. Gipuzkoan 600 ustezko kasu baino gehiago dira.

**Zergatik da hori?**

Ez dakigu. Ez da Gipuzkoan gehiago ikertu dugulako, baizik eta hemen ustezko kasu gehiago izan zirelako beste lurralde batzuetan baino. Zizurkileko Fraisoro etxera, Diputazioarena zen hartara, ume adoptatuak, legalki, ematen ziren tokira, jendea kanpotik etortzen zela jakin dugu. Emakume ezkongabeak -eta hara joaten ziren erditzera. Haurdunaldi eta erditze faltsua egin eta umearekin itzultzen ziren etxera. Iparraldetik eta Frantziatik gertuago dago Gipuzkoa. Eta horrek ere eragina izango du seguruen.

**Sare antolatu bat egon zen ume jaioberri lapurtuen inguruan?**

Bai. Ume bat bahitzeko behar dira medikua, emagina, anestesista, umea ospitaletik aterako duen norbait... Gauzak ondo antolatuta egon behar ziren, ezinbestez. Mediku batzuk eta erlijioso batzuk, mojak, apaizak..., hor, amarru horren barruan, behar zuten egon. Irregulartasunak antzeman diren kasuetan, horiek agertzen dira inplikatuta.

> **"Gipuzkoan 600 ustezko kasu baino gehiago dira, beste inon baino gehiago"**

**Ospitaletan lanean zihardutenen aldetik zuekin kontaktuan jartzeko deirik jaso duzue, inor etorri zaizue ebidentziak kontatzera?**

Deiren bat edo beste bai izan dugu, baina oso zaila da salaketa beste barik egitea. Frogak behar dira horretarako. Lekuko zuzenen testigantza zehatzak oso garrantzitsuak izango lirateke.

**Zuen ikerketen arabera, ze urteren artean funtzionatu zuen sare antolatu horrek?**

Arazo asko izan ditugu hau dena ikertzeko. Informe faltsuak agertu dira, edo badakigu leku batzuetan izoztutako ume hilak erakusten zituztela, hainbat ume adoptatutakoen jaiotze datekin irregulartasunak antzeman ditugu... Hori guztia egiteko jende asko eta alor ezberdinetakoak behar dira. Lortu ditugu paperak, non frogatzen den ospitale batetik ume bat atera zela, baina, gero, ez dago paperik frogatzeko ume hori beste ospitale batean sartu zela. Ez delako ume hori ospitalean sartu.

**Zerk mugiarazten zuen sare antolatuko inplikatuak hala jokatzera?**

Diruak, argi eta garbi. Arrazoi ekonomikoak daude tartean.

**Zailtasunak aurkitu dituzue kasuak ikertzerakoan?**

Bai. Bereziki, erregistroetan. Ospitale batzuek ematen dute informazio zehatza; beste batzuek, informazioaren zati bat. Beste ospitale batzuk itxita daude eta ezin izan dugu informaziorik lortu. Eta erregistroetan ere arazoak aurkitu ditugu. Erregistroetan egon beharko lirateke abortuen paper-sortak. Izan ere, umea hilda jaiotzen bada edo 24 ordu baino lehenago hiltzen bada, ez da egoten jaiotze data literalik, baizik eta paper-sorta. Hor jartzen du ume horren historial klinikoa: zergatik hil den, ze medikuren zaintzapean egon den... Baina paper-sortarik ez dugu aurkitu hainbat eta hainbat kasutan. Ama askok eta askok ez dauka paper-sorta edo ezelako agiririk frogatzen duena umea erditu zuela, edo ama izan zela. Hori oso gorra da. Haurdunaldia izan, umea erditu duzula jakin, ama izan zarela ere bai, baina hori frogatzeko agiririk ez izatea, gogorra da, gero. Umea lapurtu dizutela sumoa izan zenezake, baina ez daukazu ezer hori frogatzen lagunduko dizunik.

**Zer egin?**

Zaila da. Jende asko dago desesperatuta. Eta, gainera, pilota bat bezala erabiltzen zaituzte, batetik bestera: orain, Tolosako erregistrora; hurrengo, Beasainera; hurrengo, Eibarrera... Hori gelditu egin behar da. Ez da posible.

**Ze urteren artean gertatu zen hau guztia?**

1940tik 1997ra bitartean. Ia gaur arte.

**Erakundeen aldetik, bai Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik zein Eusko Jaurlaritzaren aldetik, ze jarrera aurkitu duzue?**

Berba onak jaso ditugu eta orain sumatu dugu gauzak mugitzen hasi direla, baina mantso doa dena.

**Raxoiren gobernuak ikerketan aurrera egiteko zailtasunak jarriko dituela entzun da. Hala da?**

Nahiko nuke pentsatu gauzak bere bidetik joango direla, zailtasunak zailtasun, eta inork ez duela agindurik emango oztopoak jartzeko. Hori pentsatu nahiko nuke. Orain, Raxoik zer pentsatzen duen ez dakit. Ezin erantzun. Hari galdetzea onena.

> **"Ume bat bahitzeko gauzak ondo antolatuta egon behar ziren"**



Marian Zubia Arrasateko kalean, oraingo astean.

**Kaltetuen profilak zeintzuk dira?**

Batetik daude ama biologikoak. Kasu honetan funtzionatzeko modua hauxe zen: ama loarazi egiten zuten, erditzerako orduan, umea jaiotzen zenean hartu eta eroateko. Beste batzuetan, ama esna egon arren, umea jaiotzen zenean korrika eta presaka eroaten zuten amaren ondotik, umea garrasika hasi aurretik. Amak ez zuen umea ikusten eta adierazten zioten amari umea hilda jaio zela edo hil egin zela erditu eta berehala. Horrela, edozein ume hil erakusten zioten amari. Sarritan, izoztutako umeak erakusten zieten gurasoei; ume berdina, guraso ezberdinei. Beste batzuetan, umea malforma-



| ENEKO AZKARATE

## "Ama aurkitzeko itxaropena dut"

"Beti jakin nahi izan dut egia. Ostera, familian, beti tapatu nahi izan dute egia eta ez dut ulertu hori. Zergatik? Ez dut bekaturik egin. Zergatik tapatu ni adopzioan hartua naizela?" halaxe dio Marian Zubiak bere kasu pertsonalaz diharduenean.

Ama bilogikoa topatu eta harekin egoteko modua edukiko balu, zer esango liokeen galdetzean, zera dio: "Jakin nahiko nuke zein den bere egoera, berarekin berba egin nahiko nuke. Harremana izan nahiko nuke harekin. Badakit ez litzatekeela izango amaren eta alabaren arteko harreman ohiko bat; gehiago, lagun artekoa, baina.... Esango nioke bizimodu ona izan dudala...

Ama biologikoa topatzeko itxaropenaren gainean, zera: "Ez nuke galdu nahi".

Adopziozko gurasoak hil zirenera arte ez zion ekin ikertzeari, haiei zor zien errespetuagatik, baina egia ezagutzeko jakin minak jota. Halaxe hasi zen eta halaxe dihardu SOS Haurtxo Lapurtuak elkartean, egiaren bila, luzaroan geurean, gertuan, izan dugun ustezko amarrua, ustezko sare antolatua, azaleratzeko ahaleginean, egia jakin eta errudunak ezagutzeko.

zioekin jaio zela-eta, umea ez ikustea gomendatzen zien gurasoei…

**Hilkutxak ere erakusten zizkien gurasoei, ezta?**

Bai. Ospitaletan esaten zieten gurasoei ume jaioberri hila lurreratu behar zutela eta hilkutxak erakusten zizkien. Hilkutxa itxiak, jakina, inork ez zabaltzeko modukoak. Esan behar da ospitaleek ez zutela umeak lurreratzeko eskumenik. Hilerrietan sartzen den guztia idatzita, erregistratuta, egon behar da idatzi batean: pertsonaren izena, edo elbarritua bada, gorpuzkiaren zatia zehaztuz. Hau da, dena ondo zehaztuta eta idatzita geratzen da. Hori da ohiko funtzionamendu egokia. Erregistratuta ez dagoena, ez da sartu hilerrian.

**Eta adopziozko amak?**

Jendeak uste du adopziozko gurasoek bazekitela ume lapurtua eroaten zutela etxera, baina hori ez da hala. Gehienek ordaintzen zuten tramitea egitearren. Esaten zioten umezurtzak zirela, edo ama biologikoek euren borondatez utzitako umea zela, arazo ekonomikoak zituztelako edo beste arrazoiren bat tarteko. Ez zieten egia esaten. Ospitaleko gastuei aurre egiteko zela esaten zieten adopziozko gurasoei. Engainaturik zituzten horiek ere.

> "Dirua da guztiaren arrazoia; horrek mugiarazi du amarru edo sare osoa"

**Ze preziotan saltzen zituzten umeak?**

Garai hartako milioi bat pezeta eta hiru milioi pezeta artean ordaintzen zituzten. Adopziozko amen artean baziren dirudunak, baina horrenbeste diru ez zutenak ere baziren eta umea epeka ordaintzeko erraztasunak ematen zituzten.

**Ume osasuntsuak eroaten zituzten?**

Bai eta, gainera, bikietan erreparatzen zuten bereziki. Kilo gehien zituen umea aukeratzen zuten.

**Debagoienean, gure eskualdean, ezagutu dira kasuak?**

Bai, horixe badirela. Gehienak dira adopzioa kanpoan, Espainian, egin dutenak. Badaude hemen bizi eta Donostiako ospitalean eduki zutenak umea eta ustez lapurtu ziotena, eta badira hemengo ospitaletan erditu zuten amen kasuak ere.

**Debagoieneko ze herritakoak dira kasu horiek?**

Ezin dut datu hori eman, inplikatutakoekin egon barik. Ia herri guztietan daude halako kasuak.

**Zure kasuan, Marian: zergatik erabaki zenuen ikertzea?**

Ni enteratu nintzen ume adoptatua nintzela 11 urte nituenean, lagun baten bidez. Urte haietan kontu hauen gainean berba egitea tabua zen. Ez dut ulertzen zergatik zen hala, ze umerik eduki ez izana ez da bekatua eta ume adoptatua edukitzea eta norberak adoptatua dela jakitea ere ez da bekatua. Saiatu nintzen gurasoei informazioa ateraraztren, baina aitak botatzen zidan begiradarekin, hobe nuen gaia ahaztea.

**Zelakoa zen zure adopziozko gurasoekiko harremana kontu honen gainean?**

Ama gaixo eduki dut 9 urte nituenetik. Jakinminaren eta zure adopziozko gurasoei zor diezun errespetuaren eta leialtasunaren arteko borroka etengabean bizi izan naiz. Nire aita duela 7 urte hi zen eta apur bat lehenago hasi nintzen etxean gauzak begiratzen: ea bazegoen kontratu paperik, adopziozkorik, ordainketarik, kontratu pribaturik… Ez nuen ezer aurkitu eta aita hil zenean Diputaziora jo nuen. Paper bat idatzi nuen esanez ume adoptatua nintzela eta erantzun zidaten Fraisorokoa izango ote nintzen. Izan ere, adopzio legal guztien gaineko informazioa Diputazioan dago. Hiru astera, joan nintzen Diputaziora eta esan zidaten ez nintzela adoptatua, paper guztiak begiratu zituztela eta ez nintzela ageri. Ez Fraisoron eta ez inon, ez nintzen ageri. Nire jaiotze data eta agiria begiratu eta esan zidaten nire ama adopziozkoarena nintzela.

> "Jende asko dago desesperatuta, pilota bat bezala erabiltzen zaituzte"

**Horren aurrean?**

Esan nien ezinezkoa zela, nire ama adopziozkoa ama biologiko moduan agertzea, besteak beste eta batez ere, esterila zelako. Eta, bestalde, 45 urte zituelako adopzioan hartu nindutenean. Halaxe geratu zen kontua.

**Ondoren?**

Nire ama adopziozkoaren ahizparengana jo nuen, nire izebarengana. Ziurtatu zidan ama esterila zela eta esan zidan nire gurasoak, adopziozkoak, hiru egunez herritik joan zirela eta bueltan ume batekin etorri zirela. 1972ko irailaren 29a zen. Izebak esaten zidan nire gurasoak Madrileko Escorialera joan zirela eta han emakume bat hurbildu eta umea eman ziela, adoptatu egin nindutela, alegia. Eta emakumea, gero, desagertu egin zela. Baina ni ez nintzen Madrilen jaiotako moduan agertzen, baizik eta Tolosan jaiotako moduan. Fraisorokoa ez nintzen. Madrilekoa nintzela esaten zidaten, baina nik nituen dokumentuetan ageri zen Tolosako La Asuncion ospitalean jaioa nintzela. 1972ko irailaren 29an. Bestetik, erregistroan, jaiotze agiriaren bila joan nintzenean, esan zidaten, ginekologoak ziurtatzen duela ospitalean erditu ninduen emakumea nire ama adopziozkoa dela. Hori ezinezkoa zen. Kontraesan handiak! Orduan, erregistrokoak jarri ziren harremanetan ospitalearekin eta han ziurtatu zuten ni han ez nintzela jaio. Bestalde, nire familiakoek esan zidaten Madrileko Escorialekoa asmakizuna zela, benetako egia tapatu nahi zutelako.

**Zein da zure susmoa, zein zure egia?**

Tolosako Asuncion ospitalean jaioa naizela, baina nire jaiotze data eta agiria faltsuak direla. 1972ko irail amaiera inguruan ekarriko ninduten Elgoibarrera, baina jaio, berez, astebete lehenago-edo jaio nintzela. Bestalde, niri esaten zidaten jaio berritan, ume txikia nintzela. Hori izan daiteke, edo bikia nintzelako edo goiztiarra nintzelako.


TORRA+PORTELLA
Zure buruan dena antolatua dago. Marrak, koloreak, moduluak, angeluak... Gauza bakoitzak funtzio bat bete behar du, alderdi estetikoa baztertu gabe. Horregatik Kibuc-en altzari-proposamen ugari aurkituko dituzu, egia bihurtzeko zure ideiak eta zure mundua.
Zuk egiten duzu Kibuc.
ZU zara arrazoia
zuk egiten duzu kibuc
gutxieneko prezioa bermatuta
910 €
(75.83 x12 hilabete interesik gabe)
HADID
3D proiektuak doan
KIBUC Gure Ametsa
Landeta Hiribidea 1, Azpeitia Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com
www.kibuc.com
Proiektu eta eraberritze integralak
KIBUC
altzariak eta osagarriak
Azkenean etxean
Nuit programa. Oheak (150x190ko koltxoiarentzat), oheburukoak eta gau-mahaitxoek osatutako multzoa. Akaberak: haritza errauts kolorean eta zerbinoa. Neurria: 320 zm.
Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. BEZ barne. * Finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

ANTZUOLA



Antzuolako eta Urretxuko herritarrak Antzuola–Urretxu arteko azken mugarria ipini ondoren. | JOSE MARI ITURBE

# Ipini dituzte Antzuolako udalerriko mugarri guztiak

- Azkenak urtarrilean ipini zituzten Urretxuko mugarri-puntuetan
- Bost urteko ibilbidea egin dute "erreferentzia diren harriak" ipintzeko

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

2007an Antzuolako Landarraitz eta Arrola mendiak gurutzatzen dituen gasbideko bikoizte lanetan udalerriko hainbat mugarri kendu zituzten. Kezkatuta zeuden hainbat baserritar Antzuolako Udalera joan ziren eta Aralarko zinegotzi Jose Mari Iturberekin egin zuten berba. Bada, Udalak mugarrien inbentarioa eta lan horien jarraipena egitea erabaki zuen.

Bost urteko ibilbidearen ondoren, Antzuolako 63 mugarri-puntuak ipini dituzte. "Gustura gaude egin dugun lanarekin. Lehen mugarria ipini genuenetik bide luzea egin dugu. Urtarrilean ipini genituen azken mugarriak Urretxun", esan digu Jose Mari Iturbek.

## Askotariko mugarriak

Antzuolako udalerria osatzen duten lurrek 22,3 kilometroko perimetroa dute eta 63 mugarri daude: 29 Bergararekin mugan, 13 Oñatirekin, 13 Legazpirekin, 11 Urretxurekin, bi Zumarragarekin eta bi Azkoitirekin. Horietako batzuk bi edo hiru herrien arteko mugan daude.

Batzuetan mugarri-puntuetan zeuden, baina beste batzuk berriak egin behar izan dituzte. "1939-1942 urte artean Gipuzkoako herrien arteko mugarriei buruzko azterketa topografikoa egin zuen Foru Aldundiak. Txosten hori oinarri hartuta Antzuolako mugarrien egoera ikusi genuen. 63 mugarri -puntuetako zortzitan mugarriak falta ziren eta beste batzuetan apurtuta zeuden. Berriak egin eta zeuden batzuk konpondu egin ditugu", esan digu Iturbek.

Antzuolak dituen mugarriak mota askotarikoak dira: herri -izena daukatenak (Anzuola, Vergara...), zenbakiarekin, harri irregularrekoak (Arrolakoa), edo harri naturalekoak (Burdinkutza eta Osinbeltzen). Dena den, mugarri guztiak harri landuak dira, eta gehienek 15x28x100 zentimetroko neurria dute.

Iturberen arabera, Antzuolan jarritako lehen mugarriak 1768 ingurukoak izan daitezke: "Gipuzkoan, 1889an jarri ziren mugarri gehienak".

## Mugarriak erreferentzia

Mugarriak udalerri baten lursailak markatzeko erabiltzen dira. "Mugarriak, harri zatiak alegia, erreferentziak dira. Herriaren mugak orokorrean elementu orografikoek zehazten dituzte: errekak, errepideak, sakonerak.. Mugarriak harriak dira, baina bi herriren artean liskarrak daudenean, erreferentzia moduan erabiltzen dira. Oso inportanteak dira", esan digu Iturbek.

Antzuolako herrigunetik gertu hainbat mugarri ikus daitezke. "Deskargan, errepide alboan daude batzuk. Beste bat dago Bergaratik Antzuolarako bidean. Autobidearen lanak tarteko, lekuz kanpo dago, bide bazterrean", azpimarratu du Iturbek.

## Informazioa Aldundira

Antzuolako mugarriak identifikatzeko orduan, Foru Aldundiak 1942. urtean egindako aktak hartu dituzte kontuan. Orain, mugarriak ipintzeko lanetan egon direnek emandako informazioaren beste txosten bat egingo dute. Mugarri bakoitzaren GPS datuak, ezaugarriak eta bestelako informazioa jaso dute. "Informazio guztia *www.gipuzkoa.net*-en dago. Atari horretatik jaits daiteke mugarrien informazioa: GPSko datuak, ezaugarriak eta argazkiak batu dituzte. Urtarrilean ipini ditugun azken mugarrien gaineko informazioa bidali diegu, eta laster batean ipiniko dute eskuragarri", esan du Iturbek.

Bost urteko bidea bukatuta, eskerrak eman gura dizkie mugarrian ipintzeko lanetan parte hartu duten herritar guztiei: "Eskerrik asko, guztiei".

### MUGARRIAK

| NOREKIN | ZENBAT |
|---|---|
| Zumarragarekin | 2 |
| Azkotirekin | 2 |
| Bergararekin | 29 |
| Urretxurekin | 11 |
| Legazpirekin | 13 |
| Oñatirekin | 13 |



Mugarrietako bat. | JOSE MARI ITURBE

---

**JOSE MARI ITURBE**
HERRITARRA

## "Mugarriek markatzen dituzte udalerriaren mugak"

Orain dela bost urte hasitako bidea urtarrilean bukatu zuten hainbat lagunek, tartean Jose Mari Iturbek. Antzuolako udalerriko mugarri guztiak ipini dituzte.

**Zergatik dira horren garrantzitsuak mugarriak?**

Mugarriak dira udalerri bateko mugak markatzen dituzten erreferentziak. Harrizko erreferentzia horiek markatzen dituzte lursailak. GPSaren erreferentziak eduki arren, mugarriak dira garrantzitsuenak. Baserritarrendako eta lursailen jabeendako oso inportantea da mugak ondo zehaztea. Arazo asko egon dira lursail baten mugak zehazteko orduan. Mugarriak ondo ipinita badaude, udalerria ondo



J. M. ITURBE

zehatuta dago. Gainera, mugarriak ipintzeko egindako lanak aukera eman digu Antzuolako bide-bazter guztiak hobeto ezagutzeko.

**Mugarriak ipintzeko orduan arazorik izan duzue?**

Urtarrilean ipini genituen Urretxurekin mugan dauden mugarriak, eta haietako batekin arazoa izan genuen. Mugarri -puntuan ez zegoen harririk, eta non ipini adosteko eztabaida izan genuen Urretxukoekin. Baina 1942ko aktak aintzat hartuta konpondu genuen.

---

DATUA

**63**

MUGARRI

**Horiek dira Antzuolako udalerriak dituen mugarriak. Zortzi mugarri-puntutan harria falta zen eta beste batzuetan apurtuta zegoen. Bost urteko lana egin dute guztiak ipintzeko.**

# Herriko azoka berritua: herriak eta herriarendako egindakoa

▸ Kontsumo ohitura aldaketaren beharra planteatu dute

▸ Azoka aisialdiarekin uztartzea ere bada aztergai



Herritarrak eta baserritarrak Seber Altubeko azokan erosten, joan den zapatuan; argazkia

UBANE MADERA | ARRASATE

Elikadura, produktu eraldatuak, aisialdi esparrua eta kultura ekintzak izango dituen azoka plaza planteatu dute.

Xehetasunetan sartuta, oinarrizko elikadura produktuen artean, baserrikoak, eta harakin, arraindun, kontserba eta bestelako produktuak izan ditzakela uste dute.

Produktu eraldatuen artean, berriz, bigarren eskukoak, birziklapena lantzen dutenak, artisautzakoak... halakoetan pentsatu dute.

Aisialdi esparruari dagokionez, gurasoek umeekin jolasteko leku bat, andre-gizonek musean egiteko, xakean jarduteko... antzeko zerbait darabilte buruan.

Eta kultura ekintzei begiratuta, azoka plazan kultura ikuskizunak, tailerrak eta antzekoak lantzeko plazatxoa bideratzea ere egoki ikusten dute.

**Bizi-kalitatea hobetzeko**

Bada, lau ezaugarriok abiapuntu hartuta, Arrasateko oraingo azoka plazari buelta eman eta hura hobetu guran, orokorrean herritarren eta bereziki herriko eragileen atea jo du Bagara Herrigintza elkarteak, Arrasateko Udalarekin bat eginda. Helburua da guztien artean Arrasateko oraingo azoka birpentsatzea. "Bagaran kontsumoaren humanizazioaren inguruko sustapen taldean landu zen gaia, eta Udalari egin zitzaion planteamendua. Bien artean bidea egin eta proposatu zen parte-hartze prozesua bideratzea, etorkizunean zer egin daitekeen modu irekian jakiteko", adierazi du Arkaitz Biainek, Bagara Herrigintza elkarteko kideak.

"Herritarron bizi-kalitatean eragingo duen azoka-gunea eraiki nahi dugu. Logika merkantilista hutsek asetzen ez dituzten premiei erantzungo dien gunea: herriko merkataritza indartzea, elikadura osasuntsua bermatzea, hurbileko nekazaritza sustatzea, biztanleon arteko sare eta harremanak indartzea, kontsumo ohitura iraunkorrei eta solidarioei bide ematea, gure umeen zaintza eta aisialdi egokia eskaintzea. (...) Hori mahai gainean jarri dugu eztabaidatzeko, eta horren emaitza izango da errealitatean gauzatzeko planteatuko dena. Gero ikusiko da ea bideragarria den", adierazi dute Udal Gobernuko ordezkariek.

**Otsailaren 25a**

Horixe da, justu, orain egiten dihardutena: herritarren eta herriko eragileen iritziak, ideiak eta ekarpenak eskuratzeko prozesua landu.

Ildo horretan, urte hasieratik hiru batzar egin dituzte: urtarrilaren 24an eta 25ean herriko hainbat elkarte eta eragilerekin elkartu ziren "hasierako inpresioak batzeko". Otsailaren 9an aurreko bi batzarren konklusioekin bateratze lana egin zuten.

Eta dagoeneko egin dute hurrengo hitzordua, bihar zortzi, otsailaren 25ean. Parte-hartze saio irekia egingo dute orduan, Kulturateko areto nagusian, 10:00etan hasita. Interesa daukan herritar guztiek izango dituzte ateak zabalik. "Saio horretan azokaren aipatutako lau ezaugarriak lantzeko taldeak eratzea da helburua, eta gero talde bakoitzak zehaztuko du zela landu dagokion esparrua".

**Ekaina-uztaila**

Lau hilabeteko epea izango dute lantaldeek ekarpenak eta bestelakoak batu eta komunean ipintzeko.

Parte-hartze prozesuaren bultzatzaileen asmoa da ekaina-uztaila aldera dinamika bukatu eta lantaldeen konklusioak batu. "Idealena izango litzateke bukaeran planteamendu jakina izatea: funtzionalitate aldetik zer izan daitekeen azoka, eta akaso diseinu fisiko batera ere heldu ahal izango litzateke".

Bestela esanda, prozesuaren amaieran Arrasateko azoka biziberritzeko ideiak esku artean izatea da helburua. Eta gero, pausoak eman, hori guztia gauzatu ahal izateko, beti ere, bideragarria baldin bada.

**Adibide praktikoa, Seberren**

Beraz, arrasatearrek zelako azoka gura duten ikusteko dago oraindik.

Hala ere, etorkizuneko azoka plaza zelakoa izan daitekeen joan den zapatuan, otsailaren 11n ikusi zen praktikan, Seber Altube plazan.

Bagarak eta Udalak bideratuta, hileroko baserritarren azokari izaera indartsuago eta biziagoa eman zioten herriko talde gehiago gonbidatuz.

Hantxe izan ziren, esaterako, produktu eraldatuak (bigarren eskukoak, birziklatutakoak...), Harreman eta Emaus elkarteen eskutik; eskuz egindakoak, herriko diseinugileen eskutik; jolaserako esparrua, Txatxilipurdi elkartekoek landuta eta kultura esparrua, zuzeneko musika saioarekin Arrasateko gaztetxearen eta La Jodedera musika taldearekin.

**DATUA**

**88**

SALTOKI

17 saltoki finko daude, 25 berezi, baserritarrendako 41 leku daude, irabazi asmo bakoendako lau eta bat esne freskoa saltzeko.

**DATUA**

**44**

HUTSIK

44 daude hutsik: 11 finko, lau berezi, baserritarrenak 27, esne freskoa saltzeko bat eta irabazi asmo bakoendako beste bat.

arbolapeta
arrasate
beinke

RAKEL PEREZ DE ARENATZA | BASERRITARRA

## "Azoka onak erosleak erakarriko lituzke, eta erosleek saltzaile gehiago"

Merkatu plazan saltzaile dabilen baserritarra da Rakel Perez de Arenatza (Arrasate, 1960). Produktu ekologikoak lantzen ditu Meatzerrekako Askasibar baserrian.



U.M.

**Azoka biziberritu beharko balitz, nahiko baserritar bada herrian?**

Batek bestea ekartzen du. Badago bai, baina batzuk ez dira animatzen; hala ere, azoka ona eginez gero erosle gehiago joango lirateke, eta horrek saltzaile gehiago erakarriko luke, eta alderantziz. Azokaren estatus baxua igarri egiten da.

**Eta produktu aldetik?**

Ohitu beharko genuke sasoiko produktuak kontsumitzen.

**Zentzu horretan, erosle aldetik igartzen da aldaketarik?**

Bada talde bat kontsumoarekiko kezka duena eta produktu ekologikoak eskatzen dituena. Hori handitu egin da. 30 urtetik aurrerakoak, adibidez, umeak izan ostean etortzen hasten dira. Baserritar gehiago ere hasi da produktu ekologikoak lantzen.

**Errentagarria da azokara joatea?**

Bizi izateko moduan ateratzen dugu. Dena den, jendeak gura ditu asteburuak libre, hori baserrian ez dago. Baserrian beste erritmo batean bizi gara, ez gizartearen erritmora, baizik eta lurraren erritmora. Bizi-kalitate hobea dugu.

**Baserriko produktu ekologikoak supermerkatukoak baino garestiagoak dira?**

Produkzio handietakoak, adibidez, merkeagoak dira. Baina arrautzak, adibidez, garestiagoak.



n, sasoiko baserriko produktuen saltokiak ageri dira . | JOSETXO ARANTZABAL

Azoka zelakoa izan daitekeen ikusteaz gainera, ikusi zen, baita ere, herritarrek ere gurako zuketela azoka indartsua herrian, partaidetza esanguratsua izan zen-eta, Seberren.

**Herriarekin, herriarendako**

Bestalde, azoka birpentsatzeko abiarazi duten prozesua azoka biziberritze hutsetik haratago doa.

Lantzen diharduten parte-hartze dinamika horren garrantzia azpimarratu dute Udal Gobernuko ordezkariek: "Apustu potoloa da. Heziketa prozesua ere bada, herritar denondako. Gauzak beste modu batean planteatzeko ikasketa bat. Orain arte ohitu gara bakoitza bere eremuan mugitzen, bakoitza bere lanean, bere etxean, bere munduan sartuta gaude eta ez gara hortik irteten. ... hasiera bat da herrian funtzionamendu desberdina planteatzeko. Orain arte ez da lortu herritarren inplikazioa eta hori da aldatu nahi duguna, ez bakarrik azokara begira, baita herrira begira ere. Azokaren kasuan, adibidez, baserritar bat, gaztetxeko ordezkari bat, ASPACEko beste bat eta guraso bat mahai baten bueltan elkarrekin jartzea... dinamika hori berori oso interesgarria da. Ez dakit herri honetan zenbat aldiz egin den halako zerbait. Era berean, parte-hartze prozesuan inplikatuz gero, zure egiten dituzu proiektuak eta gero-ko inplikazioa ere handiagoa da. Azokaren kasuan, ekimen honetan orain inplikatzeak, etorkizunean ere inplikatzea ekar dezakeela uste dugu ".

Eta inplikazio handia lortzeko ahalegina egin behar dute. Izan ere, azoka birpentsatzeko parte-hartze prozesura elkarte, eragile eta herritarrak erakartzeaz gainera, udal teknikariak, arduradun politiko-instituzionalak eta alderdi politikoak ere erakarri gura dituzte Bagarak eta Udal Gobernuko ordezkariek.

## ERAGILEEN IRITZIA

### Jesus Mari Elkoro
Ibai Arte

"Guk beti bultzatu dugu eredu hori: herri barruan dagoena, denda txikiekin funtzionatzen duena eta bertako produktuduna. Horrek jendea erakarriko luke gainontzeko dendetara. Aliatu indartsua litzateke azoka moderno eta aktiboa izatea".

### Itsaso Pagoaga
Txatxilipurdi

"Garrantzitsua iruditzen zaigu azoka birpentsatu eta biziberritzeko parte-hartze prozesuan egotea. Aukera daukagu, kasu honetan, haur eta gurasoen beharrak mahai gainean jarri eta horiei eta gainontzeko herritarren kezka eta beharrei erantzun komuna bilatzeko".

### Gorka Martinez
Harreman GKE

"Beharrezkoa ikusten dugu azoka eredu aktibo hau; kontsumo arduratsuago baten aldekoa baita, eta herritarrak produktu bakoitzaren atzetik dagoen istorioaz ohartarazi beharko ditugu, baita bertako zein kanpoko ekoizleen egoeraz ere".

### Begoña Caballero
Emaus

"Kontsumo arduratsua erraztuko duen azoka defendatzen dugu. Norberaren beharra asetze hutsetik haratago, kontsumitutako produktua posible egiten duten prozesu sozial, ekonomiko eta ingurumenekoetan aktiboki parte hartzea bilatzen duen kontsumo arduratsua".



Beatriz Zulueta zentro medikuaren sarreran.

### Beatriz Zulueta
Nutrizioan aditua

## "Nutrizio hezkuntza da pertsona osasuntsua izateko oinarria"

Beatriz Zulueta nutrizioan aditua da, giza nutrizio eta dietetikan diplomadun eta masterduna Nafarroako Unibertsitatean.

**Helduen nutrizioa da lantzen duzuna?**

Helduena eta umeena. Ikasketak bukatu eta Vall d' Hebron ospitalean lau urtean egon nintzen pertsona nagusiekin. Eta gero, Gurutzetako ospitalean beste hiru urte eman nituen umeekin nutrizioa lantzen.

**Umeen kasuan, ze adinetik aurrera hasten zarete?**

3 urtetik aurrera. 3 urtera arte pediatrarekin lantzen dute. 3 urtekoekin gurasoekin lantzen dugu kontua, jakina. 7 urtetik aurrera, berriz, ume eta gurasoekin, biekin batera. Eta 11 urtetik aurrera, umeekin lan egiten dugu.

**Ze nutrizio arazo lantzen dira?**

Orokorrean, nutrizio hezkuntza da oinarria. Hortik aurrera, loditasuna, zeliakoak, alergikoak… patologia horiek guztiak elikaduraren bitartez lantzeko bidea dago. Eta arazo handiagoa duten umeekin ere lan egindakoa naiz: arazo neurologikoak dituztenak, zundarekin jaten dutenak…

**Eta nagusien kasuan?**

Batez ere, loditasun kontuengatik etortzen dira. Baina nabarmena da elikadurarekiko eta osasunarekiko kezka asko handitu dela helduon artean. Beraz, nutrizio hezkuntza lantzen dugu. Horrez gainera, triglizeridoak, kolesterola, azido urikoa, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, bi motako diabetea…horien prebentzio zein tratamendua ere lantzen ditugu.

**Posible da halako gaixotasunei nutrizioa zainduta aurre egitea?**

Bai. Medikamentuez gainera, bizimodua aldatzea ere komenigarria izaten da.

**Zelako dietak izaten dira?**

Eguneroko bizitzan integratu ahal izateko dietak, apurka ohiturak aldatzea da-eta helburua. Ez da lau hilabeteko dieta egin eta gero ahaztu. Hortaz, datorren pertsonari egiten zaio balorazio antropometrikoa (pisua, altuera…) neurtzen zaio gantza, eta bere elikadura aztertzen da. Hortik abiatuta dieta ezartzen da, bere bizimodura moldatzen den dieta. Eta gero, kontrol zorrotzak egiten ditugu, hasieran astean behinekoak.

## Azokaren abiapuntua: lau ezaugarri

**ELIKADURA**

Oinarrizko elikadura produktudun azoka izan daitekeela uste dute; baserritarrekin, eta harakin, arraindun, kontserba eta bestelako produktuekin osatuta.

**PRODUKTU ERALDATUAK**

Arrasaten eta ibarrean lan egiten duten elkarteen ekoizpenak ezagutu eta kontuan izan, artisauen lana balioan jarriz eta bigarren eskuko produktuei aukerak zabalduz. Hori ere azokan txertatu daitekeela uste dute.

**AISIALDIRAKO ETA JOLASERAKO GUNEA**

Azoka aisialdiarekin uztartzea ere posible eta egoki ikusten dute, azokari izaera multifuntzionala emate aldera. Azoka jendearen/herritarren elkargune izan dadin.

**PLAZA**

Kultura ikuskizunak, lantegiak eta, oro har, sormenarekin lotutako ekimenak egin ahal izateko esparrua izango zukeen azoka planteatu dute.

## LANERAKO EGUTEGIA

**Urtarrilaren 24a eta 25a**

Herriko eragileekin batzarrak.

**Otsailaren 9a:**

Eragileekin egindako batzarretako emaitzen bateratze prozesua.

**Otsailaren 11:**

Seber Altubeko baserritarren azokan etorkizuneko azoka izan daitekeenaren irudikapena.

**Otsailaren 25a:**

Parte-hartze saio irekia, Kulturateko areto nagusian, 10:00etan

**Ekaina-uztaila**

Parte-hartzearen amaiera. Emaitzaren bideragarritasuna aztertu.



Beatriz Zulueta nutrizio aditua.

Consultorio Ginecológico Mirамón
edersalud
ZENTRO MEDIKOA
Nafarroa etorbidea 4, Arrasate ■ Tel.: 943 79 20 18
www.edersalud.com

# Mozorro, karroza zein sardina, giro ona da ziurra

Bihar 600 lagun baino gehiago espero dira Aratusteetako herri bazkarian

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Udalak gaur hasi eta martitzenera arteko egitaraua prestatu du Aratusteetarako. Egun handiak, baina, biharkoa eta martitzenekoa izango dira. Biharko herri bazkarian 600 lagun baino gehiago espero dira. Mozorroez gain karrozak ere izango dira. Iñaki Gurrutxaga *Harristi* jai batzordeko kideak honela aurreratu digu: "Gaztetxean deialdi berezia egin zen, eta, gainera, beste lokal batzuetan karrozak egiten aritu direla ere entzun dut". Sorpresak izango direla ziurtatu du.

Tabernak ere mozorrotzera animatuko direla uste du *Harristi*-k: "Iaz taberna batzuk sekulako lana egin zuten. Iazko irabazleek galdetu ziguten ea bigarren aldiz jarraian irabaz daitekeen. Erantzun diegu onenak badira berriro irabaz dezaketela. Izan ere, garbi ikusten da nork egiten duen lana eta nork ez, baina garrantzitsuena guztiok parte hartzea da, orokorrean".


Alves, Sanzberro eta Altzelai atzo SUDCen egoitzan, sardinarekin. | J. BEREZIARTUA

**Sardina ere, erretzeko gertu**

Aurten hirugarren urtez egin dute sardina SUDC elkartekoek. Hainbat urtetan Crisanto Margusinok egin izan zuen sardina eta hura hil ostean lekukoa hartzeko elkartu ziren SUDCeko Andoni Altzelai, Jose Luis Albes eta Mikel Sanzberro. Hiru astez aritu dira lanean, egunero: "Ez da lan zaila baina teknika aldetik onak ez garenez orduak eskatzen ditu. Egurrez eta periodikoz egindakoa da. Begietan linterna txiki batzuk sartu dizkiogu, gauean ikusgarriagoa izan dadin". 12 lagunen artean eramango dute, Herriko Plazan erre arte.

### EGITARAUA

**ZAPATUA, HILAK 18**

**12:00** Pregoia Biteri plazan, kalejira eta sari banaketa.

**14:30** Herri bazkaria Uarkape pilotalekuan.

**19:30** Dantzaldia Herriko Plazan Haitzama taldearekin.

**DOMEKA, HILAK 19**

**19:30** Ados taldearen *Wilt: panpina puzgarriaren hilketa* antzezlana Amaia antzokian.

**MARTITZENA, HILAK 21**

**16:30** Mozorro desfilea Herriko Plazan.

**17:00** Potxin eta Patxin pailazoen *Ohitura onak* antzezlana, Amaia antzokian.

**17:30** Samasiku txarangaren animazioa Herriko Plazan.

**19:00** Arrasate Musikaleko banda eta balletaren kalejira.

**20:00/22:30** Lisker taldearen eskutik dantzaldia plazan.

**23:30** Sardinaren hileta. Desfilea eta sardinaren erretzea Herriko Plazan.

### ESANAK

**"Garrantzitsuena guztiok parte hartzea da, orokorrean"**

'HARRISTI' | JAI BATZORDEA

**"Sardina egitea ez da lan zaila, baina orduak eskatzen ditu"**

ANDONI ALTZELAI | SUDC ELKARTEA

# 'Euskaraz bizi nahi dut' kanpainaren bideoa aurkeztu dute: "Oso polita eta jendetsua", Kontseiluaren ustez

**J.B.** | ARRASATE

2011ko abenduaren 3an eta 4an Euskararen Kontseiluak eta Arrasateko Euskalgintzak deituta bideoa grabatu zuten *Euskaraz bizi nahi dut* kanpainaren barruan. Azken emaitza Kulturaten aurkeztu zuten martitzenean eta Maite Inda Euskararen Kontseiluko herrietako arduradunari asko gustatu zitzaion. Honela azaldu du asteon Arrasate Irratian: "Oso bideo polita egin duzue Arrasaten. Txukuna eta jendetsua da eta herriaren ordezkaritza zabala islatzen du".

Arrasateko euskalgintza arloko eragile ezberdinek egin dute bideoa. Izan ere, euskalgintza da kontseiluaren bihotza, Indaren ustez: "Kontseilua euskalgintzaren bilgunea da. Gu euskalgintza gara, ez kanpoko agente bat. Kanpaina berri hau herri aktibazio baterako deia da, euskalgintzatik haratago joateko sortua". Ideia hori da, hain justu, asteon aurkeztutako bideoan islatzen dena.


Grabazio erraldoia egin zen abenduaren 3an; tartean, Herriko Plazan. | JULIO CALLEJA

**Pentsamendu aldaketa eragin**

Sakoneko pentsamendu aldaketa eragitea gura du kontseiluak kanpainarekin: "Duela hamar arte alkohola eta kotxearen arteko erlazioa eta egungoa; halako aldaketa bat eragin gura dugu euskararekin", dio Indak. Azkenik, euskara normalizatzeko "ezinbestekoa" ikusten du gizartearen gehiengoak euskaraz bizi nahi duela pentsatzea.

### NIRE USTEZ

**HORACIO ARGARATE**



## San Valentin

Otsailaren 14an San Valentin eguna ospatzen dugu. Gurean, urte asko ez direla, Elorrioko Valentin bakarrik ezagutzen genuen. Baina gutako gehienok Ameriketako Estatu Batuak inoiz zapaldu ez ditugun arren, amerikarrak telebistaren leihoetatik egunero gure etxeetara datozkigu, eta eremu haietan beste Valentin bat handikiro ospatzen dute: maiteminduen zaindaria omen dena.

Bizitzak ospakizuna eskatzen du. Gure barneko sentipenak nolabait azaldu beharrean aurkitzen gara. Pentsamendu hutsa bagina, egutegiko orriak pasa eta pasa eta aurrera egingo genuke heriotza heldu arte. Baina sentimenduz betetako zagia garenez, zagiari ardoa dagokion modura, guk ere, bizitza eta bizitakoak, busti gabe ezin dugu pasa. Batzuetan xanpaiaren berotasun alaian; besteetan, malko tristeen jarioan.

Maitearen mina, min gozoa eta barnekoia dugu. Maitasunaren mina arindu beharrean, gehitzeko nahian gure barnetik maitasun sentimenduak plazaratzen ditugunean, bizi pozaren iturriak galgaran botatzen du. Gero, kasuak kasu, maitasuna ederra bezain dramatikoa gertatzen da; bizitzaren izatea, alegia. Eskerrak, sentipenak egutegiaren menpean ez daudela eta horiek adierazteko edozein eguna aukera dugula. Maite duten guztiei: Zorionak!

**"Maitearen mina, min gozoa eta barnekoia dugu"**

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

# Aratusteak girotuko ditu Arrasate Musikalek

Kontzertua eskainiko du gaur Amaia antzokian eta martitzenean, berriz, kalejira egingo du

IRATI GOITIA | ARRASATE
Aratusteak ezin dira ospatu mozorro barik, ezta musikarik gabe ere. Hala, urteroko ohiturari jarraituz, Inauteriak alaituko ditu Arrasate Musikalek.

**Kontzertua gaur 18:30ean**
Gaur kontzertua eskainiko dute Amaia Udal Antzokian. Bost talde instrumentalek hartuko dute parte emanaldian: hari-talde txiki batek, bi talde mistok, Arrasate Musikaleko banda txikiak eta orkestra gazteak.

Errepertorio zabala eskainiko dute; tartean, euskal abestiak ere joko dituzte, hala nola Ken7ren *Ilargia* eta Itoitzen *Lau teilatu*. Edorta Aiastui Arraste Musikaleko kideak adierazi digu oso kontzertu animatua izango dela eta Aratusteei ongietorria emateko giro bikaina sortuko dutela. Zehaztu digu ikusgarria ere izango dela, musikari guztiak mozorrotuta joango dira-eta. Horrenbestez, herritar guztiak animatu nahi izan ditu kontzertura; sarrera debalde da.


Iaz Arrasate Musikaleko banda nagusiak eginiko kalejira. | EDORTA AIASTUI

**Kalejira martitzenean**
Arrasate Musikaleko banda nagusiak eta baletak, bestalde, kalejira egingo dute aratuste egunean. Hala, musika eta dantza uztartuko dituzte. 19:00etan irtengo dira Arbolapetatik eta herriko kaleetan barrena ibiliko dira giroa alaitzen. Noski, mozorroa soinean dutela irtengo dira. Kasu honetan, Disneyko pertsonaiez jantziko dira eta filmetako soinu -bandak joko dituzte, besteak beste.

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Portaboleiros-Sonografos | 6-11 |
| Aldatz-At. Betrayer | 2-4 |
| Lasagabaster-Iluntz | 4-4 |
| Fidel-Aston Birra | 7-1 |
| Iriztu-Iluna | 8-1 |
| Dublin-Ekaitz | 12-3 |
| Abokajarro-Dribling | 4-5 |
| Fidel-Iriztu | 2-5 |
| Iluna-Iluntz | 0-3 |
| Sonografos-Abokajarro | 3-7 |
| Lasagabaster-McAwen | 4-5 |
| Ekaitz-Portaboleiros | 3-6 |
| Dribling-Aston Birra | 12-7 |
| Dublin-Aldatz | 1-1 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Dribling | 25 | 10 |
| 2 | McAwen | 24 | 11 |
| 3 | Iriztu | 22 | 10 |
| 4 | Dublin | 22 | 11 |
| 5 | Sonografos | 21 | 10 |
| 6 | Abokajarro | 21 | 10 |
| 7 | Aldatz | 20 | 10 |
| 8 | AT Betrayer | 19 | 11 |
| 9 | Lasagabaster | 14 | 11 |
| 10 | Fidel&Discipulos | 12 | 10 |
| 11 | Iluntz | 9 | 10 |
| 12 | Iluna | 9 | 10 |
| 13 | Ekaitz | 4 | 10 |
| 14 | Aston Birra | 3 | 10 |
| 15 | Portaboleiros 2.0 | 0 | 10 |

OHARRA:
Oraingo asteburuan ez da jardunaldirik egongo, aratusteak direla-eta.

Mariasun Pagoaga | Aktorea

# "Sari guztiek dute garrantzia, baina antzezle gisa jasotakoa berezia da"

I.G. | ARRASATE
*80 egunean* filmak beste sari bat jaso du. Zehazki, Tolosako (Frantzia) gay eta lesbianen film jaialdian publikoaren saria. Bada, dagoeneko 29 dira lortu dituzten aitorpenak. Mariasun Pagoaga arrasatearra eta Itziar Aizpuru filmeko protagonistak hantxe izan dira.


Mariasun Pagoaga. | GOIENA

**Zer moduz jaialdian?**
Oso ondo, polita izan da. Filma aurkeztera joan ginen Itziar eta biok. Hala, azalpenak eman genituen pelikula bota aurretik, eta ondoren, galdera-erantzunak izan ziren. Galdera asko egin zizkiguten; parte-hartze handia izan zen, eta oso harreman ona.

**Lortutako emaitzarekin ere gustura, ezta?**
Jendea oso pozik geldituz zen filmarekin eta bosteko baloraziotik 4,6ko nota lortu zuen. Beraz, pozik gu eta baita zuzendariak ere.

**Dagoeneko bi urte dira pelikula estreinatu zela, baina oraindik sariak jasotzen zabiltzate.**
Bai, harrigarria da. Dagoeneko 29 sari jaso ditu *80 egunean*-ek. Gehienbat, zuzendarien lana errekonozitu da. Kontuan izan behar da euren lehena izan dela, eta, beraz, pelikulak horrelako harrera izatea oso garrantzitsua da euren etorkizunerako; baita guretzako ere.

**Bada ilusio berezirik egin dizun errekonozimendurik?**
Denak dira garrantzitsuak, baina antzezle gisa sari bakarra jaso dugu eta hori berezia da. Hori gurea da, gainontzeko 28ak zuzendariek euren bulegoan dituzte. Nahiz eta horietan ere badugun parte txiki bat.

**Hurrengo hitzordua?**
Itziar eta biok alde guztietara joateko prest gaude. Gainera, artista gisa tratatzen gaituzte eta gustura ibiltzen gara. Baina oraindik ez dugu datarik ziurtatuta.

# Foxy Leires-en blues eta rock doinuak eguenean gaztetxean

I.G. | ARRASATE
Datorren eguenean, Kooltur ostegunak ekimenaren barruan, Foxy Leires talde bilbotarraren kontzertuaz gozatzeko aukera izango da gaztetxean.

**Blues eta rock doinuak**
Foxy Leires taldea hiru musikarik osatzen dute. Jam session batean ezagutu zuten kideek elkar eta diote euren gose "psikodelikoa" asetzeko sortu zutela proiektua.

Bertsioak egiten dituen taldea da. Hala, Jimi Hendrix, 60. hamarkadako musikari bikaina omentzeko gogotik sortu omen zen taldea. Hala ere, euren errepertorioa ez da artista horren lanera mugatzen; blues eta rock doinuko beste artista batzuen kantuak ere jotzen dituzte, adibidez, Cream, Robert Johnson, JJ Cale edo Eric Clapton.

Bilbotarrek gorputzari astindu eder bat emateko moduko musika egiten dute eta kontzertu indartsuak eskaintzen dituzte.

Maiatzean sei abestiz osatutako demo bat kaleratuko dute.

Hitzordua gaueko hamarretan da gaztetxean eta sarrera bost euro da.

# Haurrentzako antzerkia Potxin eta Patxinen eskutik Aratuste-martitzenean

I.G. | ARRASATE
Potxin eta Patxin artistek *Ohitura onak* izeneko antzezlana eskainiko dute otsailaren 21ean, Aratuste-martitzenean.

**Pil-pilean dauden gaiak**
Antzerki, mimo, eskujoko, joko eta elkarrizketen bitartez bizitzako ohitura onen berri emango diete umeei ikuskizunean bi pailazoek. Adibidez, mugikortasunaren gaia, osasuntsu jatearen garrantzia, nola birziklatu eta zirkulazio seinaleak errespetatzen erakutsiko diete. Saio dibertigarri eta dinamikoa izango da eta umeen parte-hartzea bilatuko dute artistek jolasen bitartez.

# Atletak domina ugarirekin etorri dira Anoetatik

I.G. | ARRASATE
Joan den asteburuan jokatu zen pista estaliko Euskadiko txapelketa Donostiako Anoeta estadioan, eta Arrasateko atletek domina ugari ekarri zituzten etxera.

Pertika saltoan, urrezko domina bana ekarri zuten Maialen Axpek (3,40 m), Istar Dapenak (3,85 m) eta Maialen Ruiz de Azuak (3,55 m). Alba Etanizek, berriz, zilarrezkoa eskuratu zuen modalitate berean (2,50 m). Luzera saltoan, Izar Gorroñogoitiak (4,57 m) ere zilarrezko garaikurra lortu zuen eta Maddi Garro (4,51 m) laugarren sailkatu zen. 60 metroko lasterketan brontzezko domina ekarri zuen etxera Eukene Dorronsorok (8'55"). Eta, azkenik, salto hirukoitzean urrea lortu zuen Iñigo Uribarrenek (13,67 m).











Udalak mozorrotzeko eskatu die herritarrei. | GOIENA

# Aratusteetan murgilduta dago Bergara atzo ezkero

Zapatuko herri afarian 140 lagun batuko dira, Oxirondo azokan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Eguen Gizen eguna indartu nahi izan dute Kulturako arduradunek, eta, ohitura zaharrei eutsiz, atzo hasi ziren Aratusteak Bergaran. Mozorroak eta jai giroa izango dira nagusi asteburuan. Udalak mozorrotzeko gonbidapen berezia egin die tabernari, komertzio eta, oro har, herritar guztiei.

Zapatuan, egun osoan, mozorrorik onenari eta giro hoberena jartzen duen talde edo banakakoari saria emango dio Bedelkar dendarien elkarteak: 260 euro Bergarako taberna eta jatetxeetan gastatzeko. Gauean Oxirondo azokan izango den mozorro afarirako 140 lagunek eman dute izena. Gastronomia Vasca enpresak emango du afaria: barazki krema, solomo arrautzaztatua eta hostopil tarta.

Bestalde, zapatuko pailazoen bi emanaldietarako sarrerak geratzen direla gogoratu du Udalak. Bihar pilotalekuko leihatilan bertan izango dira eskuragarri.

**Ikasleak, gaur eta martitzenean**
Gaur, egubakoitza, Aranzadi ikastola eta Mariaren Lagundiko ikasleak aterako dira kalera eta San Martin ikastetxekoek, berriz, martitzenean egingo dute kalejira, 15:00etan hasita.

## EGITARAUA

**EGUBAKOITZA**

**19:00** Xabi Solano eta Zigor Dz (Esne Beltza) gaztetxean. Antolatzailea: trikiti taldea.

**22:30** 22:30. Udal Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren kontzertua Bergarako Udal Pilotalekuan. Sarrera: 7 euro.

**ZAPATUA**

**16:30 eta 18:30** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Zazpikoloroa* emanaldia Bergarako Udal Pilotalekuan. Sarrera: 5 euro. Zapatuan bertan Udal Pilotalekuan jarriko dituzte sarrerak salgai.

**18:30** Bonba japoniarrak San Martin Agirre plazan.

Ondoren, Bergarako erraldoi, kiliki eta buruhaundien kalejira, Elgoibarko dultzaineroen laguntzarekin.

**18:30-21:30** DJ emanaldia eta mozorro jaialdia Zabalotegi aretoan.

**20:30** Sei-Gurpil txarangaren kalejira Bergarako kaleetan eta ondoren mozorro-afaria Oxirondo azokan.

**22:30** Erromeria Imuntzo eta Beloki taldearekin San Martin Agirre plazan.

**24:00** Sei-Gurpil txarangarekin kalejira San Martin plazara.

**24:00** Magnum disko-jartzailea gaztetxean Aratuste gau berezia ospatzeko.

**00:30** Erromeria Imuntzo eta Beloki taldearekin San Martin Agirre plazan.

**DOMEKA**

**17:00** Zirtaka antzerki taldearen Maddi Pirata ikuskizuna Udal Pilotalekuan. Etorri pirataz mozorrotuta! Sarrera: 3 euro.

**MARTITZENA**

**16:15-19:15** Karaokea eta DJ festa San Martin plazan.

**00:00** Musika Eskolako gazteen bandaren kalejira.

**16:30** Musika Eskolako gazteen bandaren kalejira.

**19:00** Debagoieneko X. Jardunaldi Gastronomikoak. Pintxo dastaketa Munibe Plazan.

**19:30** *Les enfants* kale animazioa San Martin plazan.

## GPSaren erabilera eta bizikleta konpontzen ikasteko ikastaroa

Bizikleta Astearen barruan, GPSaren erabileraren gaineko ikastaroa (martxoaren 13tik 15era) eta bizikleta konpontzeko oinarrizko ikastaroa (hilaren 6tik 8ra) iragarri dituzte. Eskolak Irizarren izango dira, 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea eta argibideak: 660 80 67 03 telefono zenbakian edo *basque_adventure@yahoo.com* helbidean.

## Odol ateratzea egingo dute eguaztenean anbulatorioan

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, odol ateratzea egingo dute eguaztenean, otsailaren 22an, anbulatorioan, 18:00etatik 20:30era. Herriko odol emaileei odol ateratzean parte hartzeko dei egin diete. Arduradun berrien telefonoak hauek dira: 669 10 89 77 (Antonio Herzog) eta 628 07 97 72 (Dulce Rodriguez, idazkaria).

## Erretiratuen irteera sagardotegira martxoaren 7an

San Joxepe erretiratuen elkarteak sagardotegira irteera iragarri du martxoaren 7rako. Goizeko hamaiketan irtengo dira autobus geltokitik Donostiara, eta bazkaria Aginaga sagardotegian izango da. Prezioa 32 euro da eta izena emateko epea zabalik dago dagoeneko. Argibideak, 943 76 21 40 telefono zenbakian.

## Txorimalo lehiaketa Jardunekin Erramu Zapatuan

Jardunek Txorimalo lehiaketa deitu du Erramu Zapaturako, martxoaren 31rako. Aurtengoa lehiaketaren 18. ekitaldia izango da. Izena emateko epea martxoaren 23ra arte dago zabalik, eta, aurreko urteotan moduan, bakarka eta taldeka parte hartu ahal izango da. Argibideak Jardunen, 943 76 36 61 telefonoan.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono, 761051
R.S.I. 209374 -SS
BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
*Sukalde eta bainu enzimerak*
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

# Herri giroa indartzea helburu duen taldea eratu nahi dute Bergaran

## Lehen bilera egin zuten martitzenean; hurrengoa otsailaren 28an izango da

**E.M.** | BERGARA

Mendekoste jaiak eta ondoren etor daitezkeenak, eta herri giroa, oro har, indartzea helburu duen taldea eratu nahi dute Bergaran.

Helburu horrekin lehen batzar irekia egin zuten martitzen arratsaldean, Irizar jauregian. "Jaiak herritik herriarendako antolatu nahi ditugu" azpimarratzen dute bultzagileek. Dozena bat lagun batu ziren martitzeneko bileran eta, esan bezala, Mendekoste jaietarako ekarpenak egitea da haien lehenbiziko egitekoa. Lehen bilera izateko pozik daude martitzenean jasotako erantzunarekin. Hurrengo bilera otsailaren 28rako deitu dute. Barrenkaleko Irizar jauregian izango da, 19:30ean.



Pazkoak maiatzaren 25ean hasiko dira aurten. | GOIENA

### Konpartsa baten sorrera

Amaia Osa da taldeko parte hartzaileetako bat. Haren esanetan, "ahalik eta eragile eta ezberdin gehiago batu eta konpartsa bat eratzea da asmoa. Konpartsa horrek lan egingo luke urte osoan, jai guztietan ekarpenak eginda. Jaiak herrikoiak izatea da helburua".

Esan bezala, haien lehenbiziko jomuga Pazkoak badira ere, etorkizunean Erramu Zapatuan, San Martzialetan, San Martinetan edo Mokolo Egunean presente egotea da asmoa.

Bergarako jaiei dagokienez, aurtengoan maiatzaren 25etik 29ra ospatuko dira Mendekoste jaiak.

### Herri giroa indartu

Bultzatzaileen hitzetan, "Bergaran badago parrandarako eta jai girorako sena eta gogoa. Eta, ze hobeto, konpartsa bat sortzea baino? Horixe da gure nahia, urte guztiko ospakizunetan parte hartuko lukeen konpartsa bat sortzea".

Interesa duenak badu nora jo. Parte hartzea nahi dutenek datorren otsailaren 28ko bilerara joan baino ez daukate. Ahalik eta parte-hartze zabalena sortzea eta adin askotariko jendea erakarri nahi dute.

NIRE USTEZ



**ANDRES OSA 'SAKONA'**

# Hiltegiak hiltzear

Aurreko batean, zutabe honetan esaten genuen Euskal Herriko baserriak kanposantu bihurtzen ari direla. Astean zehar txori etxe eta asteburuetan atseden leku. Etxe politak bai, baina lurrik ez, berotasunik ez.

Orain beste zama bat datorkio Bizkaiko baserritarrari: ukuiluan dituzten ganaduak sakrifikatzeko hiltegirik ez. Bilbokoa aurrena eta Durangokoa orain itxi dituzte eta Bizkaia hiltegirik gabe geldituda. Berrizen, berria eraikitzeko proiektua egina dago Erralde Elkartearen eskutik. Berria egin bitartean Durangokoa baldintza egokietara jarri badute ere, ateak zerratzeko agindua jaso dute.

Baserritarrak zer egin dezake? 3.000 bezero airean gelditzen dira. Gipuzkoak lau hiltoki ditu martxan, Bizkaiak bat ere ez. Korta, hiltegi eta harategi ibilbidea benetan neketsua da abereentzat zein baserritarrentzat. Aldundiari dirudienez bost axola, entzungor egin du. 10.000 buru hil dituzte igaro den urtean. Bada zerbait! Aldundiak proiektuan parte hartuko balu, bere ardura izanik, aurrekontutik %0,5 horretarako enplegatzea aski litzateke Berrizko proiektua martxan jartzeko. Itxaron dezaketen zenbait azpiegitura eta eraikin faraonikotan eskuzabalak dira. Baina baserriak eta bertako produktuak bultzatzeko sosik ez dago. Ez omen da errentagarria. Segi handikerietan eta lotsagabe. Baserritarrak kontuan hartzen dira soilik botoa emateko garaian.

## Haurren gurasoei zuzendutako nutrizio ikastaroa martxoan, Mireia Alberdi dietistaren eskutik

Udalak 2-3 urteko haurren gurasoei zuzendutako nutrizio ikastaroa antolatu du martxorako. Eskolak eguaztenetan izango dira, 18:00etatik 19:30era, gaztelekuan. Bergarako Mireia Alberdi dietista-nutrizionista izango da irakaslea. Izen-ematea otsailaren 24ra arte egin daiteke kultura etxean. Argibideak 943 77 91 60 telefonoan.



Herritar ugari joan zen inauguraziora, otsailaren 3an.



Luis Arconada Realeko jokalari mitikoa izan zen gonbidatuen artean.

# Harri Zuri Klinikaren inaugurazioak herritar ugari batu zituen

## Yves Roos dentistarekin batera Birjinia eta Ane Muxika ari dira lanean

Urte hasieran jarri zuten abian Harri Zuri Hortz Klinika. Yves Roos belgikarrak eta Birjinia Muxika bergararrak zabaldu dute klinika berria, Harri Zurin, Correosko bulegoaren ondoan, hain zuzen.

**INAUGURAZIOA**

Harri Zuri Hortz Klinikaren zabaltzea otsailaren 3an ospatu zuten, eta herritar ugari batu ziren lunchean, aurpegi ezagunak tartean; Luis Arconada Realeko atezain ohia Yves Roos dentistaren pazientea izan da eta klinika ezagutzera etorri zen hura.

Yves Roosek esperientzia luzea dauka; Ingalaterran, Lancasterren, 12 urtez jardun zuen eta Euskal Herrian, Enparantza doktorearekin (Legazpin) eta Anitua doktorearekin (Gasteizen) ibili da lanean.

Roosekin batera, Ane eta Birjinia Muxika ahizpak ari dira klinika berrian.

HARRI ZURI

Ibargarai 21, behea - **BERGARA** Tel.: 943 25 34 34 - 664 47 05 72

## Yves Roos

Dentista



"Plasmaren teknika zirujia guztietan erabiltzen dugu gaur"

**Gantekoa jaiotzez, Ingalaterran lanean jardundakoa, noiz etorri zinen Bergarara?**

Orain dela bost urte etorri nintzen. Lancasterren aho zirujiako masterra egin nuen eta Anitua doktorearekin, Gasteizen, BTI delakoan (Bio Technology Institute) atzerritarrei plasmaren teknikaren (PRGF) gaineko eskolak eman dizkiet. Zirujia guztietan erabiltzen dugu gaur PRGF medizina erregeneratzailea; eraginkorra izateaz gain, infekzio arriskua minimoa da eta zikratizazio hobea lortzen da.

**Punta-puntako teknologia jarri duzue klinika berrian...**

Pazienteak ahalik eta ondoen tratatzea da helburua eta horretarako tresneria aurreratuena erabiltzen dugu. Era berean, dentistaren aurrean nerbioak, fobiak edota antsietatea jasaten duen jendearendako gela bat espreski gertatu dugu, kromoterapia eta shiatsu erlaxatze teknikak erabiliz.

**Urgentzia zerbitzua eskaintzen duzue aste buruetan.**

Ingalaterran ohikoa da. Azken baten, arazoren bat izan dezakeen pazientearen ondoan egon behar dugula uste dugu.




# Zikloturistendako eta lasterketetarako maillot bateratua aterako du Lokatzak

Klubak bihar egingo du 2012ko aurkezpena; maillot berriak erakutsiko dituzte

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Bizikleta gainean kilometroak egiten hastearekin batera aurkezpenetarako sasoia da. Hala, Lokatza Ziklismo Eskolakoek zapatuan aurkeztuko dituzte txirrindulari guztiak, 13:00etan, Irala kalean (Ariznoa parean). Aurten, gainera, babesleei dagokienez hainbat nobedade dituzte, Sumofic etxearen babesa izaten jarraitzearekin batera Zirauna eta Biciprecision Igartua ere animatu direlako. Berri pozgarriak horiek, sasoi honetarako.

**Teknifikazio saioa Agorrosinen**

Zapatuan, Agorrosinen, Euskadiko mendi bizikletako lehiaketetan diharduten kirolari eta teknikarientzako saio teknikoa prestatu dute federazioko ordezkariek, goiz eta arratsalde. Deialdia hiru probintzietako taldeei egin diete, eta aste barruan dagoeneko 25 lagunek izena emana zuten. Hala, gai ezberdinen gaineko berbaldiak egingo dituzte goizean, eta arratsaldean bizikleta gainean behar den teknika da landuko duten gaia.

**Gazteak, datorren astean**

Otsailaren 25ean egingo dute gazteen Soraluce Koop. saria Osintxun, 16:00etan. Aurten berritasunak izango dira azken kilometroetan.

## Ekipazio berria, diru-iturri

Lokatza taldeak ekipazio berria aterako du denboraldi berriari begira. Hori ere zapatuan aurkeztuko dute, eta nobedadea da zikloturistek eta lasterketetan ibiliko diren gazteek arropa berdinak eramango dituztela. Hori bai, lasterketetako ekipazioak publizitatea eramango du. Klubeko arduradunek esanda, asmoa izan da "Bergaraldeko bizikletazaleak irudi bakarrean batuko dituen jantziak egitea". Hala, logotipo berezia du eta bergararrak ideia bakar baten inguruan batzen ditu: wolframioa. Kolorea, nola ez, Bergarako mahoia izango da. Hala, Bergarako txirrindulariak maillot berean batzearekin batera, klubarendako diru-iturri ere izango dira arropak, saltzen duten maillot bakoitzeko Zirauna etxeak salmenta bakoitzaren ehuneko jakin bat klubari itzuliko diolako. Arropa horiek erosi nahi dituenak Bergarako bizikleta-dendetan izango ditu salgai.



Lokatzako txirrindulariak duela sei urteko aurkezpenean (2006); tartean, egungo hainbat ordezkari daude. | GOIENA

## Pol-Pol mendi elkarteak bi irteera egingo ditu otsailean

X.U. | BERGARA

Aratusteak direla-eta Pol-Pol mendi elkarteak astebetez atzeratuko du mendiko eskiko irteera. Hala, otsailaren 25eko asteburuan joango dira Panticosa aldera bi egunean mendira joateko asmoz –betiere eguraldia eta elur baldintzak aldekoak badira–. Hala, hilaren 22an (eguaztena) egingo dute batzarra, 19:00etan.

Beteranoen irteera, berriz, otsailaren 26an egingo dute, eta Lizarra, Otzabio eta Alegia arteko mendi zeharkaldia egingo dute. 08:00etan irtengo dira frontoitik –txartelak dagoeneko bulegoan daude.

## Soraluce BKE taldeak atsedena, Aratusteengatik

X.U. | BERGARA

Oraingo asteburuan Gipuzkoako senior mailan talde gehienek atseden hartuko dute, Aratusteak behar den moduan ospatzeko. Bergarakoei, baina, atsedenaldia ondo etorriko zaie, datorren astean ligako kontrario gogorrenaren bisita izango dute-eta Labegaraietako kantxan.

Bergarakoek Beiztinberriren kantxan 81-70 galdu zuten joan den astean eta 12. postuan daude 23 punturekin. Bada, hamar puntu gehiago batu dituen Bosteko taldea izango dute aurrean.

## Yoldik eta Arrietak aurrera lau t'erdikoan

X.U. | BERGARA

Joan den martitzenean jokatutako Soraluce sariko lau t'erdiko kanporaketa partiduetan Yoldik eta Arrietak irabazi zituzten partiduak. Lehenak 6-22 irabazi zion Etxanizi eta bigarrenak 13-22 hartu zuen mendean Albarado pilotaria. Hurrengo partiduak datorren martitzenean jokatuko dituzte, hilak 21, 19:30ean hasita, Udal Pilotalekuan. Lehenengo partiduan Bilbaok eta Altzelaik jokatuko dute, eta Otamendik eta Larrañagak jokatuko dute gero.



Ivan Poyato del Rio, Ekhiñe Egiguren, Irati Majuelo eta Jone Fernandez. | ARRITXU BARRUSO

# Jardunek amodiozko gutunak entzunaz ospatu du San Balentin

Martitzenean XX. amodiozko gutunen lehiaketako sari banaketa egin zuten

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Amodiozko gutun ederrak entzun ahal izan ziren martitzenean, San Balentin egunez, Bergarako kultura etxeko ganbaran. Urtero moduan, Maiteminduen Eguna aukeratu zuen Jardun elkarteak Amodiozko Gutunen Lehiaketako Sari Banaketa egiteko.

Aurten lehenengo saria Ekhiñe Egiguren donostiarrarentzat izan da eta bigarren saria, Ivan Poyato del Rio barakaldarrarentzat. Bergarar onenaren saria, bestetik, Ana Moñuxek irabazi du eta epaimahai gazteak Iruñeko Irati Majuelo saritu du.

Urtero moduan, irabazleek eskutitz sarituak irakurri zituzten jendaurrean, musikarekin lagunduta. Ekhiñe Egigurenenak Stockholmera eraman zituen entzuleak, eremu bakarti eta hotzera. Ivan Poyato del Riok, berriz, musikaren edertasuna erakutsi zuen musikarekin lotutako metaforaz betetako gutunarekin, eta Irati Majuelok maitasunaren menpekotasuna ezin hobeto ulertarazi zuen. Ana Moñux izan zen falta izan zen i rabazle bakarra, Bergarako gutun ederrena izan da harena aurten, baina Irlandan dago ikasten eta haren lagun Jone Fernandezek jaso zuen saria, baita gutuna irakurri ere.

### Aurtengoa XX. edizioa

Jardun elkartea pozik azaldu da 20. edizio honek emandakoarekin. 65 lagunek hartu dute parte, iaz baino bederatzi gehiagok, eta aurten AEBetatik ere jaso dute gutun bat. Epaimahaia P ello Añorga idazleak, Oihane Perea bertsolariak, Andoni Tolosa musikariak eta iazko irabazle Idoia Galanek osatu dute eta azaldu dute maila handiko gutunak jaso dituztela: "Kanpoko paisaia erabiltzen dutenak barruko sentimenduak adierazteko".

# Xabier Solano eta DZ gaur gaztetxean, 19:00etan

Esne Beltza taldeko doinuak 'sound system' erara gaur, Tritikitxa Batzordeak antolatuta

A.B. | BERGARA

Bergarako Trikitixa Batzordeak antolatuta kontzertu berezia egingo dute gaur, egubakoitza, gaztetxean. Euskal Herriko bazter guztietan eta munduko hainbat txokotan izan diren Esne Beltza taldeko Xabi Solano –trikitilaria– eta DZ –Scracha– igoko dira taula gainera. *Esne Beltza Sound System* emanaldia eskainiko dute

Bergarako Trikitixa Batzordeko kideek jakinarazi dute emanaldi didaktikoa izango dela; beraz, bi musikariek egiten duten musikaren gaineko azalpenak emango dituzte.

Kontzertua 19:00etan hasiko da. Sarrerak aurrez salgai daude Depor, Bule eta Arrano tabernetan hiru euroren truke, baina kontzertuaren unean bertan ere jarriko dira salgai.


Solano eta DZ. | GOIENA

### Esne Beltza taldeko kideak

Solano eta DZ Esne Beltza taldean dihardute, azken urteotan euskal talde entzunetarikoa bilakatu dena. Gazteen artean izugarrizko oihartzuna lortu dute eta dagoeneko lau disko dituzte kalean. Bergaran ordu eta erdiko saioa egingo dute.


*Ai, amatxo* musikalaren entseguak egin dituzte aste honetan. | BENITO CANTERO

# Abba taldearen garai onenetara bidaia, Aratuste kontzertuarekin

A.B. | BERGARA

*Mama Mia, Dancing Queen* eta *Waterloo* kantu ezagunak abestu eta dantzatzeko aukera izango da gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan. Urteroko Aratuste kontzertuan, aurten *Ai, amatxo* musikala antzeztuko dute, eta, modu horretan, Abba taldearen garai onenetara eramango dituzte entzuleak, baina, kasu honetan, euskal landetxe batean kokatuko da akzioa.

Kontzertuak bi zati izango ditu: lehenengo, Bergarako Udal Musika Bandak 70eko hamarkadako musikan oinarritutako emanaldia egingo du, eta ondoren etorriko da *Ai, amatxo* musikala. Arduradunek azaldu dute aurten zerbait alaia eta dantzagarria egin nahi izan dutela.

Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarrerak agortuta daude atzotik, beraz leihatilan ez da sarrerarik salgai ipiniko.





Atariaren sarrera. Goian bost atal ditu: *Hasiera*, *Agenda*, *Foroa*, *Iradokizunak* eta *Sailak*. | GOIENA

# Parte-hartzea bultzatzeko ataria herritarren eskura

## Udalaren 'www.herrijorran.info' webgunea erabilgarri dago

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

"Herritarren partaidetza garatzeko, kudeatzeko eta gobernatzeko mekanismo berri eta hobeak sustatzearen alde asmo garbia eta sendoa erakutsiz", *www.herrijorran.info* ataria ipini du herritarren eskura Oñatiko Udalak. "Udalak antolatutako ekintzen berri emateko eta herritarren ekarpenak jasotzeko plataforma digital baten beharra ikusten genuen. Hainbat hilabetetako lanaren ondorengo emaitza da", esan digu Xabi Pico zinegotziak.

Atariak bost atal ditu: *Hasiera*, *Agenda*, *Sailak*, *Foroa* eta *Iradokizunak*. Bakoitzak aukera ezberdinak ematen ditu: *Agenda*-n, hileko hitzorduak batzen dituzte (otsaila *Kultura herrijorran* hilabetea da); *Sailak* atalean, batzorde bakoitzaren inguruko albisteak daude; eta *Iradokizunak* atalean, nork bere ekarpena egin dezake.

Foroa ere badauka, foro irekia. "Zalantzak izan ditugu irekia izan edo ez erabakitzeko. Irekia izanik, hainbat arrisku daude, baina animatu egin gara. Irainak eta bestelakoak ikusten baditugu, mugatu egin beharko dugu. Baina, oraingoz, edonork parte har dezake foroan", dio Picok.

### Internet eta sare sozialak

Urri bukaeran hasi ziren *www.herrijorran.info* atariarekin lanean. Lehen bertsio bat egin zuten, eta, handik abiatuta, hainbat aldaketa eginda, herritarren eskura ipini duten ataria sortu zuten. "Erakargarria baino gehiago, erabiltzeko erraza izatea lehenetsi dugu. Edonork erraz erabiltzeko ataria gura genuen", diote.

Aurreko astea ezkero dago abian, eta herritarrak hasi dira erabiltzen. Facebook eta Twitter kontuak era badituzte. "Badakigu Internet eta sare sozialen bidez ez garela pertsona guztiengana helduko. Baina webguneko informazioa ez da hor geratuko. Beste euskarri batzuk erabiliz zabalduko dugu". Irudiz enpresak egin du diseinua eta garapena.

### Helburuak

*Herrijorran* proiektuarekin hauxe lortu gura dute: herritarren eta tokiko gobernuaren arteko hartu-emanak hobetzea; herritarrek politika kudeatzeko orduan parte-hartze zabalagoa izatea; eta informazio, parte-hartze eta gardentasun handiagoa eskaintzea.

# Bosgarren edukiontziaren aldeko erabakia bertan behera uzteko prozesua

## Tokiko gobernu batzarrean eztabaidatu ondoren, otsaileko osoko bilkuran hartuko dute erabakia

**M.B.** | OÑATI

EAJk 2011ko martxoaren 31ko osokoan erabaki zuen materia organikoaren bilketa egiteko bosgarren edukiontzia ipintzea (alegia, edukiontzi marroia), eta erabaki hura betetzeko eskaera egin zion Mankomunitateari, hura arduratzen da-eta zaborraren kudeaketaz.

Bada, orduan hartutako erabakia bete barik geratu zen, eta oraingo udalbatzak erabakia indargabetzeko prozesua abian ipini du. "Zaborraren bilketa zerbitzuari buruz herrian abian ipini den eztabaida prozesua aurrera eroateko traba egiten" duela argudiatuz, gaia tokiko gobernu batzordean eztabaidatu zuten.

Hain justu, bosgarren edukiontzia jartzeko erabakia osokoak hartu zuenez, indarrik gabe uzteko erabakia ere osokoan hartu beharko dute. Hori horrela, hilaren 23an egingo duten bilkuran aztertuko dute.

Urtarrileko osokoan Oñati Zero Zabor taldeak aurkeztu zuen mozioaren –azpiegitura handien kontrako mozioa– puntuetako baten, edukiontzi marroiaren aldeko erabakia bertan behera uztea eskatzen zen. Eta Bilduren Udal Taldeak osotasunean onartu zuen mozioa.

### Atez atekoari buruz berbetan

Bestalde, Oñati Zero Zabor taldeak antolatuta, atez ateko zabor bilketari buruzko batzar irekia izango da gaur, egubakoitza, 18:30ean, kultura etxean. Besteak beste, atez atekoari eta erraustegiari buruz eta Oñati Zero Zabor taldeak aurrera begira dituen asmoei buruz egingo dute berba.

### Herri mailako ehiza txapelketa egingo dute Zanbranan (Araba) martxoaren 3an

Pago Uso elkarteak eta Alzu dendak antolatuta herri mailako ehiza txapelketa egingo dute martxoaren 3an Zanbranan (Araba). 09:00etatik 13:00etara arte pieza gehien harrapatzen duenak irabaziko du. Izen-ematea Alzu dendan egin daiteke hilaren 29a baino lehen. Pago Usoko bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, 40 euro.

### Etorkinendako euskara ikastaroa astelehenetan eta eguaztenetan egingo dute, 14:45etik 16:45era

Etorkinak euskarara hurbiltzeko ikastaroa astelehenetan eta eguaztenetan egingo dute, 14:45etik 16:45era, hilaren 22tik ekainaren 20ra. Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Interesatuek euskaltegira jo behar dute (943 78 24 96). Matrikula 10 euro ordaindu behar da eta materiala, bost euro. Ikastaroa 60 ordukoa izango da.

### Haitzalde elkartean erretzea debekatu dute; batzar orokorrean adostu zuten hango bazkideek

San Anton kalean dagoen Haitzalde elkarte gastronomikoan erretzea debekatu dute. Urtarril bukaeran egin zuten zuzendaritza batzordea aldatzeko urteko batzarra, eta puntu horren gainean eztabaidatu eta erabakia hartu zuten. Bazkide batzuek egindako eskaera izan zen. Oñatin mota horretako erabaki bat hartzen duen lehen elkarte gastronomikoa da Haitzalde.

### Ingurumen Astearen ibilaldian parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago domekara arte

Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Astea ibilaldi batekin hasiko dute: hilaren 24tik 26ra Gallocantara (Teruel) joango dira. Interesatuek 943 71 64 04 telefonoan eman behar dute izena hilaren 19a baino lehen. Gallocanta urmaeleko kurriloak (grullak) eta Jiloka errekako makal lepatuak ezagutuko dituzte.

### Maskarada disko-festa egingo du Sound Proyect taldeak gaztelekuko topalekuan zapatuan

Aratuste-zapatua dela aprobetxatuz, disko-festa berezia egingo dute bihar, zapatua, gaztelekuko topalekuan, 18:00etan. Sound Proyect bikoteak maskarada disko-festa egingo du. Irratietan gehien entzuten diren kantuak eta abeslariak izango dira protagonistak. Mozorrotuta ere joan daiteke.

NIRE USTEZ

**AITOR UGALDE**



# Mutil hura

Boladaka azaltzen zen, denboraldi batean gure artean izaten zen eta gero berriz desagertzen zen. Hemengo eta hango bide bazterretan ikusi genuen, ekipaia arinarekin, bakarrik, oinez, pauso bakoitza ematerakoan bere gorputz handia mugituz hankei lagundu nahian bezala. Auskalo nondik zetorren eta nora zihoan.

Orain egun batzuk, neguko gau batean, hilda agertu zen San Martin aldean. Gaztea oraindik, sasoiko adinean zegoen. Ez dakit hotzagatik hil zen, bat-bateko atakeren batengatik edo beste zerbaitengatik. Etxerik gabea omen zen, etxerik ezean txabolaren batean egoten omen zen, hil zen lekutik gertu. Agian txabolara zihoan hil zenean edo, agian, bertan zegoela gaizki sentitu eta laguntza eskatzera zihoan. Auskalo. Kafetegian gosaltzen eta egunkaria irakurtzen ikusten nuen, supermerkatuan gauza gutxi batzuk erosten, kalean baino gehiago herri inguruko bideetan, batzuetan euripean, arropak ere betikoak.

Gure begiradak gurutzatzen ziren San Martinen, bankuan eserita begiratzen zigun korrika genbiltzanoi, berak ere korrikarako gogoa bazeukala baina pisu astun baten azpian zegoela irakurtzen nuen begirada hartan. Hala ote zen? Asteburuetan poteatzen ez nuen ikusten, zer egiten zuen orduan? Zer gu lanean geundenean? Bere urtebetetzea ospatzen ote zuen? Zerk eraman zuen horrela bizitzera?

**"Auskalo nondik zetorren eta nora zihoan..."**

# 240 herritarren dantza koloretsuak kalean

Azken bi hilabeteetan gogor entseatu dute Oñatz dantza taldeko kideekin batera Errekalden

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Azken bi hilabeteetan gogor entseatu ondoren, 240 lagunek kolorez eta dantzaz jantziko dituzte herriko kaleak. 11:30ean hasita, Aratusteetako dantza ikuskizuna egingo dute. Amaiera ekitaldia plazan egingo dute, 20:00etan.

Martitzenean egin zuten azken entsegua eta Goiena han egon zen. Adin tarte askotariko pertsonak batu dira Oñatzen Aratustera, gehienak emakumeak. Hori horrela, emakume batzuek mutilaren papera egin beharko dute. "Gogotsu gaude. Bikoteak banatu ditugu, eta dena gertu daukagu. Eguraldi iragarpenari begira gaude; ea, bada, ez duen euririk egiten", esan zigun entsegua hasi aurretik Arkaitz Bengoak.

Lapurdiko Aratusteetako dantzak oinarri hartuta antolatu dute kalejira (*Polka*, *Gaztelugatxe*, *Marmutx*...), baina beste herrialde batzuetakoak ere landu dituzte. "Dantza berriak ikasi ditugu. Ez dira Aratusteetako dantzak, baina moldatu egin ditugu: Huescakoak, Poloniakoak, Belgikakoak... Egia esan, errepertorio polita osatu dugu", esan zigun Bengoak. Goizeko kalejira Kale Zaharrean bukatuko dute eta arratsaldekoa, plazan.

**Aratustea berpiztuz**

Abenduan hasi zituzten entseguak. Astero eguaztenetan eta zapatuetan egin dituzte, eta batzuei beste batzuei baino gehiago kostatu zaie dantzak ikastea. "Herritar askok urtero errepikatzen dute; beste batzuk berriak dira, baina dantzarako gaitasuna dute; eta beste batzuk hutsetik hasten dira. Denetik izan dugu, baina ikasi egin dute. Lan handia egin dute", diote Oñatzekoek.

Herritarrek emandako babesarekin berpiztu egin dute Herri Aratustea azken urteetan. "Herritarrek ematen diguten babesak lanean jarraitzeko indarra ematen digu. Urte batzuetan ez genuen herri kalejirarik egin. Bazirudien gainbehera zetorrela, baina azken urteetako erantzuna oso ona izan da. Aratuste-zapatuko kalejirak bere bidea egiten dihardu. Ea luzerako den", esan zigun Bengoak.

**Domekan, Luzaidekoak**

Oñatz taldeko dantzariek emanaldi bikoitza dute aste bukaeran: bihar, zapatua, herritarrekin irten ondoren, domekan beste emanaldi bat egingo dute: Luzaideko Aratusteetako dantzak, hain zuzen. 18:30ean hasiko dute kalejira. Ordu eta erdiko saioa egingo dute. Amaiera ekitaldia plazan egingo dute, 20:00etan.

Jose de Azpiazu musika eskolako folk taldearen laguntza izango dute Oñatzekoek Luzaideko dantzak eskaintzeko: akordeoia, biolina, klarinetea, zeharkako txirula, txistua, bonboa eta trikitia.



Herri Aratustean parte hartuko duten herritarrak, martitzeneko entseguan. | MIREIA BIKUÑA

**ESANAK**

**"Urte batzuetan kale egin ondoren, berriro hartu du indarra herritarren Aratusteak"**

ARKAITZ BENGOA | OÑATZEKO KIDEA

## Ikastetxeek gaur eta martitzenean

Herriko ikastetxeek gaur eta martitzenean ospatuko dituzte Aratusteak. Elkar Heziko ikasle guztiak Santa Marinan elkartuko dira gaur 11:00etan eta kalejira egingo dute Mari Domingiz mozorrotuta. Batxilergoko ikasleek mozorro lehiaketa egingo dute.

Gaur, bestalde, Txantxiku Ikastolako Haur Hezkuntzako umeak txantxiku musikari izango dira eta Lehen Hezkuntzakoak, iratxo. Txikienek kalejira egingo dute eskolan eta besteek, herriko kaleetan. Amaiera ekitaldia 16:00etan plazan. Ondoren jaialdia, ikastolan.

Azkenik, Errekalde Herriko Eskolakoek martitzenean egingo dute jaialdia, 11:00etan. Euskal jaiak hizpide hartuta, adinka mozorrotuko dira: Maritxu Kajoi, San Fermin, San Juanak, Corpusak, estropadak...

## BETERANUAK

**EMAITZAK "A" TALDEA**

| | |
|---|---|
| Lozorromo-Dollygans | 1-1 |
| Paketinaikos-Txarrixak | 1-3 |
| Kalañatasaray-Etxaixat | 2-0 |
| Txuskos-Nandrolona | 2-4 |

**SAILKAPENA "A" TALDEA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Kalañatasaray | 15 | 6 |
| 2 | Dollygans | 13 | 5 |
| 3 | Etxaixat | 10 | 6 |
| 4 | Txarrixak | 10 | 5 |
| 5 | Albok | 9 | 6 |
| 6 | Lozorromo | 7 | 5 |
| 7 | Nandrolona | 3 | 5 |
| 8 | Paketinaikos | 3 | 5 |
| 9 | Txuskos | 0 | 5 |

**SAILKAPENA "B" TALDEA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Xaguxar | 12 | 5 |
| 2 | Zorrobero | 10 | 5 |
| 3 | Gibel Boys | 10 | 5 |
| 4 | Joxely | 9 | 5 |
| 5 | Indar 85 | 7 | 5 |
| 6 | Bundeswehr | 4 | 5 |
| 7 | Sasquatch | 3 | 5 |
| 8 | Ankarteko | 1 | 5 |

**ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK**

B TALDEA, 7. jardunaldia

**Zapatua 13:00** Zorrobero-Sasquatch

**Zapatua 14:30** Gibel Boys-Bundeswehr

**Zapatua 18:30** Joxely-Ankarteko

**Zapatua 20:00** Xaguxar-Indar 85

**Arduraduna:** Etxaixat

**Denak, zapatuan**

Sailkapeneko lehen lau taldeek bosgarrenetik zortzigarren lekura daudenen kontra jokatuko dute. Liderrak Indar 85en kontra jokatuko du lehen tokiari eusteko. Baina Indar 85ek irabazten badu eta Joxelyk galdu, postu bat irabaziko du sailkapenean.

Multzo bakoitzeko lehen lau taldeak dira bigarren fasean ligaxka jokatuko dutenak.

**Golegile nagusia**

Oraingoz, Dollygans taldeko Joseba Albizu da txapelketako golegile nagusia, 12 golekin.

# Oñatiko moxala dastatzeko pintxo-poteoa egingo dute

M.B. | OÑATI

Gipuzkoako Mendiko Zaldien Elkarteak (GIMEBEL) antolatuta eta Oñatiko Udalak lagunduta, Moxal Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, 18:30ean. "Moxal okelaren kontsumoa sustatzeko asmoz antolatu dugu. Oñati Gipuzkoan behor gehien dituen herrietakoa izango da, baina ez dago okela hau jateko ohiturarik", esan digu Oñatiko behorzale Mikel Igartuak.

**Pintxoa eta edaria**

Moxal dastatzea Foru plazan egingo dute. Herriko moxal oso bat ipiniko dute herritarren eskura: erdia gisatua eta beste erdia xerratan. Pintxo-poteo eran banatuko dute: okela eta edaria euro baten. Moxal pintxoari laguntzeko, ardoa, Zañartuko txakolina eta herriko sagardoa egongo dira.

Behorzaleek diote moxal okela behi edo txerriarena baino "osasungarriagoa eta bigunagoa" dela.

**Lau harategitan**

Moxal okela oñatiarren artean sustatzeko eta bultzatzeko, herriko lau harategiren konpromisoa lortu dute. Tarsicio, Garai, Antton eta Odriozola harategietan moxal okela salduko dute aurrerantzean.

# Mendi-eski zeharkaldia Aloña Mendirekin

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak Alpeetako mendi-eski zeharkaldia egingo du Aste Santuan: martxoaren 30etik apirilaren 9ra arte. Sei pertsonako bi talde osatuko dituzte, eta bakoitzak gidari bat izango du.

Antolatzaileek diote "ibilaldi gogorra" dela, "bai teknikoki eta baita fisikoki" ere. Hori horrela, ezinbestekoa da eski teknika ona izatea, fisikoki ondo egotea eta elurretan kranpoi nahiz piolettekin ibiltzen jakitea. Interesatuek 635 74 88 84 telefonoan edo *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidean eman dezakete izena.

## OHARRAK

**ATE IREKIAK**

Enpresagintza fakultateak ateak irekiko ditu bihar, zapatua, 11:00etan. Oñatiko fakultateak duen eskaintza ezagutzeko aukera egongo da. Interesatuek 902 11 04 36 telefonora deitu beharko dute izena emateko.

**PLASTIKO BILKETA**

Urteko bigarren plastiko bilketa egingo dute hilaren 28an. Plastikoak aurreko egunean utzi behar dira ohiko lekuetan. Oñatin, lau lekutan: Zañartun, Zuazola inguruan; ETEO zaharraren atzealdean; Murgian, Asentzio ermitaren alboan; eta Olabarrietan, autobus geltokian. Batuko dituzte: baserrietako plastiko beltzak eta zuriak eta belar-boletakoak.

**TRASTE ZAHARRAK**

Hileko eguen guztietan batzen dituzte etxean pilatutako traste zaharrak. Interesatuek 943 71 19 38 zenbakira deitu behar dute abisua eman eta trasteak zein lekutan utzi behar dituzten jakiteko. Trasteak 20:00etatik 22:00etara arte utzi behar dira aurrez zehaztutako lekuan.

**DEIALDIA**

Odol-emaileen taldeak martxoaren 9an egingo du hurrengo ateratzea: 18:00etatik 20:00etara arte, Txantxiku Ikastolan.

**GARBIGUNEA**

Urrutxuko garbigunea zabalik dago astelehenetik egubakoitzera (09:00-13:30 eta 15:00-19:00) eta zapatuetan (09:00-13:30).

# Badatoz, badatoz... has daitezela Aratusteak!

Leizarra musika eskolako 'Aratuste jaia' ikuskizunak hasiko du mozorro jaia

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Gaur hasiko ditugu gurean Aratusteetako ospakizunak; Leizarra musika eskolako kideek egingo diete ongietorria, hain zuzen. Kuartel zaharrean hasita *Aratuste jaia* izeneko kalejira egingo dute plazaraino (17:00) eta ondoren dantza saioa eskainiko dute. Nafarroako hainbat dantzaren erakustaldia izango da.


Koadrila iazko kalejiran. | M.A.

**Aratuste-domeka**

Aretxabaletarrak, baina, domekaren zain daude, orduan erakutsiko dutelako azken asteotan egindako lana; isilean gertatu eta gordetako mozorroak. Eta Txapel Txinek iragarritako moduan: "Aretxabaletarrek ez didate hutsik egingo!"

Txistulariek esnatuko dituzte herritarrak (10:00) eta eguerdia baino lehen (11:45) txino-dantza egingo dute Santa Ageda neska-mutilek. 12:00etan hasiko da koadrilen desfilea Akelarre txarangaren laguntzarekin. Azken urteotan legez Copreci lantegi alboan elkartuko dira guztiak ibilbideari ekiteko. Hona: Araba ibilbidea; Mitarte; Durana; Errekabarren; Andramari; Mitarte; Durana; eta Herriko Plaza.

Arratsalde parteko ekitaldiak txarangaren kalejirak hasiko ditu (17:30). Ondoren mozorro lehiaketako sariak banatuko dituzte (18:30), eta Santa Ageda neska-mutilen aurtengo azken dantza saioa izango da (19:00). Gero koadrilek jai giroan jarraituko dute goizaldera artean.

**Aratuste-martitzena**

Aratuste-martitzena ostera, umeendako jaia izango da. 2 eta 12 urte arteko neska-mutikoak, 500 inguru, Herriko Plazan elkartuko dira (11:00) Ustekabe txarangarekin kalejira hasteko. Arratsaldean txarangak buruhandiekin egingo du bat (17:30), eta iluntzean esango diete herritarrek agur Aratusteei *Txin*-en hileta ospatuta.

# Hamaika emakumek hasi dute lanerako prestakuntza ikastaroa

**M.A.** | ARETXABALETA

Lanerako prestakuntza ikastaroa antolatu dute emakumeendako Udalaren eta Caritasen laguntzarekin, eta joan den zapatuan hasi zuten. Ana Bolinaga alkateak eta Maider Aizkorbe Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak egin zieten ongietorria.

Hamaika emakumek osatutako taldea hasi da lanean, oso gustura hasi ere. Gehienak etorkinak dira: sahararrak, marokoarrak eta Hego Amerikakoak: Honduras, Peru, Kolonbia... Hainbat eskola jasotzen dabiltza: etxeko garbitasun lanak, ingurumen kontuak, amatasuna... Antolatzaileen helburua zen emakume horiek prestatzea, Paloma Martinezen esanetan, baina emakumeek beste helburu bat dutela konturatu dira: "Lana topatzea da helburua. Hala, indarrak batu eta elkarri lagunduta lan egitea proposatu diegu".

**Praktikak familietan**

Prestakuntza ikastaroa bukatutakoan, ordaindutako praktikak egingo dituzte emakumeek herriko etxeetan.

Bada, haien garbitasun zerbitzua debalde jaso gura duten familiek –0 eta 5 hilabete arteko umeak dituztenak– izena eman dezakete astelehenean hasi eta martxoaren 16a bitartean. Udaletxera jo dezakete, edo honako telefono zenbakira deitu: 630 24 78 71.


Ikastaroa hasi duten emakumeak, zapatuan, Arkupen. | A.DOMINGUEZ





Sahararen gaineko argazkiak Arkupeko erakusketa aretoan. | M.A.

# Saharako kide bi gaur Arkupeko erakusketan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan ateratako argazkiak daude Arkupen astelehena ezkero. Mondragon Unibertsitateko ikasleek iazko Aste Santuan ateratako argazkiak dira eta hango bizimoduaren berri ematen dute. Gaur ikasle horietako batzuk izango dira Arkupen (19:00) argazkien gaineko argibideak ematen, eta kanpalekuetan ikasle horiekin gidari lanak egin zituzten saharar bi ere egongo dira.

**Giza eskubideen alde borrokan**

Saharar horietako bat Mohamed Salem Boumoud da, giza eskubideen aldeko ekintzailea. Lurralde okupatuetan bizi da, kartzelan egon da hainbat urtean, eta tortura izugarriak jasan. Iazko Aste Santuan errefuxiatuen kanpalekuetan zegoen Gdeim Izik suntsitu zutenean; hain zuzen, hura izan zen bultzatzaileetako bat. Otsailaren 6an, ostera, gurera etorri zen: "Azkenean, lortu dugu ekartzea medikuarengana eramateko. Tortura latzak jasan ditu eta ez dago ondo", jakinarazi du Olaia Sagredok, Udaleko Berdintasun zinegotziak.

Bestalde, otsailaren 27an Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren urteurrena da eta Udalak adierazpen instituzionala egingo du.

# Odei Vazquez, Euskadiko karate txapelduna

### 60 kiloz azpiko kumite modalitatean nagusitu da

M.A. | ARETXABALETA

Gasteizen jokatutako Euskadiko senior mailako karate txapelketan lehenengo postua eskuratu du UDA elkarteko Odei Vazquezek, kumite modalitatean –60 kiloz azpikoa.

Bihar arratsaldean beste norgehiagoka garrantzitsu bat dauka Vazquez aretxabaletarrak: autonomia erkidegoen arteko XII. txapelketa. Errioxan jokatuko dute eta Aragoi, Nafarroa, Euskadi eta Errioxako federazioen arteko txapelketa da. Martxoan Bilbon jokatuko den Espainiako txapelketari begira proba garrantzitsua da, eta haren entrenatzaile eta aita Odilo Vazquezen esanetan, lorpen handia litzateke harako sailkatzea: "Elkartearendako lorpen handia eta Odeirendako izugarrizko poztasuna, txikitako ilusioa delako Euskadiko selekzioa ordezkatuz halako txapelketa batean jokatzea".



Vazquez, dominarekin. | ODILO VAZQUEZ

## Martxoaren 10ean egingo du Ixadebalde Aretxartek, eta urteko lehen zozketako txartelak banatzen dabil

Aretxarte merkatarien elkartea dagoeneko hasi da urteko lehenengo zozketarako txartelak banatzen bezeroen artean. Zozketa hori martxoaren 16an egingo dute eta saria hauxe da: bi lagunendako afaria sagardotegian eta gaua eta gosaria landetxe batean.

Bestalde, Ixadebalde merkealdien azoka antolatzen ere badabil Aretxarte. Martxoaren 10ean, zapatua, izango da, eta, seguru asko, Iturrigorri frontoian egingo dutela iragarri dute, baina oraindik zehazteko dituzte hainbat kontu.

## Familia eta hezkuntza izango dituzte berbagai eguaztenean

Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatuta Gipuzkoako banandutako amen eta aiten elkarteko kideak –Agipase– etorriko dira familiaren, hezkuntzaren eta berdintasunaren gainean jardutera. Eguaztenean, hilak 22, da berbaldia, Arkupen (18:30).

## Kepa Urraren 20. urteurrena gogoan martxa Almeriara

Aretxabaletako Egin Bidea taldeak Kepa Urraren 20. urteurrenaren harira martxa antolatu du Almeriara. Otsailaren 24an, egubakoitza, aterako da autobusa (18:00), eta hurrengo egunean itzuli. Izena emateko jo honako tabernetara: Urbaltz; Zaraia; eta Txiki Bar.

## Urbaltz taberna zabalduko dute gaur mokadutxoa eskainita

Gaur zabalduko dute Urbaltz taberna hilabete pasatxoan itxita egon ostean. Egokitze lantxo batzuk egin dituzte, eta gaurtik aurrera zabalik izango da. Irekiera ospatzeko mokadutxoa eskainiko dute (19:00-21:00).




Umeek gozokiak banatu zituzten zaharren egoitzan daudenen artean. | MIRIAN BITERI

# Baserritar jantzita eta ziria esku artean kantuan

## Urdelardero eguna egin zuten atzo herriko ikastetxeetako 200 neska–mutikok

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Urdelardero egunaren harira, herriko kaleetan kantuan ibili ziren atzo goizean herriko ikastetxeetako ikasleak. Ohiturari jarraituz, baserritar jantzita eta ziria eskuan zutela irten ziren kalejiran, eta, sari moduan, eskoriatzarrek emandako gozokiak jaso zituzten.

Guztira, 200 neska-mutiko inguru irten ziren atzo. Jose Aranakoak Olaeta eta Aranburuzabala aldean ibili ziren eta Luis Ezeizakoak, ostera, Intxaurtxuetako ingurunean. Azken horiek zaharren egoitzatik ere pasa ziren; pozik hartu zituzten aitaita-amamek umeen bisita. Handik plazarantz abiatu ziren, eta Jose Aranakoekin elkartu ziren. Urdelardero kantua batera abestu eta txistorra beroa gustura hartu zuten.


Kantuan ibili ostean, gustura jan zuten txistorra . | M.B.

### 230 lagun bazkaltzen

Urdelarderoren ondotik, bihar, zapatua, Aratuste-zapatua da, eta, horren harira, askotariko ekitaldiak egingo dituzte egun osoan. Eguerdian hasiko dira horiek, herriko trikitilarien kalejira eta Egan taldearen dantzaldiarekin. Jarraian, pilotalekurantz abiatuko dira mozorrotutakoak, herri bazkaria egingo dute-eta. Aurten 230 lagun inguru elkartuko dira. Bazkarian, helduek patatak errioxar erara gertatuak, txahal gisatua eta tarta duten bitartean, umeek zukua, makarroiak tomatearekin, txitxi-burruntzia eta jogurta jango dute. Bazkariaren ondotik, azken horiek zezentxoekin eta pottokekin jolasteko aukera izango dute ondoan dagoen Luis Ezeiza ikastetxeko patioan.

### 300, 200 eta 100 euro

Aurten ere, mozorroen desfilea eta lehiaketa antolatu du Udalak. Azken horretan parte hartu gura duten taldeek egunean bertan eman ahal izango dute izena pilotalekuan, 17:00etan. Adinaren araberako sariak banatuko dira: 16 urtetik gorakoendako 300, 200 eta 100 euroko bina sari emango dituzte; eta 16 urtetik beherakoendako, 3 afari merienda, gehienez 100 euroko kostua izango dutenak.

Desfilea amaitutakoan, epaimahaia elkartuko da. Sariak ematerakoan kontuan izango ditu parte-hartzaileen umorea eta sortzen duten giroa, originaltasuna, arropak, eszenografia, koreografia eta egindako lana. Jarraian, plazan jakinaraziko dira irabazleak nortzuk diren, eta sariak banatuko dira.

### ARATUSTEAK

**BIHAR, ZAPATUA**

- **13:00** Egan taldea plazan.
- **13:00** Trikitilarien kalejira.
- **14:30** Herri bazkaria.
- **16:00** Zezentxoak Luis Ezeizan.
- **17:30** Mozorroen desfilea.
- **18:30** Egan plazan; lehiaketako sari banaketa.

**MARTITZENA, HILAK 21**

- **10:30** Umeen jaialdia plazan.
- **17:15** Kukumarroak.
- **18:00** Mikel Egiluz DJa plazan.

# Martitzenean zabalduko dute erretiratuen taberna

## Atzo egitekoa zen osoko bilkuran zerbitzua ustiatzeko esleipena onartzekoa zen udalbatza

M.B. | ESKORIATZA

Azken orduko ezustekorik ez badago, martitzenean, hilak 21, zabalduko dute ostera ere herriko erretiratuen taberna. Atzo iluntzean egitekoa zen ohiko osoko bilkuran, areto horren zerbitzua ustiatzeko eskubidea esleitzeko asmoa zuen udalbatzak.

Udaleko gizarte laguntzaile Veronica Solagurenek azaldu digu tabernak orain arte izandako ordutegian egongo dela zabalik: astelehenetik domekara, 11:00etatik 22:00etara. Horrekin batera, azaldu du zerbitzua esleitzeko deialdian lau eskaera jaso dituztela, guztiak eskoriatzarrek egindakoak. Horren harira, gaineratu du lehiaketan garaile irtendakoak bi urteko iraupeneko kontratua sinatuko duela, eta gero, bi urteko alditan luzatzeko aukera izango duela. Bestetik, azken bi hilabeteotan taberna behin -behineko ustiatu duenari eskerrak eman nahi izan dizkio Udalak.

Bestalde, Olazar erretiratuen elkartetik jakinarazi dute ohiko batzar orokorra egingo dutela martxoaren 30ean; lehenengo deialdia 17:00etan da eta bigarrena, 17:30ean. Horren harira, esan dute zuzendari batzordeko lau kideak berritzeko borondatezko hautagaiak aurkezteko epea martxoaren 6an amaituko dela.

Horrez gain, elkartetik azaldu dute sanpedroetarako danborradan izena eman daitekeela. Interesatuek martxoaren 30a baino lehen joan behar dute elkartearen bulegora martitzenetan eta eguenetan.


Egunero egongo da taberna zabalik 11:00etatik 22:00etara. | MIRIAN BITERI

# Etzi jarriko du Patxi Monterok 'Herrixa dantzan' ostera

M.B. | ESKORIATZA

Urtarrilaren 15eko lehen saioak izandako harreraren ondotik, etzi, domeka, *Herrixa dantzan* ekitaldia egingo dute ostera ere unibertsitateko kaperan. Beheko Errota musika eskolak antolatutako saio horrek ordu eta erdi iraungo du, 18:30etik 20:00etara. Betiko moduan, horretarako sarrera debalde eta parte-hartzea libre da.

Patxi Monterok gidatutako dantzaldia irekia izango da eta Euskal Herriko eta, oro har, Europako dantza tradizional ludikoak dantzatzen ikasteko aukera izango dute: sokan, borobilean, bikoteka edo taldeka. Horren harira, Monterok aipatu du helburua dela askotariko adinetako herritarrek elkarrekin dantzan gozatzea.

Esan bezala, urtarrilean hasi ziren ekimen horrekin; orduan 70 lagun inguru elkartu ziren. Etzi egingo duten saioaren ondotik, martxoren 18rako, apirilaren 15erako eta maiatzaren 20rako daude hitzorduak zehaztuta; hileko hirugarren domeketan.

# 'El que siembra sangre', iazko liburuik mailegatuena

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udal Liburutegiak joan den urteko liburuirik mailegatuenak jakinarazi ditu. Helduen literaturari dagokionez, Arne Dahlen *El que siembre sangre* liburua izan zen eskatuena (18 bider). Bigarren, Kate Laurenen *Oscuros* (17 bider); hirugarren, Kenize Mouraden *En la ciudad de oro y plata* (16 bider) eta laugarren, Maria Dueñasen *El tiempo entre costuras* (16 bider).

Haur eta gazteen arloan, ostera, Jeff Kinneyren *Diario de Greg: un pringao total* (13 aldiz eskatuta), Tea Stiltonen *Misterio en Paris* (12), Pierre Brignauden *Lehen hiztegia: etxean* (12) eta Jeff Kinneyren *¡Esto es colmo!* (11) izan ziren mailegatuenak.

Bestalde, Udal Liburutegitik azaldu dute hiru tablet (bi Sony Tablet eta Ipad2 bat) jarri dituztela erabiltzaileen eskura. Liburutegi barruan bakarrik erabili ahal izango dira, eta maileguan jasotzeko liburutegiko txartela aurkeztu beharko da.



Antzuolako mutil gazteak iazko Aratusteetan sorgin-dantza egiten. | OINARIN DANTZA TALDEA

# 100 herritarretik gora dantzara aterako dira

## Domekan ospatuko dituzte antzuolarrek Aratusteak; herriko kaleak kolorez eta alaitasunez beteko dituzte

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aratuste-domekarako guztia prest dute herritarrek. Oinarin dantza taldeak azken entsegua bihar, zapatua, egingo du, 10:30ean, Torresoroan. Aitziber Goñi eta Nora Legorburu Oinarin taldeko kideekin izan gara domekako festaren gaineko xehetasunak jakin guran. "Antzuolan Aratusteak ospatzeko tradizioa betidanik izan da; sorgin-dantza, gutxi gorabehera, 1985ean egin zela lehen aldiz diote jasotako datuek. Oinarin dantza taldeak 1990ean berreskuratu zuen ohitura, eta sorgin-dantza berriro kalera atera". Indarra hartzen ari den eguna da domekakoa. "Herri mailan askoz jende gehiago mozorrotzen da eta eguna indartu egin da. Bazkaria egiten dute koadrilek; sekulako giroa egoten da herrian".

**Herritarren parte-hartzea**

75 haur inguru ikusiko ditugu dantzan. 6-7 urteko txikitxoek, gainera, lehen aldiz egingo dute dantza aurten. Sorgin-dantza, aldiz, 14 dantzarik egingo dute. Bigarren dantza taldean 24-30 herritar inguru arituko dira. Musikariei dagokienez, bi talde ibiliko dira dantzariei lagun eginez. "Igarri dugu inoiz dantza taldean ibili ez direnen koadrilek herrian pasatzen dutela eguna eta mozorrotu egiten direla. Herriko giroa bikaina izaten da", gaineratu digu Goñik.

**Egun osoko festa**

Hamarrak aldera irtengo dira kalera dantzariak: talde bat, sorgin-dantza eginez, Hartzarekin, Tximinoarekin eta Hezitzailearekin batera Kalegoi aldera joango da. Beste dantza taldea, berriz, Aratuste giroko dantzak eginez, Kalebarren aldera joango da. Hala, guztiek herriko kale guztietan dantza egin ostean, elkartu egingo dira salda beroa hartzeko eta sabela berotzeko. 12:30 aldera Herriko Plazan batuko dira, dantzari txikiekin batera. Talde bakoitzak dantza ezberdinak dantzatuko ditu. Festari bukaera borobila sorgin-dantzarekin emango diote, herritarren begiradapean.

**ESANAK**

**"Aratusteetako domeka indarra hartzen doa urtetik urtera**

AITZIBER GOÑI | OINARIN TALDEA

### Hartza, Tximinoa eta Hezitzailea

Sorgin-dantza umore puntu bat duen dantza da. Eta dantzariekin batera irteten diren hiru protagonista nagusiak Hartza, Tximinoa eta Hezitzailea dira. Kalejiran irteten dira dantzariekin, eta taldearen bueltan ibiliko dira. Pertsonaia bakoitzak bere istorio du. Hartza eta Hezitzailea Euskal Herriko beste herri batzuetan ere badaude; Tximinoa, aldiz, ez. Hemengo ikertzaileek ez dute Tximinoaren gaineko aztarnarik topatu. Esaten dute Tximinoak sasoi bateko Txerrena (deabrua) ordezkatu zuela gizaldi honen hasieran. Hartza, berriz, 1867an Laskurain baserri ondoan hil zuten Gipuzkoako azken hartza izan zela diote. Eta hartz horrek Aratusteetako pertsonaiarekin zerikusia duelakoan daude.

## Laskuraintxiki baserriko tximinia batek su hartu zuen martitzen goizean

M.A. | ANTZUOLA

Lizarraga auzoan aurkitzen den Laskuraintxiki baserrian sutea piztu zen martitzen, goizean, bederatziak inguruan. Suhiltzaileek Goienari esandakoaren arabera, tximinian piztu zen sua eta ondorioz, azpian zeukan logelara zabaldu ziren su-garrak. Zorionez, Laskuraintxiki baserrikoek garaiz eman zieten abisua suhiltzaileei eta sutea berehala kontrolatzea lortu zuten. Lau suhiltzaile kamioi bertaratu ziren Ertzaintzaren patruila batekin. Ordubetean, sua kontrolpean zuten eta tximinia ondo garbitzeko lanak egin zituzten bertan.

Xabier Biteri, bertako semea, lo zegoela, logelako tximiniatik kea irteten ari zela ohartu eta esnatu egin zela kontatu digu: "gaueko erreleboan egin dut lan eta logelan nengoen une horretan. Keak esnatu nau; eskerrak, bestela teilaturainoko sutea izango genuen".




Laskuraintxiki baserriko tximinian sua piztu zen martitzenean | MAIDER ARREGI

## Zaintza zerbitzuko lan-poltsa osatu gura dute ordezkapenak eta udako zerbitzua eskaintzeko

Herri Eskolako zaintza zerbitzua zabaltzeko asmoz, deialdia egin du Pausokak. Hala, ordezkapenak ez ezik, udako zerbitzurako ere langile bat gura dute. Euskalduna izatea derrigorrezkoa da; baloratuko da hezkuntza arloko ikasketak izatea eta antzuolarra izatea. Interesa dutenek *pausokaantzuola@gmail.com* helbidera idatzi behar dute; martxoaren 31 da azken eguna.

## Aurtengo aurrekontuak aurkeztuko dizkie Udalak herritarrei eguenean Torresoroan, 19:00etan

Helburu nagusia da Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa erraztea. Hala, aurrekontuak itxi aurretik horiek nola egin diren azalduko dute, herriarekin kontsultatzeko asmoz; baita herritarren behar eta aportazioen arabera moldatu ere. Aipatzekoa da 2012an barrena 2013ko aurrekontuak egiteko parte-hartze prozesua abiaraziko dutela. Izan ere, Udalak herritarren parte-hartze zuzena bultzatu nahi du, eta 2013ko aurrekontuak horren arabera egin.

## 'Eskubide zibil eta politikoen alde', herritarrei dei egiten die 'Ez dot moztuko bizarra' ekimenak

"Betikoa ez den jendea etortzeko ahalegin berezia egin gura dugu", azpimarratu gura izan dute *Ez dot moztuko bizarra* ekimeneko kideek. Aurkezpen afaria hilaren 24rako, barikurako, egin dute. Izena emateko epea hilaren 19ra arte dago zabalik, Arin tabernan dagoen zerrendan. Antolatzaileek gosea eta umorea eramatea eskatu dute.

## OHARRAK

**FUTBOLA**

Bigarren postuari eusten dio Antzuolak, liderrarengandik hiru puntura. Asteburuan Aratusteak direla eta, ez dago partidurik.

**LARRUZKO PALA**

Gaur, Gazteleku eta Olalde, Andoaingo Arraten, 20:15ean.

**KZGUNEA**

Eguenean KZguneko tutorearen bisita izango da: 09:00-13:00.

ANTZUOLA
Apainketak eta solamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

**Andres Urrutia** | Euskaltzainburua eta foru-zuzenbidean aditua

# "Lege hori baduzue, zuena da, eta ez ezazue galdu"

Euskal foru-zuzenbideak Aramaion duen eraginaz jardungo du gaur Urrutiak

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Aramaioarren berezko legea azaltzera etorriko da gaur Andres Urrutia (Bilbo, 1954) euskaltzainburua. Kultura etxean 18:00etan hasiko den hitzaldiaren aurrerapena egin digu, galderei gustu handiz erantzunda.

**Foru-zuzenbidea, askori arrotza zaien terminoa.**

Ez jakin arren edota ahaztu egin dugun arren, besteak beste gure herentzietan eta senar-emazteen arteko harremanetan euskaldunok berezko legeak ditugu, historia luzean zehar ondu direnak. Horietako batzuk egun indarrean daude. Izan ere, askok esango dute foruak desagertu zirela. Hala izan zen arlo batzuetan, baina beste batzuetan indarrean daude egun; esaterako, tronkalitatea, herentziak eta andre-gizonen arteko harremanak; horiek foruen bitartez arautzen dira.

Horrela da Aramaion, Bizkaiko foru-zuzenbidea aplikatzen delako. Aramaion, Araban beste inon gertatzen ez den moduan –Laudio izan liteke salbuespena–, euskara eta foru-zuzenbidea elkarloturik eta bizirik daude.



Andres Urrutia, orain gutxi ateratako argazkian. | GOIENA

**"Historiak erakutsi digu gure zaharren jakinduriak egun ere balio duela"**

**Nola azaldu kontzeptu juridiko horiek modu erakargarrian?**

Lehenik eta behin, foru-zuzenbidearen barruan zer dagoen azalduko dut, baita foru-zuzenbide hori Aramaioren nortasunean errotuta dagoela ere, euskara errotuta dagoen moduan. Hain zuzen, errotze horrek eguneroko bizitzan ondorio batzuk ditu. Adibidez: herentzien kasuan Gasteizen ezin da *alkarpoderoso* bat eskatu; Aramaion, berriz, bai. Zer esan gura duen horrek? Senarraren eta emaztearen artean testamentuaren bidez ahalik eta gehien eman diezaioketela elkarri. Hori eta tronkalitatea, bide-zorra edota hilburukoa moduko terminoak erabiltzerakoan batek baino gehiagok jakingo du zertaz ari naizen. Kontzeptu horiek aramaioarren historian errotuta daude.

Gaia gazteendako erakargarria izan dadin Internet bidezko kontsultak egiteko loturak emango ditut. Izan ere, badakigu halako gai juridikoak ez direla errazak eta sinpleak izaten, baina herritarrak gaira hurbiltzeko ahalegina egingo dugu.

**Atzera begira jarriko zara orduan, historia hizpide.**

Ez da asmoa historiara begira jartzea. Askok esango dute foru kontuak aspaldikoak direla; bada, ez, bizirik daude eta egunerokotasunean aplikagarriak dira. Ona ala txarra den? Historiak honakoa erakutsi digu: gure zaharren jakinduriak egun zerbaiterako balio duela. Hori horrela dela frogatzen duten zenbait adibide jarriko ditut.

Foru-zuzenbidea eta euskara lotuta daude. Bilbon, adibidez, bertoko euskara galdu denean galdu du foru-zuzenbidea. Bada, Aramaiok biak gorde ditu eta hori ezagutzera eman zehar zaie herritarrei. Jendeari esan behar zaio euskaraz gain forua ere badutela eta euren gorabeherak konpontzeko orduan modu hori ere eskura dutela.

Historian zehar mantendu dugun gure zuzenbidea da, euskaldunok sortua. Ez da kanpotik etorri, eta atzean herri baten nortasuna dago. Lege hori baduzue, zuena da, eta ahal dela behintzat ez zenukete galdu behar.

## Patxi Uribarren: ezin hutsik egin

**18:00etan hasiko da ekitaldia, kultura etxean. Bizente Goikoetxea abesbatza arduratuko da ekitaldiari hasiera emateaz, eta gero, Ramon Ajuria alkateak aurkezpen txiki bat egingo du. Ajuriaren ostean, Patxi Uribarren Aramaion jaiotako euskaltzainak hartuko du hitza, foru-zuzenbidearen jatorria eta Aramaion historikoki izan duen garrantzia azaltzeko. Urrutia, berriz, egun duen eraginaz arituko da berbetan. Azkenik, galderak egiteko tartea egongo da.**




Aramaioko Marixeka eta Urkabustaizko Izarra taldeen arteko kanporaketa, joan den domekan. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

# Aramaiokoen artean dago Zuiako ligako talde onena

**J.B.** | ARAMAIO

Aurrera doa Arabako koadrila arteko bertso txapelketa. Bat-bateko modalitatean, joan den asteburuan Aramaioko bi taldeek aurrera egin zuten kanporaketetan, Zuiako ligaren barruan: Aramaioko Marixeka eta Aramaioko Izarrak taldeak Urkabustaizko Izarra taldearen aurrean gailendu ziren. Bi saioetan giro aparta izan zen nagusi, batez ere Izarrako Frontoia jatetxeko saioan. Aramaioko Izarrak taldeko eta Arabako txapeldun Manex Agirrek ederto ibili zirela azaldu digu: "Sekulako giroa egon zen afarian eta saioa ere oso animatua izan zen". Hala, Zuiako ligako talde onena eta, beraz, finalerdietara pasako dena datorren otsailaren 25ean erabakiko da, Aramaioko bi taldeen artean.

# Memoria tailerreko izen-ematea, otsailaren 22ra arte

**J.B.** | ARAMAIO

Aramaioko Udalak antolatu gura duen memoria tailerrak ez du esperotako harrerarik izan, oraingoz. Eguaztena zen izena emateko azken eguna, baina Udalak epea luzatzea erabaki du.

Izan ere, Leire Espinosa Zuiako eta Aramaioko gizarte langilearen esanetan, bost pertsonak bakarrik eman dute izena: "Otsailaren 22ra luzatuko dugu epea, eta orduan ere ez bada jende gehiago animatzen, tailerra bertan behera utziko dugu". Astebete gehiago dago izena emateko, beraz.

**Lurgorri eguneko zentroan**

Tailerrak aurrera egiten badu, Lurgorri Eguneko zentroan lanean diharduen KL. kooperatibak emango du, eguneko zentroan bertan. Oroimena, arreta, oreka eta gorputz jarrera landuko dira, besteak beste. Arlo kognitiboan zentratuko dira, baina baita arlo fisikoan ere. Tailerra emango duen lantaldeak prestatutako txostenean jasotzen denez, ariketa fisikorik ezak osasunean ondorio txarrak izan ditzake. Bada, hori ekiditeko taldean ariketa ezberdinak egingo dituzte;- besteak beste, luzatzeak eta gihar rak indartzeko eta koordinazioa hobetzeko ariketak.

# Egun osoko egitaraua eta kolore uholdea biharko

San Martin eskolako jantokian egingo den herri bazkarian 80 bat lagun batuko dira (14:30)

**J.B.** | ARAMAIO

Pasa dira urte batzuk zapatuko Aratusteetan Gazte Asanbladak eta Udalak egun osorako egitaraua prestatzen dutenetik. Honela azaldu digu Jone Arriolabengoak, Asanbladako kideak: "Zapatuan ezer gutxi egoten zen, eta horregatik gazteok erabaki genuen zerbait egin behar zela egun horretan herria girotzeko. Hala hasi ginen egun osorako egitaraua antolatzen, herri bazkari eta guzti". Bazkarian 80 bat espero dira bihar, San Martin eskolako jantokian, eta menua honakoa izango da, Arriolabengoak aurreratu duenez: entsalada, okela gisatua eta tarta.

**Lehiaketetarako izen-ematea**

Eta noski, haur eta gaztetxoendako mozorro lehiaketak ez du hutsik egingo. Udalak antolatzen du, Itur-Zuri emakume elkartearen eta Alaiak erretiratu elkartearen laguntzaz. Gaur oraindik izena emateko aukera dago, liburutegian. Taldean parte hartzeko lau kideko taldea osatu behar da, gutxienez. Haurrendako eta 14 urtetik gorakoendako sariak honakoak dira: 36 euro bigarren taldearendako eta 90 euro talde irabazlearendako. Bestalde, originaltasuna ere baloratuko da, banaka zein taldeka, eta bigarrenak 30 euro irabaziko ditu. Mozorro irabazleak, berriz, 48 euro.

San Martin eskolako haurrek, bestalde, martitzen arratsaldean ospatuko dituzte Aratusteak.

**EGITARAUA**

**ZAPATUA**

**12:00** Poteoa plazan.

**14:30** Herri bazkaria.

**17:00** Kalejira frontoitik trikitilarien laguntzaz.

**18:00** Mozorro lehiaketa, txokolate beroa eta umeendako dantzaldia.

**18:30** Txokolate beroa.

**19:00** Kale animazioa.

ELGETA



Elgetarrak Ferixa Nagusiko jaietan mozorrotu ziren azken aldiz. | JULIO CALLEJA

# Nobedadeak dakartza aurten Aratuste-barikuak

Haurrendako ekintza sorta nabarmentzen da

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aurten ere Herri Eskolako neska-mutikoek emango diete hasiera Elgetako Aratusteei. Lehenengo nobedadea da eskolan gai libre dutela aurten; hau da, nork bere gustuko mozorroa aukeratuko duela. Hala, eskolako haurren kalejiraren ostean jokoak egingo dituzte plazan, eta ezohiko dantza saioa.

Kalejira 14:45ean hasiko dute. Eguraldi ona bada Herriko Plazan amaituko dute; bestela, Udal Pilotalekuan. "Haur jokoak egingo ditugu", adierazi du eskolako zuzendari Emma Igartuak. "Soka-tira, zaku lasterketa, txirikil bilketa... dantza bat ere egingo dugu guztiok batera". Amaitutakoan, guraso elkarteak urteroko txokolate-jana egingo du.

**Kaxkajua mozorrotzea**

Kultura Sailetik ere zenbait nobedade datoz aurten. Kaxkajua mozorrotuko dute –sudur luzeko panpina–, eta kalejira egingo dute horren ostean. Haur jolasak, buruhandiak eta merienda ere iragarri ditu Udalak. Eguraldiaren arabera Herriko Plazan edo frontoian egingo dira ekitaldiok. 19:30ean, berriz, Ane Meabe ipuin kontalariak Udal Liburutegian egingo duen saiora gonbidatu dituzte herriko haur guztiak.

**Dantzaldia gaztetxean**

Mozorro gauerako herri afaria iragarri du gaztetxeak Ozkarbi elkartean, eta parrandarako, azkenean, erromeria bakarra izango da herrian: Ekaitza taldea izango da gaztetxean. Espaloian iragarrita zegoen Jorghino orkestraren kontzertua bertan behera gelditu da.

### EGITARAUA: OTSAILAK 17

**14:45** Eskolako umeen desfilea. Herri Eskolatik plazara edo frontoira, eguraldiaren arabera.

**15:00** Haur jokoak eta dantza (eskolak antolatuta).

**16:30** Txokolate–jana Maala guraso elkartearen eskutik.

**17:00** Kaxkajua mozorrotzea eta mozorroen kalejira. (Udala).

**17:30** Haur jokoak (Udala).

**18:45** Buruhandiak (Udala).

**19:00** Merienda, Udalaren eskutik.

**19:30** Ane Meaberen *Bazan kalabazan* ipuin saioa liburutegian (Udala).

**21:00** Herri afaria Ozkarbi elkartean (gaztetxea).

**23:00** Ekaitza erromeria taldea gaztetxean. Sarrera: 3 euro.

### FRONTENIS TXAPELKETA

| AURREKO JARDUNALDIKO EMAITZAK | |
|---|---|
| Iban Retolaza-Xabier Ubera / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna | 25-10 |
| Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga | 25-14 |
| Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi | 25-08 |
| Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / June Dosuna-Xanti Dosuna | 25-10 |
| Andoni Elortza-Eneko Maguregi / Adrian Gorostiza-Asier Osoro | 25-17 |
| Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Jon Irazabal-Ibon Untzetabarrenetxea | 25-08 |

**PARTIDUAK BARIKUAN, HILAK 17, 20:00ETAN**

Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Iban Retolaza-Xabier Ubera

Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Andoni Elortza-Eneko Maguregi

**PARTIDUAK ZAPATUAN, HILAK 18, 16:30EAN**

Oskar Sarasua-Xanti Dosuna / Jon Irazabal-Asier Untzetabarrenetxea

**PARTIDUAK DOMEKAN, HILAK 19, 12:30EAN**

Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / Idoia Serna-Asier Osoro

June Dosuna-Xanti Dosuna / Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga



L.Z.

## Kantsatzeke, bazkideak egiten

Eguaztenean hasi ziren Kantsatzeke mendi taldeko kideak bazkideak egiten. Beste bi hitzordu ipini dituzte horretarako: hilaren 22a eta 29a, 19:00etatik 20:00etara, kultura etxean. Hilaren 25ean, zapatua, egingo duten irteeran izena emateko epea ere zabalik dute.

### KZguneko tutorea Elgetan izango da astelehen goizean

09:00etatik 13:00etara kultura etxeko informatika gelan izango da KZguneko dinamizatzailea hilaren 20an, astelehena. Hainbat ikastaro egiteko aukera egongo da, doan; Delicious, Audacity, Draw, Twitter, PayPal, Google Docs, Megaupload, Softonic, eta abar.

### Martitzenean, hilak 21, txokolate-jana eta bingoa erretiratuendako

Xalbador erretiratuen elkarteak Aratusteetako txokolate-jana antolatu du martitzenerako, hilak 21. Ozkarbi elkartean egin dute hitzordua, 17:00etatik aurrera, eta herriko erretiratu guztiak daude bertan parte hartzera gonbidatuta. Arratsalde-pasa egiteko bingo saioa ere iragarri dute merienda aurretik.

### Ludoteka eta gazteleku zerbitzua gurasoekin aztergai

Udalak hilaren 22an, eguaztena, egingo den batzar batera deitu ditu Elgetako gurasoak. Ludoteka eta gazteleku zerbitzuen etorkizuna aztertuko dute 19:00etan udaletxean egingo den batzarrean. Zerbitzuaren finantzazioa eta etorkizuna izango dute aztergai, besteak beste.

## Bular minbiziari buruzko hitzaldia hilaren 29an Kattalin elkarteko kideen eskutik

L.Z. | ELGETA

Bularreko minbiziaren diagnostiko goiztiarraren inguruan ariko dira hilaren 29an, eguaztena, Kattalin elkarteko kideak kafe antzokian. Prebentzio gisa nork bere burua nola miatu ere azalduko dute. 18:00etan hasiko da hitzaldia eta Udaleko Gizarte Ongizate Sailak gonbidapena bidaliko die 50-69 urte bitarteko emakumeei; 122 lagun dira.

**Kartel lehiaketa**

Bestalde, Martxoaren 8ko kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea hilaren 21ean amaitzen da. Bideberri mankomunitateak erakusketa egingo du Espaloian martxoaren 8tik 15era.

LEINTZ GATZAGA

# Herri afariaz gain bazkaria ere bai aurten, Inauteriak ospatzeko

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Udala, Gurel guraso elkartea eta herritarrak ibili dira elkarlanean Inauterietako egitaraua antolatzen, eta herri bazkaria eta afaria, biak egingo dituzte aurten lehenengoz. Hala, "jai giroa egun osoan" izango dela herrian diote, eta "ume eta gaztetxoek ere gehiago goza dezaketela".

**Bazkaltzeko babarrun-jana**

Azken urteotan, iluntze partean hasi izan dituzte Inauterietako ospakizunak Gatzagan, baina aurten, eguna argitu orduko izango da jai usaina. Goizak aurrera egin ahala kaleak mozorroz betetzen joango dira eta bazkalordurako guztiak, ume eta heldu, elkartuko dira Soran etxean. Babarrun-jana izango dute bertan, eta orduan sartuko dira bete-betean Inauterietan.

Arratsalde partea girotzeko musika izango da Garro jauregian dagoen Toki Eder elkartean, eta umeak nahiz helduak joan ahal izango dira. Eta iluntzerako giro bikaina izango da herriko bazterretan. Afaria ere Soran etxean egingo dute, eta afalostea girotzeko ere izango da musika bertan. Hala, goizaldera arte luzatu ahal izango dute jaia gura dutenek.

### Beiraren birziklapenaren gaineko karpa gaur

Beira birziklatzeko zein prozesu jarraitzen den, zein onura dakartzan birziklatzeak, edukiontzi berdeetan zer sartu behar den eta beste hainbat kontu erakutsiko dizkiete herritarrei gaur, egubakoitza, San Migel plazan jarriko duten karpan (18:00-20:00). Mankomunitateak abian jarritako ekimena da.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

TXAPELKETA

# Liburuei atsedena, kirolean izerditzeko

## Martitzenean Arrasaten jokatutako unibertsitateen arteko txapelketak ikasle mordoa batu zituen

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Hiru urtean behin Mondragon Unibertsitateari egokitzen zaio Euskadiko unibertsitate txapelketa antolatzea. Eta, aitzakia horrekin, ikasle mordoa batu zen martitzenean Arrasaten, Musakolako eta Iturripeko kirol instalazioetan. Egun batez ikasleek atsedena eman zieten liburuei, kirolean jarduteko. Hala, MUkoek ikasketetan kirol jardunean erakutsitako abilezia bera badute, ohorezko hainbat matrikula egongo dira aurten, seguru.



Zazpiko futbol txapelketan MUkoak gailendu ziren finalean, baina Espainiakoan ez dago modalitate hori. | X.U.

**Neskak, Espainiakora**

Kirol modalitate guztietatik, hamaikako futbolean, emakumezkoen taldeak lortu zuen Espainiako txapelketarako txartela. Paradoxa ona, eurak izan ziren izerdirik bota ez zuten bakarrak, kontrarioa ez zelako lehiara azaldu. Zazpiko futbolean, mutilek finala irabazi zuten, baina Espainiakoan ez dago modalitate hori. Frontenisik ere ez dago, eta hor ere MUkoak gailendu ziren. Hala, Frantzia aldean egingo duten txapelketa batera gonbidatuko dituzte. Areto futbolean, MUko neskek errepaso ona eman zieten Deustukoei, baina EHUkoek gol bateko aldeagatik irabazi zieten; gizonezkoen hiruko torneoan tentsio handia egon zen, jokoa bero-bero, eta harnailetan jende mordoa.



Frontenisean MUko Jon Iraola eta Xanti Iantzi izan ziren onenak. | X.U.




MUko ordezkariak Patxi Mutiloarekin eta irabazleetako batekin. | X.U.



Tenisean EHUko ikasleak izan ziren onenak. | X.U.



Areto futbolean MUko jokalariek erraz irabazi zioten Deusturi. | X.U.



X.U.

**GORKA MARTINEZ DE LAHIDALGA**
MUKO ORDEZKARIA

### "Kirol jarduera gehienak gune berean jokatzen ditugu; eskertu egiten da hori"

Norgehiagokak zuzentzen federazioko ordezkariak ibili baziren ere, MUko kirol saileko lagunak buru-belarri ibili ziren antolatzaile lanetan.

**Eguraldiak bizkarra eman dizue gaur ere.**

Halako txapelketa bat otsailean antolatuz gero gerta daitekeen zerbait da. MUko fakultateen arteko txapelketan partidu asko bertan behera utzi behar izan genituen elurragatik. Gaur partidu guztiak jokatuko dituzte, nahiz eta ikasle batzuk busti egingo diren.

**Instalazio aldetik, zer moduz moldatzen zarete?**

Zortea dugu, beste unibertsitateetan kirolgune edo herri ezberdinetan jokatzen direlako partiduak, eta horrek hoztu egiten du giroa. Hemen kirol jarduera ia guztiak Mojategin joka ditzakegu, eta giro polita sortzen da.

**Txapelketa hauetan ze maila dute MUko ikasleek?**

Unibertsitate txikia gara, eta hor ere asko dago lantzeko, baina esango nuke bertako ikasleen maila ona dela kirolean. Ikusteko dago gaur ze emaitza lortzen ditugun.

PILOTA

# Elgetako lau t'erdikoan 126 pilotarik hartuko dute esku

**X.U.** | ARRASATE

Datorren hilean hasiko dute Elgetako lau t'erdiko pilota txapelketa (ETB Kantxa izena berreskuratuko du), eta, guztira, 23 urtez azpiko eta kadete mailako 126 pilotari batuko ditu torneoak. Kopuru horretatik 66k nagusien kategorian jokatuko dute eta 60 pilotari kadete mailakoak izango dira. Hala, Elgetako txapelketak Euskal Herri osoko eta Errioxako pilotariak batuko ditu. Oskarbi taldeko ordezkariek dagoeneko itxi dute izen-ematea, eta aurreikusten dute martxoaren 2an hasiko dituztela lehenengo kanporaketak.

**Aretxabaletan eta Antzuolan**

Bestalde, Gipuzkoako Federazioak antolatzen dituen pilota partiduei dagokienez, oraingo asteburuan Aretxabaletako eta Antzuolako pilotariek jokatuko dute etxean. Aretxabaletan gaur, egubakoitza, jokatuko dute alebinek, 19:30ean hasita. Antzuolan, berriz, zapatu arratsaldean sei partidu jokatuko dituzte, 16:30ean hasita. Partidu horiek, baina, Bergarako pilotarienak izango dira. Alebinetatik hasi eta gazte mailarainoko partiduak jokatuko dituzte.



Mendizabal, Elgetako 2010eko edizioko finalerdietako partiduan. | J.A.


MOZORRO
FESTA!
2012
ARATUSTEAK
Amets • Bengoa • Branka • Itzala • Kimetz
Lorategi • Okoretegi • Rumba • Txoko II



Iazko derbian, Agorrosinen. | JOSETXO ARANTZABAL

DKS SARIAK

# Ford Mugarri talde 'zapaltzailearen' kontrako derbia Bergarak

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Askartza kategoria honetako oilarretako bat izan da urteetan. Baina joan den astean, denbora batez ahaztuko ez duten errepasoa jaso zuten. Leioakoek 12 goleko errentagatik galdu zuten etxean, Ford Mugarri *zapaltzailearen* kontra. Horrek min egiten du. Min handia. Lehen zatian bizkaitarrek zazpi gol baino ez zizkioten egin Arrasateko taldeari: "Gol kopuru hori kadete mailan ikusten da, ez Euskadiko txapelketan", dio zapatuan Arrasate aurrean izango duen Bergarako entrenatzaileak.

Josetxo Muniategik ondo daki zer-nolako taldearen bisita izango duten Agorrosinen (17:00). Alegia, kategoria txiki geratu zaion taldearen bisita; izan ere, 19 partidutatik 18 irabazteak –eta bestea berdintzea– ez du beste izenik.

Ane Herreroren taldeak erregistro guztiak hautsi behar ditu: "Taldea bikain indartu dute, Arrate taldetik etorri diren jokalariak, Aitor Txabarriren itzulera... Gabon aldean ez zeuden oso gustura, baina orduan egindako prestakuntza berezia hasi da emaitzak ematen, eta oso ondo jokatzen dabiltza". Kontrarioaren indarra onartuta, Bergarakoek motibazioan ez dute parekorik izango: "Sekulako gogoa dugu euren kontra jokatzeko. Oso irregular gabiltza, oso ondo jokatzetik txarto jokatzera pasatzen gara segituan, eta badakigu %120 eman beharko dugula; baina, ez dugu ezer galtzeko".

DUATLOIA

## Oñatiko duatloiko izen-ematea zabalik dago

Izena *www.triatloi.org* atarian eman behar da martxoaren 5a baino lehen. Oñati Triatloi Taldeak antolatzen duen proba 21. Oñatiko duatloia izateaz gain, distantzia motzeko Gipuzkoako txapelketa eta Euskal-Nafar zirkuituirako puntuagarria izango da. Duatloia martxoaren 10ean jokatuko dute eta 450 parte-hartzaile onartuko dituzte. Prezioan nobedadeak izango dira, merkatu egin dituzte-eta. Iaz 30 euro izan ziren, eta aurten 23 euro izango dira.

TXIRRINDULARITZA

## Markel Irizarrek Andaluziako Itzulia hasiko du domekan

Radioshack-Trek taldeko txirrindulariak Andaluziako Itzulia korrituko du domekan hasita. Gainera, Oñatikoak 1 dortsala jantziko du, iazko irabazlea da-eta. Irizar Qatarretik itzuli berri da (46. postua); Mallorcan parte hartu behar zuenean gaixotu, eta atseden hartu ostean abiatu zen Qatarrera. Domekan Cadizen hasiko da Andaluziako Itzulia, San Fernandon egingo duten sei kilometroko erlojupeko saioan. Beste lau etapa izango ditu itzuliak.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**LEHENENGO MAILA**
Granada-Reala
Domeka. 12:00. Los Carmenes.

**EMAKUM. BIG. MAILA**
Eibar-Mondra
Zapatua. 18:00. Unbe.

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**
Anaitasuna-Aretxabaleta
apatua. 18:15. San Juan.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Mondra-Elgoibar
Zapatua. 12:15. Mojategi.
Aretxabaleta-Behobia
Zapatua. 18:15. Ibarra.
Anaitasuna-Aloña Mendi
Zapatua. 16:15. Txerloia.
Trintxerpe-Bergara
Zapatua. 15:45. Pasai Antxo.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Aretxabaleta-Mutriku
Zapatua. 15:45. Ibarra.
Amaikak Bat-Antzuola
Gaur. 19:00. Errotazar.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Aretxabaleta UDA- Mutriku
Zapatua.15:45. Ibarra.
Amaikak Bat-Antzuola
Gaur. 19:00. Errotazar.

**LEHEN ERREGIONALA, IGOERA**
Oiartzun B-Mondra B
Zapatua.15:30. Oiartzun.

**ERREGIONALA, KOPA**
Soraluze-Aretxabaleta C
Zapatua. 17:00. Ezozia.

**GAZTEAK, KOPA**
Eibartarrak-Arizmendi
Zapatua. 16:00. Unbe.
Bergara B-Eibartarrak B
Zapatua. 15:30. Ipintza.
Aloña Mendi B-Aretxabaleta B
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

**KADETEEN OHOREZKO M.**
Beasain-Aretxabaleta UDA
Zapatua. 15:30. Beasain.
Bergara-Amaikak Bat
Zapatua. 17:30. Ipintza.

**KADETEEN IGOERA M.**
Astigarraga-Arrasate
Zapatua. 11:00. Astigarraga.

**KADETEAK, KOPA**
Arizmendi-Aloña Mendi
Zapatua. 11:45. Almen.
Arrasate-Soraluze
Zapatua. 10:00. Mojategi.
Eibartarrak-Antzuola
Zapatua. 11:00. Unbe.
AretxabaletaB-BergaraB
Zapatua. 12:00. Ibarra.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Tolargi-Eskoriatza
Zapatua. 16:30. Ibarra.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Soraluce BKE-Ford Mugarri
Zapatua. 17:00. Labegaraieta.

**FEDERAZIO SARIA, GAZTEAK**
Tekniker Eibar-M. Lingua Aloña
Gaur. 19:15. Eibar.
Leizaran-Bergara
Gaur. 20:30. Andoain.

**FORU ALDUNDIKO TORNEOA, KADETE MUTILAK**
Ereintza-Talleres Chapime Arra.
Zapatua. 10:00. Errenteria.

**FORU ALDUNDIKO TORNEOA, KADETE NESKAK**
Aloña Mendi A-Elgoibar
Gaur. 19:45. Zubikoa.

**SASKIBALOIA**

**EBA**
SAB Torrelavega-Natra Oñati
Zapatua. 18:30. Valladolid.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Oncineda-MU
Domeka. 18:00. Lizarra.

**MAILA AUTONOMIKOA**
MU-Ekialde A
Zapatua.11:00. Iturripe.

**KADETE GIZONEZKOAK**
Ayma-MU A
Zapatua. 12:15. Urretxu.

**TXIRRINDULARITZA**

**LOKATZA AURKZPENA**
Zapatua. 12:30. Ibargarai

**PILOTA**

**ARETXABALETA**
Gaur, egubakoitza, 19:30
Aretxabaleta-Ilunpe.

**ANTZUOLA**
Zapatua, 16:30ean hasita:
Bergara-Eibar
Bergara2-Intxurre1
Bergara1-Intxurre3
Bergara-Goierri
Bergara-Hernani
Bergara-Antigua


Aukerazko **IBILGAILUAK** salgai

MUGARRI
Araba etorbidea, z/g
ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es



14.500€-tik aurrera
FORD FOCUS
2011 | Diesela | 0 Km

• **Ford Mondeo 1.8 TDCI** 19.800 €
2011 | Diesela | Zilarra | 0 Km

• **Ford Focus TDCI 115 ZP 6 abiadura** 17.500 €
2011 | Diesela | Beltza | 0 Km.

• **VW Passat Avant 4x4 Highline 2000 TDI 140 ZP** 14.800 €
2007 | Diesela | Beltza | 110.000 Km.

• **Ford Focus TDCI 140 ZP** 19.800 €
2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.

• **Ford Focus TDCI 110 ZP** 10.500 €
2008 | Diesela | Beltza | 49.000 Km

• **Ford Kuga TDCI- 4W 140 ZP** 24.400 €
2010 | Diesela | Urdina | 16.000 Km

• **Mitsubishi Montero TDI 115 ZP** 13.800 €
2006 | Diesela | Zilarra | 102.000 Km

• **Mitsubishi Montero TDI 115 ZP** 14.800 €
2007 | Diesela | Beltza | 128.000 Km

• **Nissan Pathfinder X5E TDi 174 ZP** 14.500 €
2005 | Diesela | Grisa | 130.000 Km

• **Toyota Land Cruiser UX 170 ZP** 18.800 €
2006 | Diesela | Zilarra | 120.000 Km

CITROËN
Debagoieneko
Kontzesionario ofiziala
CHAPIME
San Andres auzoa 5 ARRASATE
Tel.: 943 79 45 22



14.500 €
Berlingo Com. 1.6HDI 110 XTR Plus
2010 | Diesela | Txuria | 41.820 Km

• **Citroen Berlingo Com. 1.6HDI 90 SXMult.** 13.700 €
2011 | Diesela | Gris argia | 12.991 km

• **Citroen Berlingo Com. Multivl. 1.9 D SX** 2.500 €
2000 | Diesela | Gorri argia | 186.000 km

• **Citroen C4 1.6 VTI Cool** 8.200 €
2009 | Berunik gabeko gasolina | Txuria | 33.150 km

• **Citroen C4 1.6HDI Cool 110 FAP** 11.000 €
2010 | Diesela | Beltza | 47.634 km

• **Citroen C4 1.6HDI Cool CMP 110** 11.500 €
2010 | Diesela | Gorri iluna | 36.200 km

• **Citroen C4 1.6HDI Cool 90** 10.200 €
2010 | Diesela | Gris argia | 47.000 km

• **Citroen DS4 1.6e-HDi Design STT** 21.200 €
2011 | Diesela | Urdin iluna | 2000 Km

• **Citroen C8 2.0 HDI Premier 138** 21.500 €
2010 | Diesela | Gris iluna | 39.950 km

• **Citroen C8 20HDi Seduction** 22.500 €
2011 | Diesela | Gris iluna | 17.380 km

Iragarkia jartzeko: **943 25 05 05**


Zazpi ahizparen gai den oihala
ebakirikan erditik,
alde batera hiru soineko,
utzirikan lau bestetik;
guraiziakin berezi arren
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oihal batetik.

Oihaltzat hartu zagun Euskadi
guraizitzat Bidasoa,
hibai koxkor bat besterik ez da
hutsa... balitz itsasoa.
Elkarren hurbil daude zazpiak,
muga daitzen da Pausoa.
Zergatik izan ez behar degu
famili bakar osoa?

Arbola baten zainetatikan
sortzen diran landareak
bezala gara Bidasoaren
bi aldetako jendeak;
berdinak dira gure jatorri,
ohitura eta legeak,
ama euskarak magal berean
hazitako senideak.

EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati, Iturriotz,
Mondra taberna, Muxibar, Osorik eta Taupa.
ARRASATEKO
ARATUSTEAK 2012

# 'Wilt': umore eta to

'Wilt; panpina puzgarriaren hilketa' lana aurkeztuko du Ado

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Tom Sharpen elaberrian oinarrituta *Wilt; panpina puzgarriaren hilketa* antzezlana ekarriko du gurera Ados antzerki taldeak. Urtarrilaren 15ean estreinatu zuten antzezlana Errenterian. Gurean, Oñatin eta Arrasaten eskainiko dute. Gaur, egubakoitza, Oñatiko Santa Ana antzokian izango da, 22:30ean; eta etzi, domeka, Arrasateko Amaia antzokian, 19:30ean.

**Bost aktore, 20 pertsonaia**

Jose Antonio Vitoriak eta Gabi Losadak egin dute eleberriaren egokitzapena. Taula gainean bost aktore ikusiko ditugu, baina pertsonaiak makina bat izango dira. Mikel Laskurainek Wilten papera egingo du eta Isidoro Fernandezek polizia-inspektorearena; gainerako hiru aktoreek, ostera, pertsonaia bat baino gehiago antzeztuko dituzte. Modu horretan gizartean dauden mailak erakutsiko dituzte.

Antzezlanak Sharpen eleberria du oinarri: komedia dibertigarria da, oso elementu ezberdinak nahasten dituena, literatura irakaslea, desagertutako emaztea, hormigoian lurperatutako panpina, polizia ikerketa zoroa eta beste egoera surrealista batzuk istorio bizi batean korapilatzen dituena. Henry Wilt, batez ere, itxaropena galdutako gizona da. Arte eta Lanbide Eskola batean dihardu literatura irakasle, batere interesik ez duten igeltsero, iturgin edo argiketari gaiekin. Emaztearekin ere ez da zoriontsu. Aspaldi ez du Eva jasaten, emazte heldugabe eta txepela. Baina Wiltek ihesbidea du: egunero, txakurra paseatu bitartean, emaztea hiltzeko eta gorpua desagerrarazteko moduak pentsatzen ditu. "Halako batean, panpina puzgarri bat hartzen du eta panpinarekin proba egitea pentsatzen du. Ileordea jantzen dio eta zulo batera botatzen du, baina halako zorte txarra du, ikusi egiten dute. Kasualitatez, andrea haserretu egin da eta etxetik alde egin du nora joan den esan barik. Orduan, poliziak uste du andrea benetan hil duela eta gizona gezurretan dabilela. Hortaz, gezurrak asmatu behar ditu denbora egin dezan andrea agertu arte", azaldu du Mikel Laskurain aktore bergararrak. "Gizajoari bizitza aldrebestu egiten zaio", gaineratu du Laskurainek. Wilt nolakoa den eta ea hura ulertzen duen galdetuta, Laskurainek argi dauka: "Ez, nekeza da ulertzea gizon hau, zergatik ez duen aldaketa bat egiten bere bizitzan".

Antzezlanaren oinarrian gizarteari egiten zaion kritika latza dago. "Kritika egiten dio sistema eskolarrari, poliziari, elkarbizitzari...", dio Laskurainek. Guztiei eta denari egingo die barre, ezerk ez dio bere ikuspegi ironikoari ihes egingo: familia, heziketa, lesbianak, aberatsak, behartsuak, ikasleak, polizia,



eliza, irakasleak, etxeko andreak, kontsumismoa, modak, eskuineko pertsonak, ezkertiarrak, ideologia gabekoak, haragi opilak... Sharp pertsonaia arruntetatik abiatzen da errealitatea bihurritzeko.

**Erritmo biziko ikuskizuna**

Ordu eta erdi inguru irauten du antzezlanak. Ikuskizunaren kontaketaren erritmoa arina izango da, denboran zein espazioan trantsiziorik gabe salto egitea ahalbidetuko duena. Elkarren segidan eta kokapen ezberdinetakoak diren eszena laburrek osatuko dute istorioa. Eszenak eta pertsonaiak elkarren atzetik etorriko dira, aldez aurretik sumatu gabe eta aurkezpenik gabe. Helburu horretarako, eszenografia aldakorra erabiliko dute, eta, horri esker, eta argiztapenaren



**MIREN GOIENOLA**
Evaren papera egingo du, Wilten emaztearena. Horrez gain, beste pertsonaia batzuk ere antzeztuko ditu: institutuko irakaslea, adibidez.

**KOLDO LOSADA**
Fernando Ruizekin elkarbanatuko du papera. Poliziarena, sarjentuarena egingo du, baita institutuko zuzendariarena ere, besteak beste.

**AITZIBER GARMENDIA**
Hainbat pertsonaia antzeztuko ditu Garmendiak: emakume frantses bat, polizia-agentea, gazte bat eta ikaslea izango da antzezlanean.

## Tom Sharp idazle ezaguna

1928ko martxoaren 30ean jaioa, idazle ingeles satirikoa da, mundu osoan ezaguna. 10 nobela baino gehiago idatzi ditu eta 1986an *Grand Prix de l'Humour Noir* saria irabazi zuen. Cambridgen ikasketak bukatu zituen eta bere bizitzaren zati handi bat Hego Afrikan eman zuen, harik eta espetxeratu eta apartheidaren kontra borrokatzeagatik kanporatu zuten arte. Bere lanek umorea dute bereizgarri, zenbaitetan ankerrak ere badirelarik, eta umorezko literaturaren maisuen artean dago. Bere lanak dira, Wilt-en sagaz gain: *Zafarrancho en Cambridge*, *Reunión tumultuosa* eta *Exhibición impúdica* besteak beste.



## Kritika onak jaso dituen antzezlana

Ibilbide motza duen antzezlana da, urtarrilean estreinatu baitzuten. Hala ere, hainbat emanaldi egin dituzte eta ikusleen aldetik jaso duten erantzuna benetan ona izan da. *Berria.info* atarian, Agus Perezek dio "eleberriaren espiritu eta tonu azidoa" aurkituko dutela ikusleek taula gainean. Dramaturgiaren arloan ere asmatzen jakin dutela dio: "Horretan zerikusi handia izan du eremu eszenikoaren diseinu soilak". Mikel Laskurainek eta Isidoro Fernandezek arerio bikote dibertigarria osatu dutela gaineratu du. Gabriel Aristi euskaltegiko ikasleak ere egon dira ikuskizunean, eta hauxe azaldu dute Interneten: "Dudarik gabe, aktoreen lana zoragarria izan da, hainbat pertsonaia interpretatu dituzte, eta hori egitea oso zaila da". Hauxe gaineratu dute: "Istorio honetan ikus dezakegu gustatzen ez zaigunak beste arazo batzuk konpontzeko lagundu ahal digula batzuetan".

# onu garratza

## os antzerki taldeak Oñatin eta Arrasaten



**MIKEL LASKURAIN**
Wilten papera egingo du Laskurainek. Wilt gizajo bat dela esan digu, bizitza erabat aldrebestuko zaion gizajoa dela gaineratu du bergararrak.

**ISIDORO FERNANDEZ**
Gainerako aktoreek ez bezala, paper bakarra izango du istorioan. Polizia-inspektorearen papera egingo du Fernandezek. Wilten atzetik ibiliko da.

**FERNANDO RUIZ**
Koldo Losadarekin elkarbanatuko du papera. Poliziarena, sarjentuarena egingo du, baita institutuko zuzendariarena ere, besteak beste.

**Antzezlanean parte hartuko duten sei aktoreak panpina puzgarriarekin. Gainerako argazkietan, antzezlaneko hainbat pasarte.**

ARGAZKIAK: ADOS ANTZERKIA

laguntzaz, erabateko espazio aldaketak egin ahal izango dira ilunetatik zein beste trantsizioetatik pasatu gabe. Hiru plano erabiliko dituzte eta horiek tartekatuz joango dira planoek, istorioak hala eskatzen duenean, bat egin arte. Pertsonaiak arintasunez, berehala pasako dira espazio batetik bestera, akzioari generoak eskatzen duen erritmoa emanez.



### Euskalkien protagonismoa

Ados antzerki taldeak euskararen aldeko apustu garbia egin du antzezlanarekin. Euskaraz ekoitzi du lehenengo –asmoa da udazkenean gaztelerazko bertsioa egitea– eta, gainera, euskalkiei lekua egin die. Hala, Bergarako euskara entzuteko aukera egongo da, besteak beste, Santa Anan eta Amaia antzokian. Mikel Laskurainek, beste antzezlan eta telesail askotan egiten duen moduan, etxeko euskara erabiliko du agertokian; Aitziber Garmendiak goierritarrez egingo du; eta Miren Gojenolak lekeitiarrez. Aktore bakoitzak bere euskara, bere esamoldeak eta bere esapideak erabiliko ditu eta horrek umorea egitea erraztuko du; azken batean, antzerkia egitea. Horren harira, Laskurainek esan du: "Oso kritika onak izan ditugu: naturaltasuna, gertutasuna eta sinesgarritasuna ematen duela esan digute".

Edonorendako ikuskizuna da, eta lantaldearen asmoa jendarte multzo zabala, antzokian dibertitzeko gogoa duena erakartzea da. Bide batez, Sharperen lanean sumatzen den zalantzazko ikasbideaz hausnartze gura dute: "Esan gezurra besteek sinesteko". Batzuetan, modu bakarra dela diote Ados antzerki taldeko kideek. Mikel Laskurainek zera dio: "Etor daitezela umoretsu eta eramaten laga daitezela. '*Benga, bota!*' esan dezatela eta etorri ahala disfruta dezatela". Umorea eta barrea ez dira faltako!

**MIKEL LASKURAIN**
AKTOREA

## "Gertutasuna ematen du nork bere euskaran lan egiteak"

Protagonistaren papera izango du Mikel Laskurain bergararrak *Wilt; panpina puzgarriaren hilketa* antzezlanean. Taldea gustura dabilela antzezlanarekin azaldu du.

**Oñatin eta Arrasaten izango zarete. Berezia izango da?**
Bai; beste urduritasun puntu bat egoten da: gurasoak etorriko dira, lagunak ere bai... gainera, antzezlan honetan Bergarako euskaran lan egiten dut, eta hori abantaila da: jakitea jendeak ulertuko duela.

**Antzezlanak zelako harrera izan du orain arte?**
Oso harrena ona izan du. Jendeak barre egiten du emanaldian zehar eta bukaerako txaloak ere oso beroak izan dira.

**Lehenengo aldia da *Wilt* liburua taularatzen dena, gainera, euskaraz.**
Bai, Tom Sharpen ezer ez da eraman antzerkira, hau da lehenengo aldia, eta, gainera, euskaraz. Ekoizleak erabaki du euskaraz egitea eta gero gazteleraz egingo du, baina Euskal Herritik kanpo eskaintzeko.

**Nork bere euskaran egingo du.**
Bai; batuan ere egiten da. Aitziberrek goierritarrez, Mirenek lekeitiarrez eta nik Bergarakoa. Zalantzak neuzkan jendeak ulertuko ote zuen edo ez. Baina oso kritika onak izan ditugu: naturaltasuna, gertutasuna eta sinesgarritasuna ematen duela esan digute. Guretako samurragoa da, baina egia da ohituta egon zaitezkeela batuan egitera eta orduan zaila izaten dela norberearen euskarara pasatzea. Baina ni ohituta nago.

**"Lehenengo aldiz Tom Sharpen lana antzerkira eraman da"**


'AITA, ZONBIA NAIZ' FILMA IKUSTEKO GONBIDAPENAK*
Deitu **943 25 05 05** telefonora!
2012 Goya Sarietan ANIMAZIOZKO PELIKULA ONENA kategorian finalista suertatu da.



* Bi pertsonarendako gonbita.
Ezinbestekoa da leihatilan trukatzea nahi den egun eta emanaldirako.

**WII KONTSOLAREN IRABAZLEA!**
Otsailaren 20an Kantariko Wii kontsolaren irabazlea argitaratuko dugu.
**Adi egon!**

KRUPS KAFE-MAKINA
Bidali KLUBA KAFETERA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: *kluba@goiena.com*



EROSKI

goienakluba 2012
goienakluba
Abantailaz betetako kluba!
Tel.: **943 25 05 05** | e-posta: *kluba@goiena.com* | *goienakluba.com* | Urteko kuota: **50 €.**



Adrian, mendiko bizikletarekin.

ANDER MONEDERO

## Adrian Chohan | Mendiko bizikletazalea

# "Bizikletan, erlojuari begira daudenek paisaiaz eta giroaz gozatzeko aukera galtzen dute"

ANDER MONEDERO | OÑATI

Geldirik egoten ez den pertsona horietakoa da Adrian Chohan (Oñati, 1983). Mendiko bizikletan ibiltzea, kayakarekin itsasoan ibiltzea eta bidaiatzea dira haren zaletasunak.

**Bizikletan asko ibiltzen zara, errepidean ala mendian?**
Bi erruberaren gainean gustura sentitzen naiz, bai mendiko bizikletan, bai errepidean ere. Baina errepidea baino gehiago gustatzen zait mendia.

**Zergatik?**
Errepidea mendia baino askoz ere monotonoagoa da, dena antzerakoa da. Mendian, berriz, igoera eta jaitsiera asko daude, paisaia... Mendiko bizikletarekin naturarekiko kontaktua askoz ere handiagoa da. Hori da gehien gustatzen zaidana, naturaren parte sentitzea.

**Beraz, mendian ibiltzea berezia da.**
Bai. Askotan, mendiko bizikleta eta alforja hartu eta batera eta bestera ibiltzen naiz. Lekuak ezagutzeko beste era bat da; gainera, alforjarekin ia edozein lekutan lo egin daiteke.

**Inguruan antolatzen diren mendiko bizikleta ibilaldietan ere parte hartzen duzu.**
Bai, asko gustatzen zaizkit mendiko bizikleta ibilaldiak. Bizikletan ibiltzen lagun asko egin ditut, eta haiekin elkartzea eta berriz ere bizikletan ibiltzea asko gustatzen zait.

**Horrelakoetan parte hartzen duzunean, erlojuari begira egoten den horietakoa zara?**
Ez. Ez naiz eliteko kirolaria, niri bizikletan ibiltzea gustatzen zait, ez lasterketa batean lehena izatea. Nire ustez, erlojuari begira daudenek paisaiaz eta giroaz gozatzeko aukera galtzen dute.

**Oñatiko BTT ibilaldia antolatzen ibiltzen zara.**
Bai; aurten ere mendi ibilaldia antolatuko dugu. Irailean izango da, Iban Altuberen omenezko bigarren mendi ibilaldia izango da. Lehen, Oñatiko mendi ibilaldia zen, baina aurreko urtean izena aldatzea erabaki genuen. Aurten ibilaldia aurreratu egingo dugu, irailean giro hobea egiteko aukera gehiago daudelako.

**Ibilbide bera izango du?**
Normalean, urtero aldatzen dugu ibilbidea. Roberto Araotzek egiten du ibilbidea; Oñatiko senda, pagadi eta pinudiak ia inork baino hobeto ezagutzen ditu. Hark egindako ibilbidea markatzen laguntzen dugu guk.

**Bi erruberak alde batera utzita, itsasoan ere ibiltzen zara.**
Bai, kayakean ibiltzen naiz, baita arrantzan ere.

**Zer du kayakak barnealdeko pertsona bat itsasoraino joateko?**
Geldirik egoten ez den pertsona bat naiz, eta, ez dakit nola, baina kayakean ibiltzen hasi nintzen. Orain, gainera, nire lehengusua eta beste bi lagun ere hasi dira kayakean ibiltzen.

**Kosta ezagutzeko beste modu bat.**
Bai, oinez heldu ezin diren lekuak ezagutzeko aukera ematen du kayakak. Herri batetik irten, inguruko kalak ikusi, eta, nahi izanez gero, batean geratu eta hamarretakoa egiten dut.

**Beraz, kayakean ere, kirolak naturarekiko duen kontaktua da gustuko duzuna.**
Bai; niretzako, naturarekin bat egitea plazera da, eta itsasoan erraz lortzen da hori. Egunerokotasunetik deskonektatzeko modua da.

**Bidaiatzea ere gustuko duzu.**
Bai, kirola eta bidaiatzea uztartzen ditut. Bizikletan eta alforjarekin bidaiatzen dudanean, lekuak beste era batean ezagutzen ditut.

**Horrela bidaiatzeak askatasun handiagoa ematen du?**
Dudarik gabe. Bizikletan joanda, erreka bat ikusi eta bainu bat hartzeko aukera dago; autoan joanda, berriz, ez dira lekuak ondo ezagutzen.

**Udan horrela ibili zara, ezta?**
Bai; abuztuan lagun batekin batera Transpirenaika egin nuen. Guztira, bizikleta gainean 1.200 kilometro egin genituen, eta, gainera, bidean lagun batzuekin elkartu eta lau egun batera egon ginen.

### PERTSONALA

**Ametsetako bidaia:** Indiako iparraldea motorrean ezagutzea.

**Egindako azkeneko bidaia:** Transpirenaika.

**Musika talde bat:** Loquillo eta Ismael Serrano.

**Musika estilo bat:** Kantautoreak eta rock-and-rolla.

**Kolore bat:** Urdina.

**Kirol bat:** Mendiko bizikleta.

**Amets bat:** Gauzak egiteko ilusioa izaten segitzea.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** Prezio berria. Aukera paregabea. Eguzki dorrean etxebizitza salgai. Eraberritua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. 20 metro koadroko garaje itxia aukeran. Deitu telefono honetara: 650 01 05 15

**Eskoriatza.** Duplexa salgai, 120 metrokoa. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. Deitu 679 16 24 96 telefonora.

**Oñati.** Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. 699 78 47 49

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, bi komun, sarrera, egongela eta sukaldea. Hornitua eta jantzia. 607 32 74 32

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolun. 663 77 14 50 edo 671 14 99 63

**Bergarako** alde zaharrean etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Berokuntzarekin. Guztiz berritua. Altzariekin. Atsegina. 629 38 29 96

**Eskoriatza.** Baserria ematen da errentan. Guztiz eraberritua. 605 77 51 65

**Oñati.** Errekalde 3an etxebizitza ematen da errentan. Igogailua, oso eguzkitsua, guztiz berritua, oso ondo hornitua eta jantzia. Hiru logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Nahiago bertako pertsonak. 677 07 19 37

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelakoa. Deitu 685 42 72 80 zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza bila, errentan. Hiru logelakoa. Oso arduratsuak. 630 26 13 28

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Bi logelakoa. Deitu 610 99 70 46 zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. 618 90 23 66

**Oñati.** Etxebizitza behar dut errentan. Estudio, logela bat edo bikoa. Venezuelakoa naiz. 608 49 89 76

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Pertsona bat behar da lau gela eta bi bainugelako pixua osatzeko. Etxea oso eguzkitsua da, oso ondo dago eta hiru langile bizi dira bertan. Deitu 653 71 44 57 zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan pixua osatzeko. Jende langilea bizi da bertan. 653 72 43 19 edo 699 11 45 14

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. Deitu 630 71 35 83 zenbakira.

**Bergara.** Logela ematen da errentan pertsona bakar edo bikotearentzat. 699 09 46 26.

**Eskoriatza.** Pertsona bat behar dugu plazan dagoen etxebizitza osatzeko. Guztiz eraberritua. Leire. 685 73 60 57

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** 15 metro koadroko garaje itxia salgai edo errentan Ozaetan. Prezio negoziagarria. Deitu 655 72 63 13 edo 943 76 50 71 zenbakietara

**Eskoriatza.** 15 metro koadroko garaje itxia salgai Intxaurtxueta 23an. 679 16 24 96

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garaje itxia ematen da errentan Araba ibilbidean. 678 73 66 54

**Arrasate.** Garaje bat alokatzen da Arrasaten. Larreako etxeen atzetik (Usaetxe enparantzan). 60 euro hilabetean. Sergio.Deitu 678 53 82 48 edo idatzi mezu bat: soliveira@hotmail.es

### 204. ERRENTAN HARTU

**Garajea errentan hartu.** Garaje bat errentan hartuko nuke Onatiko Bidebarrieta kalean. 626 59 91 86

## 3. LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**ARRASATE**
Taberna ematen da errentan erdigunean.
Guztiz berritua.
671 42 54 32

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Andre arduratsua lanerako gertu: garbiketak edo nagusiak zaintzen. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. 682 31 97 37

**Arrasate.** 53 urteko bertako emakumea edozein lan egiteko gertu: umeak zaindu, etxekolanak egin, pertsona nagusiak zaindu eta abar. Deitu943 79 60 89 telefonora

**Arrasate.** Emakume euskalduna. Umeak zaindu eta eskolara eramango nituzke. Orduka plantxa egiteko ere prest nago. 626 29 98 43

**Arrasate.** Gizona gertu edozein lanetarako: garbiketak lokaletan, tabernetan zerbitzari edo bestela. Baita asteburuetan ere. 693 40 88 86

**Arrasate.** Neska gertu gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Esperientziakin daukat egoitzatan geriatria laguntzaile gisa. Gauak ospitalean egiteko prest. Etxe garbiketak ere bai. Interesatuok deitu hurrengo zenbakira: 693 40 88 86

**Bergara.** Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko goizez zein arratsaldez. 605 51 96 89

**Bergara.** Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Erreferentziaduna. 669 10 13 94

**Debagoiena.** Neska euskalduna eta esperientziaduna goizetan haurrak zaintzeko prest. 685 76 91 11

**Debagoiena.** Tradiziozko sukaldari morokoarra jatetxe edota jaialdi pribatuetan lan egiteko eskaintzen da, ordu edota egunak. 672 746 769 Said. 672 74 67 69

**Debagoiena.** 40 urteko emakumea gertu nagusi zein umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 620 43 85 40

**Debagoiena.** 42 urtetako emakumea lanerako prest, arraindegian lan egiteko eta janariak manipulatzeko karnetak ditut. Pertsona nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko prest. Automobila daukat. Deitu 678 98 30 32 telefonora.

**Debagoiena.** Asteburuetan lan egingo nuke: nagusiak zaintzen edo denetariko garbiketa lanetan. 699 09 46 26

**Debagoiena.** Asteburuetan zerbitzari lanak egingo nituzke jatetxe batean. Esperientzia eta ingelesa. 649 57 70 59

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaindu eta etxeko garbiketak egiteko. Eskarmentu handikoa. 696 84 19 51

**Debagoiena.** Emakume arduratsua lan bila etxeak, atariak eta tabernak garbitzeko. Ume eta nagusiak zaintzeko ere bai. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Emakume esperientziduna eta arduratsua, etxeko lanak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Deitu 680 12 73 16 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu plantxa edo etxe zein bestelako garbiketak egiteko, orduka. 680 49 11 45

**Debagoiena.** Emakumea eskeintzen da etxeko garbiketa orokorrak egiteko, esperientziaduna. Lanean hasteko prest. Deitu telefono zenbaki honeta: 672 88 01 01

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu zein tabernatan lan egiteko. Egun osoz zein orduka. 605 41 88 20

**Debagoiena.** Esperientziadun automozio mekanikaria lanerako eskaintzen da. Hidraulika-neumatika eta pisudun makinen ezagutza, besteak beste. Antonio. 656 69 80 70

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumezko batek, nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzte. Maite. 650 17 74 87 edo 943 76 48 26

**Debagoiena.** Igeltsero edo konpontze lanak egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile ere. Rolando. 639 41 68 38 edo 943 70 79 82

**Debagoiena.** Mutila gertu lanerako. Deitu telefono zenbaki honetara: 680 95 65 57

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko, lantegietan zama lanak egiateko edota garbiketa lanetan jarduteko. 685 42 72 80

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari lanak egiteko, eta garbiketa edo bestelakoetan jarduteko. 671 84 71 71

**Debagoiena.** Nagusiak zaiduko nituzke. Legezko papereak eta gidatzeko baimena dauzkat. Eskarmentu eta erreferentzia onak. 603 14 59 17

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke asteburutan, jaiegunetan edo etxean bertan. Gauez ere bai. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Deitu 638 13 97 28 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zaintzeko orduka edo asteburuetan ere bai. 606 54 89 90

**Debagoiena.** Neska arduratsua umeak zaintzeko, nagusiak zaintzeko eta paseatzera ateratzeko eta garbitasun lanak egiteko gertu. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska euskalduna edozein lanerako gertu. 673 41 99 69

**Debagoiena.** Neska euskalduna umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Informeak ditut. Disponibilitate osoa. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko, baita etxean bertan bizi izaten ere. Umeak ere zainduko nituzke edo garbiketa lanak egin. baserrietan ere bai. 669 10 13 94

**Debagoiena.** Neska gertu sukaldari edo garbiketa lanak egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. 619 78 63 41

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Deitu zenbaki honetara: 618 04 15 45

**Debagoiena.** Neska zerbitzari edo garbiketak egiteko gertu. Eskarmentuduna. Deitu 679 04 42 68 telefonora.

**Debagoiena.** Ume zein nagusiak zaintzen edo garbiketak egiten lan egingo nuke. Baita dendari ere. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. 606 72 28 76

**Debagoiena.** Umeak zaintzeko gertu nago. Aisialdiko hezitzailea naiz. Brigitte. 664 51 64 98

**Elgeta.** Bergara edo Arrasate. Emakume euskalduna gertu lanerako. 606 50 02 67

**Zaintzailea.** Haur Hezkuntza ikasi duen 22 urteko neska prest haurrak zaintzeko. Deitu 688 88 39 57 telefonora.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Renault Master salgai.** Renault Master 140 ZP, 2.400cc, 6 pax Combi, 2006-koa salgai. 675 18 99 96

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ahuntzak.** Bakoitza bi antxumerekin. 180 €. 678 25 52 35

**Asto arra.** 3 urteko asto arra salgai. Beltza da eta mantsoa da. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655 71 39 27 .

**Behorrak.** Bi behor salgai, prezio onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 67 61

**Txakurkumeak.** Malinois Belgiar artzai txakur kumeak salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 667 74 65 27

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Justo Garate Plaza. 80 m2. 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
- Azkarruntz 75 $m^2$. 3 logela. Berriztua. 144.243 €.
- Simon Arrieta 90 $m^2$. 3 logela. Balkoia, igogailua, berogailu eta trastelekuarekin.
- Zabalotegi 80 $m^2$. 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Ibargarai 54 $m^2$. Garajearekin. Aukera ona. 234.395 €.
- Artzamendi 70 $m^2$. 2 logela. Igogailua eta igogailuarekin. Prezio ona.
- San Lorenzo 67 $m^2$. Garajearekin.
- Zubiaurre 51 $m^2$. 102.000 €.
- Herri Lagunak 60 $m^2$. 2 logela. Oso ondo. 160.771€.
- Zabalotegi 54 $m^2$. Balkoiarekin. 96.000€.
- San Pedro 65 $m^2$. 2 logela. Erabat berriztuta. Ganbararekin. 122.606€.
- Burdiñate. 104 $m^2$. Garajearekin. Oso prezio ona.
- Martoko 70 $m^2$. 2 logela. 110.000 €.
- Bolu 140 $m^2$ duplexa. Terraza eta garajearekin. Aukera ona.
- Burdiñate 53 $m^2$. Apartamentua, oso ondo.
- Masterreka 70 $m^2$. 2 logela. Igogailua eta garajearekin.
- Bidekurutzetan 60 $m^2$ obra egiteko. Oso prezio ona.
- Zubiaurre 82 $m^2$. Igogailua eta berogailuarekin. 150.253 €.
- Zubieta 240 $m^2$, ortuarekin.
- Lorentxokon pisuak estrenatzeko. PREZIO BEHERAPEN HAUNDIAREKIN!!!!
- Urteagan pisuak estrenatzeko. 195.000 €.
- Bidekurutzetan pisuak estrenatzeko. 1,2,3 eta 4 logela.
- Masterreka 104 $m^2$. 3 logela. Estrenatzeko. Trastelekuarekin. 294.495 €.
- Martoko 140 m2. Duplexa. Berria. Aukera ona.

**Antzuola:**
- Baserria 200 $m^2$. 3 logela. Berria. Garajea. Lur sailarekin.
- Buztinzurin apartamentua estrenatzeko. Aukera ona.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa,
- San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

**Soraluze:**
Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**Elgeta:**
- Torrealdea 77 $m^2$. 3 logela. Berria. Oso ondo.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**"PSP Go"-a.** salgai. Berria. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu 943 77 00 26 telefono zenbakira.

**"Puf"ak.** Ohe egiten diren bi "puf" salgai.Oheko neurriak 80x190 dira. Jasota daudenean, kubo forma dute. Deitu 943 79 39 35 telefonora.

**Bergara.** 16.000 metro koadroko lursaila salgai, 30 urteko pinuekin. Automobilez bertara iristeko modukoa. Deitu 653 71 66 87 telefonora.

**Bergara.** Lursaila eta borda txikia salgai. Gorla inguruan. Arbolartea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655 91 87 17

**Compaq ordenagailua.** salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarria. 662 58 52 29 edo 943 20 81 17

**DVDa.** LG DVD berria salgai. Prezio interesgarria. Deitu 943 77 00 26 telefonora.

**Gitarra elektroakustiko.** berria salgai. Tanglewood model premier Twissas. 1012929 seriekoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620 64 96 37

**Mendi eskiko botak.** Scarpa Avant mendi eskiko botak saltzen ditut egoera onean. 75 euro. 43 zenbakia. Kontaktatzeko deitu telefono zenbaki honetara: 652 72 66 97

**Paratxokea.** Wolkswagen Golf 3 autoaren aurreko paratxokea salgai. 50 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 74 51 80

**Taxi lizentzia.** salgai Arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 76 36 85

**Umeak eramateko.** Jane etxeko kapazoa, Maxi Cosia eta aulkitxoa salgai. Oso ondo zainduta. 199 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 722 254 edo idatzi mezu bat: marysea15@hotmail.com

**Xurgagailua .** (aspiradora) salgai. Bigarren eskukoa, ia erabili gabekoa. Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 659 62 02 49

### 802. EROSI

**Akordeoi kromatikoa.** Bigarren eskuko akordeoi kromatikoa erosiko nuke. 120 bajukoa (botoiduna). Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 639 15 40 48

**Bizikleta.** 4 urteko mutikoarentzat bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649 00 53 42

**Lursaila.** Lursaila erosiko nuke Bergara edo inguruko herriren baten. 5.000 euro inguru ordaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 17 09 51

### 806. GALDU

**Eraztuna Bergaran.** Ezkontza eraztuna galdu dut. Bi eraztun dira batean, soldatuta. Norbaitek aurkitu badu dei dezala mesedez 646 05 62 62 telefonora.

**Kirol praka Bergaran.** Kirol praka beltza, berria, galdu nuen Matxiategiko 30 eta 32 atarteen artean, otsail hasieran. Aurkitu baduzu deitu mesedez. Norbaitek aurkitu badu dei dezala mesedez 943 76 41 31 telefono zenbakira.

**Nintendoa Aretxabaletan.** Igandean, otsailak 12, 20:30ean, Nintendo dsi xl bat desagertu zen bere estutxe barruan. Mesedez norbaitek aurkitu badu deitu zenbaki honetara: 689 73 64 77

### 807. AURKITU

**Berokiak.** Bergarako Agorrosingo tabernan umeen bi beroki agertu dira. Izena daukate idatzita: Ander G. I. eta Jokin B.

**Eraztuna .** Antzuolako plazan urrezko eraztun bat aukittu genuen abenduan. Norbaitek galdu badu deitu telefono honetara: 656 76 78 90

**Lepokoa Bergaran.** Lepokoa aurkitu nuen urtarrilaren 19an, eguenez, Bergarako Irala kalean. Norbaitek galdu badu deitu telefono zenbaki honetara: 630 12 39 08

## 9. HARREMANAK

### 903. DEIAK

**Hernanitik autobusa.** Otsailaren 25ean, sagardotegi ostean Hernanitik bueltatzeko autobusa bete nahian gabiltzan Onatiko lagun taldea gara. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 73 25 65

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasatetik Donostiara autoan.** Egunero Arrasatetik Donostiara joateko autoa partekatzeko jende bila nabil. Arrasatetik 8:30ean irtetzen naiz eta Donostiatik 17:30etan. Imanol. 669 13 20 08

**JAKINARAZLEEN LAN POLTSA**

**Izena emateko epea:** otsailaren 18tik 24ra arte (biak barne).

**Oinarri-arauak:** BAZen (goiz eta arratsalde) eta udaletxeko webgunean jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Saila

## ASTEA GOIENAN



JULIO CALLEJA

### 'Mirrix katua' musikala eskainiko dizuegu

Oñatiko Ganbara Txiki abesbatzak *Mirrix katua* musikala eskaini zuen Santa Ana aretoan, eta orain, telebistaz gozatzeko aukera ere izango duzue. Zapatuan 11:24an eta 17:59an eta domekan, 16:27an eta 20:34an.

**'Musikala: Mirrix katua'**
Zapatua, 11:24



GOIENA

### Aratusteak ikusgai astelehenean

Aurtengo Aratuste asteburuak emandakoa jasoko dugu astelehenean *Magazinea* saioan. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Bergaran egongo den giroa jasoko dugu zuek etxetik Aratusteekin disfrutatzeko.

**'Magazinea'**
Astelehena, 19:45

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 17**

**12:30** Magazinea
**13:30** Gipuzkoa kultura
**13:55** Kantari
**14:22** Onein
**14:47** Berriak
**15:14** 28.Klip
**15:38** Bizitegia
**16:08** Leku txiki bat
**16:38** Berriak
**17:11** Esatea libre
**18:21** Beranduegi.tv
**18:41** Berriak
**19:16** Kantari
**19:48** Magazinea
**20:48** Gipuzkoa kultura
**21:18** Magazinea
**22:18** Musikala: Mirrix katua
**23:28** Magazinea

**ZAPATUA, 18**

**10:00** Kantari
**10:30** Ipupomamua
**11:00** 28.Klip
**11:24** Musikala: Mirrix katua
**12:14** Kantari
**12:44** Ur eta lur
**13:14** Onein
**13:41** Berriak
**13:56** Magazinea
**14:56** Gipuzkoa kultura
**15:26** Bertso saioa
**15:49** Berriak
**16:04** Onein
**16:29** Kantari
**17:29** Gipuzkoa kultura
**17:59** Musikala
**18:49** Kantari
**19:19** Erreportajea
**19:49** Beranduegi.tv
**20:09** Magazinea
**21:09** Gipuzkoa kultura
**21:39** Berbaz 2
**22:39** Bizitegia
**23:09** Bertso saioa
**23:32** Magazinea

**DOMEKA, 19**

**10:00** Kantari
**10:30** Ipupomamua
**11:00** Kantari
**11:30** Magazinea
**12:30** Bizitegia
**12:55** Kantari
**13:22** Bertso saioa
**13:45** Onein
**14:12** Gipuzkoa kultura
**14:42** Berbaz
**15:42** Kantari
**16:12** Berriak
**16:27** Musikala: Mirrix katua
**17:17** Gipuzkoa kultura
**17:52** Berriak
**18:07** Magazinea
**19:07** Erreportajea: Iturengo inauteriak
**19:49** Beranduegi.tv
**20:04** Erreportajea
**20:34** Musikala
**21:24** Magazinea
**22:24** Berriak
**22:39** Bizitegia
**23:09** Magazinea

**ASTELEHENA, 20**

**12:25** Magazinea
**13:25** Onein
**13:55** Kantari
**14:28** Beranduegi.tv
**14:45** Berriak
**15:15** Ikusmira
**15:48** Ur eta lur
**16:18** Bertso saioa
**16:43** Berriak
**17:13** Ur eta lur
**17:43** 28.Klip
**18:10** Onein
**18:40** Berriak
**19:10** Kantari
**19:40** Magazinea
**20:40** Harmailatik
**21:25** Beranduegi.tv
**21:45** Magazinea
**22:45** Harmailatik
**23:30** Gipuzkoa kultura

**MARTITZENA, 21**

**12:30** Magazinea
**13:30** Harmailatik
**14:15** Kantari
**14:45** Berriak
**15:15** Beranduegi.tv
**15:36** Harmailatik
**16:19** Onein
**16:45** Berriak
**17:15** Bizitegia
**17:45** Harmailatik
**18:30** 28.Klip
**18:54** Berriak
**19:21** Kantari
**19:48** Magazinea
**20:48** Bertso saioa
**21:11** Magazinea
**22:11** Bizitegia
**22:41** Magazinea
**23:41** Gipuzkoa kultura

**EGUAZTENA, 22**

**12:20** Magazinea
**13:20** Ikusmira
**13:53** Beranduegi.tv
**14:12** Kantari
**14:47** Berriak
**15:17** Gipuzkoa kultura
**15:47** Onein
**16:15** Berbetan
**16:45** Berriak
**17:15** Altxor Txokoa
**17:48** Bertso saioa
**18:11** Harmailatik
**18:54** Berriak
**19:19** Kantari
**19:49** Magazinea
**20:49** Bizitegia
**21:19** Magazinea
**22:19** Berbaz
**23:19** Magazinea

**EGUENA, 23**

**12:30** Magazinea
**13:30** Gipuzkoa kultura
**13:55** Kantari
**14:20** Bizitegia
**14:45** Berriak
**15:15** Onein
**15:42** Berbaz
**16:42** Berriak
**17:12** Kantari
**17:42** Ikusmira
**18:15** Beranduegi.tv
**18:32** Onein
**18:52** Berriak
**19:22** Kantari
**19:52** Magazinea
**20:52** Bizitegia
**21:22** Magazinea
**22:22** Gipuzkoa kultura
**22:52** Bertso saioa
**23:15** Magazinea

## ARRASATE IRRATIA

### AUKEAko batzordeburuari elkarrizketa

Martitzenean Joxerra Askasibar AUKEAko batzordeburua elkarrizketatuko dugu. Azalduko digu AUKEAri dagokion aurrekontua nola erabiliko duten, baita herriko kirol taldeekin duten harremana ere.

### 'Ilargiaren bi aldeak' antzerkirako sarrerak ditugu zozketan

Hilaren 25ean eskainiko dute familia guztiarendako *Ilargiaren bi aldeak* Hika taldearen antzerkia. Bada, bertara joateko sarrerak dauzkagu zozketan. Parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com*-era.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 18** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Domeka, 19** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Astelehena, 20** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Martitzena, 21** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Eguaztena, 22** | ETXEBERRIA | Zarugalde, 42, 44 | 943 77 16 30 |
| **Eguena, 23** | A. AZKOAGA | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| **Egubakoitza, 24** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 18** | ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Domeka, 19** | ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Astelehena, 20** | MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| **Martitzena, 21** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguaztena, 22** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Eguena, 23** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Egubakoitza, 24** | ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 18** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Domeka, 19** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 20** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 21** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguaztena, 22** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguena, 23** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Egubakoitza, 24** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA / ESKORIATZA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 18** | FRAILE | Herriko plaza, 10 (Are.) | 943 79 21 99 |
| **Domeka, 19** | FRAILE | Herriko plaza, 10 (Are.) | 943 79 21 99 |
| **Astelehena, 20** | FERNANDEZ | Gorosarri plaza, 1 (Esk.) | 943 71 48 28 |
| **Martitzena, 21** | FERNANDEZ | Gorosarri plaza, 1 (Esk.) | 943 71 48 28 |
| **Eguaztena, 22** | FERNANDEZ | Gorosarri plaza, 1 (Esk.) | 943 71 48 28 |
| **Eguena, 23** | FERNANDEZ | Gorosarri plaza, 1 (Esk.) | 943 71 48 28 |
| **Egubakoitza, 24** | FERNANDEZ | Gorosarri plaza, 1 (Esk.) | 943 71 48 28 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2011 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



Max. 9º
Min. 5º

**ZAPATUA, 18**
Zeru-gainean hodeiak gutxituz joango dira eta eguzkia irteten joango da pixkanaka. Tenperatura zertxobait igoko da.



Max. 8º
Min. 4º

**DOMEKA, 19**
Eguzkia ezkutatu egingo da eta euria egiteko arriskua ere izango da. Tenperatura jaitsi egingo da orokorrean.

### EUSKAL HERRIA




## GAZTE INFORMAZIOA

### BEKAK

**Graduondoak.** Graduondoko ikasketak egiteko maileguak. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Epea: maiatzaren 30a.

**FARO Bekak.** Beste herrialde batzuetan praktikak egiteko, azken ikasturtea egiten ari diren ikasleentzat. Azken eguna: 2013ko abendua.

**Ikerketa.** Humanitate eta Arteetako Bogliasco bekak. Unibertsitate ikasleei zuzenduta, Genoan. Azken eguna: apirilaren 15a.

**ARGO: praktikak atzerrian.** Europako enpresetan iraupen askotariko prestakuntza egonaldiak egiteko bekak. Azken eguna: martxoak 30.

### LEHIAKETAK

**Kartelak.** 2012ko Jazzaldirako Kartel Lehiaketa. Azken eguna izango da martxoaren 1a.

**Film laburrak.** *Euskeraz bizi nahi dut* bideoen lehiaketa: *info@euskerazbizinahidut.org*. Azken eguna izango da martxoaren 18a.

**Artea.** Sorkuntza artistikoko Arte40 lehiaketa. Konplutense Unibertsitatea. Azken eguna izango da martxoaren 2a.

**Mozorroo argazki lehiaketa.** Dida Gaztea irratsaioko lehiaketa da eta sagardotegi bateko afaria irabazteko aukera izan dezakezu! Azken eguna izango da martxoaren 31.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



## Miguel Angel eta Belen

Miguel Angel Elorza eta Belen Txintxurreta oñatiarrak duela 25 urte ezkondu ziren Arantzazun. Horregatik Aitor, Laida, Xabi eta Amaiak, "egun zoragarrixa pasaitteko eta oñarte moduko zoriontsu izaten jarraiketako" opa diete. "Muxu erraldoi bat danon partetik!".

URTEURRENA

## Loentxa Larrañaga Larrañaga



Martxel Agirreren alarguna

Oñatin hil zen 2011ko otsailaren 16an, 95 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza, zapatuan,
otsailaren 18an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

—

*Maite izan zenituenok maite zaitugu*

**Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko. Errekalde baserriko sendiak.**

ESKER ONA

## Bixente Pagoaga Gallastegi



2012ko otsailaren 16an hil zen, 65 urte zituela.

Bere emaztea: M. Asun Zaloña. Seme alabak: Lur eta Iraia, Irati eta Itsaso. Anai arrebak: Manuel eta Marikita, Joxe Mari eta Yolanda, Pilar eta Joxe Leon, Enrike eta Leire, Luis eta Pili eta Iritte eta Enrike. Biloba, Aiert.

—

Hileta elizkizuna gaur, egubakoitza, otsailak 17,
19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian izango da.

**Aldez aurretik eskerrak.**

## HILDAKOAK

**Joxemari Uribarren Leturiaga.** Arrasaten, otsailaren 14an. 78 urte.
**Felicitas Vega Gonzalez.** Bergaran, otsailaren 9an. 89 urte.
**M. Pilar Altuna Lazkanoiturburu.** Oñatin, otsailaren 14an. 86 urte.
**M. Milagros Arregi Letamendi.** Oñatin, otsailaren 15ean. 77 urte.
**Rafael Hidalgo Rajado.** Arrasaten, otsailaren 11n. 58 urte.
**Consuelo Arana Agirre.** Arrasaten, otsailaren 11n. 94 urte.
**Asuncion Zorita Pildain.** Bergaran, otsailaren 12an. 87 urte.
**Iñaki Rubio Andonegi.** Bergaran, otsailaren 11n. 77 urte.
**Mariano Martinez Estevez.** Bergaran, otsailaren 13an. 89 urte.
**Antonio Segade Ferro.** Arrasaten, otsailaren 13an. 71 urte.
**Faustino Azpiazu Arregi.** Arrasaten, otsailaren 14an. 92 urte.
**Norberto Errasti Arrizabalaga.** Aramaion, otsailaren 14an. 87 urte.
**Rafaela Calderon Cruz.** Arrasaten, otsailaren 15ean. 91 urte.
**Jose Erdabide Etxaniz.** Bergaran, otsailaren 15ean. 87 urte.
**Manuel Lasarte Arribillaga.** Aretxabaletan, otsailaren 12an. 84 urte.

URTEURRENA

## Orlando Hernandez Aguado



'Miranda'

Arrasaten hil zen 2011ko otsailaren 14an, 78 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan,
otsailaren 19an, 12:30ean,
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

OROIGARRIA

## Bixente Pagoaga Gallastegi



Goienako kolaboratzailea

2012ko otsailaren 16an hil zen, 65 urte zituela.

Bat egiten dugu familiaren saminarekin.

goiena

**Goiena Komunikazio Taldea.
Debagoienean, 2012ko otsailaren 17an.**

GOIENAN ESKELA JARTZEKO
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.
EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.

**ARRASATE**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31.
943 25 05 05.
**OÑATI**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9.
943 78 10 65.
**ARETXABALETA**
Goiena: Durana 11.
943 79 86 21.
edo: Basabe poligonoa E05.
943 25 05 05.
**ARAMAIO**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11.
945 44 50 22.
**ELGETA**
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2.
943 76 80 98.
**ANTZUOLA:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1.
943 76 60 62.



Eskelaren prezioa: 126 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
**Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**

ESKER ONA

## Felicitas Vega Gonzalez



Maximo Jimenezen alarguna

Bergaran hil zen 2012ko otsailaren 9an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Bergaran, 2012ko otsailaren 17an.**

ESKER ONA

## Joxemari Uribarren Leturiaga



Arrasaten hil zen 2012ko otsailaren 14an, 78 urte zituela.

Eskerrik asko etorri zareten guztioi.

—

Haren aldeko meza domekan, 11:00etan, Arrasateko parrokian izango da.

—

*Senar eta aitte, zaitugu maitte,
hartu lasai haize, txori, mendi eta leize,
sortu Etxanen, eta juen Mondrauen.
Agurrik ez, danon partez.*

**Arrasaten, 2012ko otsailaren 17an.**

OROIGARRIA

## Joxemari Uribarren Leturiaga



Itziar Uribarren lankidearen aita

Arrasaten hil zen 2012ko otsailaren 14an, 78 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.*

Arizmendi

**Arizmendi ikastolako lankideak.
Leintz bailaran, 2012ko otsailaren 17 an.**

**BERGARA** **Esne Beltza Sound System**
Bergarako Trikiti Batzordeak antolatuta, Esne Beltza Sound System taldea izango da agertokian. Xabi Solano eta DZ musikariek jardungo dute, lehenak trikitiarekin eta bigarrenak erritmo oinarriak eskainita. Sarrerak Bule, Depor eta Arrano tabernetan daude salgai 3 eurotan.
Gaur, gaztetxean, 19:00etan.


ESNE BELTZA


WIKIPEDIA

**ARRASATE** **'Lucio' dokumentala eta anarkismoa berbagai**
AED elkarteak eta *Argia*-k lankidetzan antolatutako ekitaldia. Hasteko, *Lucio* dokumentalaren proiekzioa eta ostean tertulia, Josu Herrartek gidatua: *Anarkismoa, abertzaletasuna eta euskara. Bateraezinak ala osagarriak?*
Eguaztena, Kultur Ateko Jokin Zaitegi aretoan, 18:30ean.

# NON-ZER

OTSAILA 17
OTSAILA 23

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

## MUSIKA

**ARETXABALETA** **Aratuste Jaia musika eskolakoekin**
Leizarra Musika eskolakoek Aratusteen etorrera ospatuko dute. 17:00etan kalejira (kuartel zaharretik irten eta herriko kaleetan) eta 17:45ean musika eta dantza saioa Herriko Plazan.
Gaur, egubakoitza, Herriko kaleetan 17:00etan.

**OÑATI** **Udal Musika Banda**
Santa Ana antzokian egingo dute kontzertua.
Otsailaren 19a, domeka, Santa Ana antzokian, 12:45ean.

**OÑATI** **'Luzaideko Aratusteak' dantza taldekoekin**
Oñatz dantza taldea, Aita Madina taldeko txistulariak eta musika eskolako folk taldekoek Aratusteak aterako dituzte kalera. Kalejira erdialdeko kaleetan izango da.
Otsailaren 19a, domeka, kalerik kale, 09:00etan.

**ELGETA** **Inauterietako kontzertua**
Ekaitza taldeak joko du eta sorpresa ere egongo da egitarauaren barruan. Gaztetxeak antolatuta. Sarrera 3 euro da.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 23:00etan.

**ESKORIATZA** **Hegan**
Hegan talde ezaguna arduratuko da Aratuste-zapatua girotzeaz.
Bihar, zapatua, 18:30etan herriko plazan.

## ANTZERKIA

**ARRASATE** **Potxin eta Patxin pailazoak**
Potxin eta Patxin pailazoek pilpilean dauden gaiak jorratuko dituzte *Ohitura onak* ikuskizunean. Antzerkia, eskujokoak eta jokoak egingo dituzte.
Otsailaren 21a, martitzena, Amaia antzokian, 17:00etan.

**ARRASATE / OÑATI** **'Wilt: panpina puzgarriaren hilketa'**
Ados antzerki taldeak *Wilt panpina puzgarriaren hilketa* antzezlana eskainiko du. Mikel Laskurain bergararra izango da protagonista nagusia. *Wilt* XX. mendeko Tom Sharpe-n liburu ospetsuan oinarritua dago, mundu guztian ezaguna den lana da *Wilt.*
Gaur Oñatin, Santa Ana antzokian, 22:30ean eta otsailaren 19an, domeka, Arrasaten Amaia antzokian, 19:30etan.

## IKUSKIZUNAK

**OÑATI** **'Gramola' ikuskizuna umeendako**
Txorromorro taldeak ikuskizuna egingo du kiroldegiko pilotalekuan. Umeentzako ikuskizuna izango da.
Otsailaren 21a, martitzena. Kiroldegiko pilotalekuan, 16:30ean.

## DANTZA

**ESKORIATZA** **'Herrixa dantzan'**
Gidatutako dantzaldi irekia, Euskal Herriko eta, oro har, Europako dantza tradizional ludikoekin osatutakoa: sokan, borobilean, bikoteka... denetarik. Helburua da adin askotariko herritar soilek elkarrekin dantzan gozatzea. Sarrera doan eta parte-hartzea libre.
Otsailaren 19a, domeka, Unibertsitateko kaperan, 18:30ean.

## OSPAKIZUNAK

**BERGARA** **Jardunaldi gastronomikoak**
Debagoieneko X. jardunaldi gastronomikoak Munibe plazan. Pintxo dastaketa egongo da.
Otsailaren 21ean, Munibe plazan, 19:00etan.

**ANTZUOLA** **Erretiratuek Aratusteak ospatuko dituzte**
17:00etan mozorro lehiaketa egingo da eta ondoren merienda eta kina egingo dira. Izen-ematea otsailaren 8an eta 9an egin beharko da, 16:00etatik 18:00etara bitartean elkartean bertan; 4 euro ordaindu beharko dira. Elkartetik jendea animatu nahi da mozorrotuta joan dadin.
Otsailaren 21a, martitzena, 17:00etan.

**ARETXABALETA** **Txin-en hileta**
Santa Ageda neska-mutilek zerraldoa eramango dute Mitarte kaletik Herriko Plazaraino Aratusteak amaitzeko. Gerturatzen diren herritarrei luto jantzita joateko eta kandela eskuan eramateko gomendatzen zaie.
Otsailaren 21a, martitzena, 20:00etan, Mitarte kaletik.

**OÑATI** **Aratusteetako dantza**
Oñatz dantza taldeak antolatuta, herri Aratusteak egingo dituzte otsailaren 18an. Amaiera ekialdi nagusia plazan egingo dute iluntzeko zortzietan.
Otsailaren 18a, zapatua, kalerik kale, 12:00etan hasita.

**BERGARA** **Zuhaitz Eguna**
Zuhaitz feria egingo dute San Martin plazan goizean zehar.
Otsailaren 18a, zapatua, San Martin plazan, 10:00etan.

**ANTZUOLA** **Aratuste merienda eta karaokea**
Aratuste merienda eta karaokea prestatu dute hilaren 18rako gazte txokoan. Hurrengo egunerako, aldiz, otsailaren 19rako, *Txorixoa euskararekin bat lelopean* pintxoak saltzera kalera irtengo dira.
Otsailaren 18an eta 19an gaztetxokoan.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

**ARRASATE** **'Lucio'dokumentala eta anarkismoari buruzko tertulia**
AED elkarteak eta *Argia*-k lankidetzan antolatutako ekitaldia. Hasteko, *Lucio* dokumentalaren proiekzioa eta ostean, tertulia, Josu Herrartek gidatuta, gai honen inguruan: *Anarkismoa, abertzaletasuna eta euskara. Bateraezinak ala osagarriak?*
Otsailaren 22a, eguaztena, Kultur ateko, Jokin Zaitegi aretoan, 18:30ean.

## UMEAK

**ELGETA** **Ipuin kontalaria: Ane Meabe**
*Bazan kalabazan* lan berriarekin etorriko da.
Otsailaren 17a, egubakoitza, Udal Liburutegian, 19:30ean.

**ELGETA** **Buruhandiak**
Kultura batzordeak antolatutako ekitaldia.
Otsailaren 17a, egubakoitza, Herriko plazan, 18:45ean.

**ELGETA** **Haur jokoak**
Herri Eskolak antolatuta. Sokatira, zaku lasterketa, lokotx bilketa eta patata jokoa. Gainera, dantza bat egingo dute elkarrekin.
Otsailaren 17a, egubakoitza, Herriko plazan edo frontoian, 15:00etan.

## HITZALDIAK

**ARETXABALETA** **'Familia eta hezkuntza' berbaldia Agipaseko kideekin**
Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatuta, Gipuzkoako banandutako amen eta aiten elkarteko kideak etorriko dira familiaren, hezkuntzaren eta berdintasunaren gainean jardutera. Hona erantzungo dituzten galdera batzuk: *Emakumeak eta gizonak, berdinak eta ezberdinak gara baina zertan?; Zer esan gura du jenero arteko berdintasunak?; Oraindik badago egitekorik?.*
Eguaztenean, Arkupe kultura etxean, 18:30ean.

## BESTELAKOAK

**ELGETA** **Ludoteka-gaztelekua, batzar irekia**
Udalak dei egin du, gurasoendako. Gaia: ludoteka eta gazteleku zerbitzuen etorkizuna. Azalpenak

**DEBAGOIENA** **Aratusteak**
Atzo Eskoriatzan Urdelarderro egunarekin hasi eta eguazteneko Errauste Egunera arte Debagoieneko herri guztietan ospatuko dituzte Aratusteak. Aretxabaletan dira egun hauek bereziki ospatuak eta egun nagusia domekan izango da. Txino-dantza (argazkian) 11:45ean egingo dute plazan, eta ostean kalejira.
Begiratu egitarau osoa dagokion herrian.


GOIENA



BIANDINTZ

**OÑATI Moxal Eguna**
Oñatiko behorzale eta Gipuzkoako Mendiko Behorzale Elkarteak antolatuta, pintxo-poteo erako dastatzea egingo dute. Moxal pintxoa jateko eta Zañartuko txakolina, ardoa eta herriko sagardoa edateko.
Zapatuan, Foru plazan, 18:30ean.

eman eta iritziak jasoko dira batzarrean.
Otsailaren 22a, eguaztena, Elgetako udaletxean, 19:00etan.

**LEINTZ GATZAGA Beiraren birziklatzearen gaineko informazio karpa**
Beira birziklatzeko zein prozesu jarraitzen den, zein onura dakartzan birziklatzeak, edukiontzi berdeetan zer sartu behar den eta beste hainbat kontu erakutsiko dizkiete herritarrei San Migel plazan jarriko duten karpan. Mankomunitateak abian jarritako kanpaina da.
Otsailaren 17a, egubakoitza, San Migel plazan, 18:00etan.

## ZINEMA

**ARETXABALETA 'La chica del tren' filma**
Zineklubaren barruan emango dute Andre Techine zuzendari frantsesaren filma. Sarrera, 4 euro.
Otsailaren 23a, eguena, Arkupeko Zaraia aretoan, 19:30etan.

## DEIA

**ANTZUOLA KZguneko zerbitzua**
KZguneko tutorearen bisita izango da eguenean. Ordutegia honakoa: 09:00-13:00.
Otsailaren 23a, eguena, KZgunean, 09:00etan.

**OÑATI Gitarren mantenuaren gainekoak**
Iker Otegi luthierrak gitarraren mantenuaz eta oinarrizko zaintzaz jardungo du otsailaren 22an, 19:00etan, gaztelekuan.
Otsailaren 22a, eguaztena, Gaztelekuan, 19:00etan.

**ANTZUOLA Herritarrek odola eman ahal izango dute**
Odola emateko deialdia eguraldi txarragatik eta elurragatik atzeratu egin behar izan zuten pasa den hilaren 2an. Ondorioz, Antzuolako Odol Emaileen Elkarteak dei egin die antzuolarrei: astelehenean, otsailaren 20an, 17:30ean, Olaranera joan eta odola emateko beharrezko baldintzak beteta.
Otsailaren 20a, astelehena, Olaran, 17:30etik aurrera.

**ARAMAIO Azken ostirala**
Otsailak 24, ostirala, presoen aldeko elkarretaratzea Aramaioko herriko plazan arratsaldeko zazpi eta erdietan.
Otsailaren 24an, astelehena, 19:30ean-.

**OÑATI Atez atekoari buruzko batzar irekia**
Oñati Zero Zabor taldeak egingo du bilera. Aztertuko dituzten gaiak dira: taldearen ibilbidearen errepasoa: erraustegiekin eta atez atekoarekin zer gertatzen ari den; Oñatin atez atekoaren eta zaborraren inguruan dauden zalantzen argiketak; eta, aurrera begira, Oñati Zero Zabor taldeak esku artean dituen asmoak eta ekimenak.
Otsailaren 17a, egubakoitza, Kultura etxean, 18:30ean.

## LEHIAKETAK

**ELGETA Kartel lehiaketa: azken eguna.**
Martxoaren 8ko kartel lehiaketa. Deitzailea Bideberri mankomunitatea da. Azken egunak kartelak aurkezteko.
Otsailaren 21a, martitzena, Elgetako udaletxean., 09:00etan.

## IKASTAROAK

**ARETXABALETA 'Skype'-aren gaineko ikastaroa**
Loramendik antolatuta eta KZgunearekin elkarlanean *Skype*-aren gaineko ikastaroa emango dute. Izena emateko aurrez deitu behar da KZgunera: 943 25 23 51 edo *tutor.aretxabaleta@kzgunea.net*.
Otsailaren 20an, KZgunean, 16:00etan

## KIROLA

**ELGETA Kantsatzeke taldearen bazkidetza kanpaina**
Bazkide egiteko aukera. Prezioa: 5 euro.
Otsailaren 22a, eguaztena, Kultura etxeko 2. solairuan, 19:00etan.

**ELGETA Frontenis txapelketa**
Bikotekako partiduak jokatuko dira egun guztian zehar
Domekan, pilotalekuan, 12:30etan.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Sherlock Holmes 2**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

### OÑATI

**KULTUR ETXEA**

**J. Edgar**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR

**COLISEO ANTZOKIA**

**War horse**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 19:15, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Los Muppets**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**COLISEO 1**

**La chispa de la vida**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka. 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Aita zonbia naiz**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**COLISEO 2**

**Los hombres que no amaban a las mujeres**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 16:00, 19:15, 22:30.
Domeka: 16:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

**BOULEVARD**

**Los Muppets**
Barikutik eguenera: 15:50, 18:05, 20:20.

**Sherlock Holmes: Juego de sombras**
Barikutik eguenera: 22:35.

**Infierno blanco**
Barikutik eguenera: 15:45, 18:00, 20:15, 22:35, 00:55.

**El gato con botas**
Barikutik eguenera: 16:05, 18:05.

**Los descendientes**
Barikutik eguenera: 20:05, 22:20, 00:40.

**Viaje al centro de la tierra 2 3D**
Barikutik eguenera: 16:15, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

**Lo mejor de Eva**
Barikutik eguenera: 16:05, 18:10, 20:10, 22:10, 00:15.

**War Horse**
Barikutik eguenera: 16:00, 19:00, 22:00, 00:45.

**La mujer de negro**
Barikutik eguenera: 16:15, 18:15, 20:15, 22:20, 00:30.

**El invitado**
Barikutik eguenera: 15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

**Viaje al centro de la tierra 2**
Barikutik eguenera: 16:00, 18:00, 20:05, 22:05.

**Promoción fantasma**
Barikutik eguenera: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

**Underworld: El despertar**
Barikutik eguenera: 16:00, 18:00, 20:00, 00:50.

**Jack y su gemela**
Barikutik eguenera: 17:00.

**J. Edgar**
Barikutik eguenera: 19:15, 22:00.

**GORBEIA**

**Viaje al centro de la tierra 2**
Barikutik eguenera: 20:00.
Zapatu eta domekan: 16:00.

**Viaje al centro de la tierra 2 3D**
Barikutik eguenera: 18:00, 22:00.

**La mujer de negro**
Barikutik eguenera: 18:20, 20:20, 22:20.
Zapatu eta barikuan, baita: 00:20.
Zapatu eta domekan, baita: 16:20.

**Infierno blanco**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatu eta barikuan, baita: 00:45.
Zapatu eta domekan, baita: 15:45.

**El invitado**
Barikutik eguenera: 17:45, 20:05, 22:25.
Zapatu eta barikuan, baita: 00:45.
Zapatu eta domekan, baita: 15:30.

**War horse**
Barikutik eguenera: 18:25, 21:20,.
Zapatu eta barikuan, baita: 00:15.
Zapatu eta domekan, baita: 15:30.

**Star Wars: Episodio 1 3D**
Barikutik eguenera: 18:45, 21:30.
Zapatu eta barikuan, baita: 00:15.
Zapatu eta domekan, baita: 16:00.

**Los descendientes**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatu eta barikuan, baita: 00:45.
Zapatu eta domekan, baita: 15:45.

**Promoción fantasma**
Barikutik eguenera: 18:25, 20:25, 22:25.
Zapatu eta barikuan, baita: 00:25.
Zapatu eta domekan, baita: 16:25.

**Lo mejor de Eva**
Barikutik eguenera: 18:10, 20:10, 22:10.
Zapatu eta barikuan, baita: 00:10.

**Aita, zonbia naiz**
Barikutik eguenera: 17:30.
Zapatu eta domekan, baita: 15:45.

**Sherlock Holmes 2**
Barikutik eguenera: 19:30, 22:10.

**Katmandú**
Barikutik eguenera: 18:10, 20:20.
Zapatu eta domekan, baita: 16:00.

**La dama de hierro**
Barikutik eguenera: 22:30.
Zapatu eta barikuan, baita: 00:40.

**Los Muppets**
Barikutik eguenera: 17:40.
Zapatu eta domekan, baita: 15:30.

**Jack y su gemela**
Barikutik eguenera: 18:20.
Zapatu eta domekan, baita: 16:10.

**Underworld: El despertar 3D**
Barikutik eguenera: 20:30.

**Underworld: El despertar**
Barikutik eguenera: 22:30.
Zapatu eta barikuan, baita: 00:30.

**Alvin y las ardillas**
Barikutik eguenera: 17:30.
Zapatu eta domekan, baita: 15:50.

**J. Edgar**
Barikutik eguenera: 19:20.

**Millennium 1**
Barikutik eguenera: 22:00.

**Drive**
Barikutik eguenera: 20:00.

**Criadas y señoras**
Barikutik eguenera: 22:05.

**Arthur Christmas**
Barikutik eguenera: 16:15.

**GURIDI**

**Viaje al centro de la tierra 2**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**El invitado**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Arrugas**
Barikutik eguenera: 17:30.

**La fuente de las mujeres**
Barikutik eguenera: 20:00, 22:30.

**La mujer de negro**
Barikutik domekara: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:20.

**Los Muppets**
Barikutik eguenera: 17:30.

**La dama de hierro**
Barikutik eguenera: 20:00, 22:30.

**War Horse**
Barikutik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:30.

**Los descendientes**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**FLORIDA**

**Shame**
Barikutik domekara: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:30.

**Aita, zonbia naiz**
Barikutik eguenera: 17:30.

**Moneyball, rompiendo las normas**
Barikutik eguenera: 20:00, 22:30.

**Declaración de guerra**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Katmandú**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**J. Edgar**
Zapatua: 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30.

**El último magnate**
Barikua: 20:30.
Zapatua: 19:00, 20:30.
Domekatik eguenera: 20:15, 22:30.

**The artist**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Young adult**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

## KRITIKA

**SHAME** ★★★★☆
**Zuzendaria:** Steve McQueen.
**Herrialdea:** Erresuma Batua.
**Urtea:** 2011.
**Aktoreak:** Michael Fassbender, Carey Mulligan, James Bagde Dale.
**Iraupena:** 101 minutu.



# Bakardadea bizitza modernoan

*Shame* filmak Veneziako Zinemaldian parte hartu zuen joan den urtean. Gero, Donostiako Zinemaldian ikusteko aukera izan genuen eta gaur, zinema–areto komertzialetara heltzen da, bi aukera desberdinetan: jatorrizko hizkuntzan azpitituluekin edo bikoiztuta. Steve McQueenen filma oso da interesgarria. Hain sarri ukitzen ez den gai bat jorratzen du: pertsonaia nagusia sexuaren menpe bizi da. Dena den, istorioak pauso bat harago eman eta gaur egun dugun bizimoduarekin senti daitekeen alienazio eta bakardadeari buruz hitz egiten du.

*Shame* nahiko arduragarria eta deserosoa izan daiteke. Ez bakarrik ukitzen duen gaiarengatik, hari heltzeko moduak ere zerikusi handia dauka. Film gehienek galderak egiten badituzte, erantzun zehatzak ere ematen dituzte eta horrek lasaitasuna ematen digu. McQueen–en filmean, ostera, ez da halakorik gertatzen. Ez daukagu datu askorik pertsonaia nagusia egoera horretara nola heldu den jakiteko. Antzeman dezakegu familiarekin izan dituen harremanak ez direla errazak izan, baina ez daukagu datu askorik pertsonaiaren portaera ulertzeko. Zuzendariak Michael Fassbenderrek egiten duen pertsonaiaren bizimoduaren jarraipena egiten du: zer lan mota duen, zein girotan mugitzen den edo gizartean duen estatus maila erakusten digu baina nahiko tonu hotza erabilita. Pertsonaiei buruz datu askorik ez edukitzeak eta filmatzeko erabilitako koloreak horretan laguntzen dute.

Pertsonaiak ez ditu pertsonak ezagutu nahi, sexu harremanak izan bai, baina beste pertsonarekin harreman sakonak izan barik. Honen bizitza hutsa eta bakartia ikusiko dugu eta haren arreba agertzen denean istorioaren pisu dramatikoa areagotuz joango da, aipatutako sentsazio kezkagarriak eta deserosoekin. Michael Fassbender eta Carey Mulliganen interpretazio zoragarriak.

ANTONIO ZABALA




goiena"
2012-02-17
**HARPIDETZA:** ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM



# Ikurrina da bere 'country'-ko bandera

▶ RadioShack Nissan Treck txirrindularitza taldearen webgunean ikurrina ipini diete euskaldun guztiei

▶ Markel Irizarrek kontatu digu ez dutela eskaririk egin beharrik izan, badakitelako nola sentitzen diren

**ARRITXU BARRUSO** | ARRASATE

Euskal Herritik milaka eta milaka kilometrotara, mundu mailako txirrindularitza talde garrantzitsuenetariko batera batu, eta ikurriña soinean eramateko aukera izan du Markel Irizar txirrindulari oñatiarrak. Horixe bera ikusi dugu RadioShack Nissan Trek taldearen webgunean. Taldearen aurkezpena egiten duten orrian Alemaniako, Frantziako, AEBetako edo Danimarkako banderekin batera bi ikurrina ageri dira; Haimar eta Markelenak. Bi euskal txirrindularien fitxan ere ikurrina ipini dute. Hori bai, nazionalitatea *spanish* dela dio.

### Sentimenduekin bat

Markel Irizar pozik dago taldeak banderen kontuarekin hartutako jarrerarekin eta kontatu digu beraiek inolako eskaririk egin barik hartu duela enpresak erabaki hori. "Badakite gu ez garela espainol sentitzen eta guk sentitzen dugun herriko ikurrina jarri digute. Ez dugu horrekin inolako polemikarik sortu nahi. Basque *Country*-koak gara eta gure *country* -ko bandera ikurrina da; beraiek horrela ulertzen dute".

Dena dela, webgunean bakarrik ez autobusean, motxilan, maletetan ere ikurrina ageri dela esan digu Irizarrek. Gainera, aurten lehenengo aldiz, txirrindulari bakoitzaren arropan ere herrialdeko bandera ipini dute, eta beraz, ikurrinarekin hara eta hona dabil lasterketetan oñatiarra. Banderen kontuak gainera, txantxetarako bidea ere ematen ei die: "Masajistak-eta beti saiatzen dira txantxetan Espainiako bandera jarri eta horrelako gaiztakeriaren bat egiten".




Markel Irizar txirrindulari oñatiarraren fitxa. | RADIOSHACKNISSANTREC.COM




Radio Shack taldeko txirrindulariak beraien banderekin. | RADIOSHACKNISSANTREC.COM

### Taldekideak euskalduntzen

Ikurrina alde batera utzita, RadioShack taldeko kideek ederki asko dakite Irizar nongoa den eta nongo sentitzen den. "Elkarrizketa, tweet edo delakoetan sekula ez dute erabiltzen euskaldun ez den hitzik. Atzo bertan Wagnerrek *basque warrior* idatzi zuen twitterren. Ondo azpimarratzen diegu beti hori. Egia esan nahiko barre egiten dugu gai horren kontura".

Amstrongek ere oñatiarrari *radio basque* deitzen diola enteratu gara: "Beti kontatzeko konturen bat dudala esaten di artista horrek. Isilik banago *green light* esaten dit, irratia piztu eta zerbait kontatzen hasteko. Adarra jotze jaioa da gero!"

## AZKEN BERBA



AINTZANE OIARBIDE

# Euskadi vs Errumania

Errumaniako lagun batek esan zidan: "Zergatik egiten du jende horrek azpiegituren aurkako protesta? Errepide azkar eta modernoak dituzue, ospitale handi eta aurreratuenak, uraztegi handiak urik gabe gera ez zaitezten, kiroldegiak, unibertsitateak, portu eta aireportuak euskaldunak joan-etorrian ibil zaitezten zuen industrietako produktuak saltzen. Giza eskubideetan oinarritutako herria eraiki duzue…".

Nik honela erantzun nion: "Gogoan al duzu 1989an Errumaniara joan nintzenekoa? Errepublika Sozialistaren buru Ceaucescu diktadorea zen. Mutiko bat kalean gerturatu eta behatzak zapata apurtuetatik kanpora zituela ikusi eta zapata parea erosi genion… Hura delitua! Polizia errumaniarra gure atzetik abiatu zen. Hilabete eta erdira, Ceaucescu eta bere andrea, urrezko iturri eta lababoak zituen jauregian zeudela, miserian zeuden errumaniar herritarrek exekutatu egin zituzten". Lagunak esan zidan: "Bai, gogoan dut. Orduan Errumanian azpiegitura erraldoiak genituen, museo batzuk, liburutegiren bat, baina batez ere diktadore sozialistaren irudi erraldoi eta sozialismoaren omenezko monumentuak…".

